

IHARDUNALDIAK  
JORNADAS EMAKUNDE

**DEMOGRAFIA ETA GIZARTEAREN  
ALDAKETA  
DEMOGRAFÍA Y CAMBIO SOCIAL**

Forum Feminista María de Maeztu



**IHARDUNALDIAK**

**DEMOGRAFIA ETA GIZARTEAREN  
ALDAKETA**

María de Maeztu Forum Feminista

EMAKUNDE  
Emakumearen Euskal Erakundea  
Vitoria-Gasteiz 1993

## **DEMOGRAFIA ETA GIZARTEAREN ALDAKETARI BURUZKO IHARDUNALDIAK**

ANTOLATZAILEA: "María de Maeztu" Forum Feminista

KOORDINATZAILEA: Idoia Estornés Zubizarreta, Historian Dk. eta Idazlea.

MODERATZAILEA: Rosario Galdós, Geografian Dk., UPV-EHU.

DIRULAGUNTZA: EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundearena eta Donostiako Udalarena.

IZENBURUA: «Demografia eta Gizartearen aldaketa»

EGILEA: EMAKUNDE / Emakumearen Euskal Erakunde  
Manuel Iradier kalea, 36 - 01005 VITORIA-GASTEIZ

DATA: 1993.ko Otsaila

DESKRIPTOREAK: Demografia, politika demografikoa, ugalkortasuna, partaidetza laborala, datu estatistikoak.

DISEINU GRAFIKOA: Ana Badiola eta Isabel Madinabeitia

ALE KOPURUA: 1.000

I.S.B.N.: 84-87595-12-X

LEGE GORDAILUA: SS - 680 / 92

FOTOKONPOSAKETA eta INPRIMATEGIA: ANTZA

Industrialdea 1-2 20160 Lasarte-Oria

## AURKIBIDEA

<b>AURKEZPENA</b> .....	7
<b>1 PLANETA GAINPOPULATUA: LURRA</b> Jesús Mosterín. Bartzelonako Unibertsitatekoa .....	9
<b>2 MUNDUKO BIZTANLERIAREN EGOERA. NORABIDEAK ETA POLITIKAK</b> Tomás Jiménez. Nazio Batuen Erakundekoa .....	21
<b>3 EMAKUMEA, DEMOGRAFI JOKABIDEAREN GAKOA</b> Aurora García Ballesteros. Unibertsitate Complutensekoa .....	31
<b>4 SUEDIAREN KASUA:</b> <b>DEMOGRAFI HAZKUNDEA DEMOKRAZI AURRERATU BATETAN</b> Eva Bernhardt. Stockholm-eko Unibertsitatekoa .....	39
<b>5 ESPAINIAKO BIZTANLERIA AKTIBOAREN EGOERA</b> Montserrat Solsona. Bartzelonako Unibertsitate Autonomokoa .....	51
<b>6 EUSKAL HERRIA, HAZKUNDE HUTSA</b> Andrés Valentín. Nafarroako Gobernu Estatistika Departamentukoa .....	71
<b>7 EUSKAL AUTONOMI ELKARTEAREN BILAKAERA DEMOGRAFIKOA</b> Enrique Morán. Eusko Jaurlaritzako EUSTATEkoa .....	81


## AURKEZPENA

M

endebaldeko herrialdeetan demografian gertatzen ari diren aldaketei buruz gogoeta egitea ere interesgarria iruditu zaigu.

Demografiaren gorabeheretan eragiten duten eragileak askotarikoak eta sakonak dira. Ekonomiaren egoera, erlijioa, jaiotza-kopuruak gora zein behera egin dezan gobernuek bultzatutako politikak, etxebizitzarik ez izatea, lan-baldintza eskasak eta zerbitzu-sarerik ez edukitzea, beste batzuen artean, familia izan edo ez izatera bultzatzen duten eragile aipagarrietako batzuk dira. Horien guztien inguruko azterketa egin asmoz, EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundeak Demografia eta Gizarte-Aldaketari buruz María de Maeztu Forum Feministak 1990.eko azaroaren 15 eta 16an antolatutako jardunaldiei dirulaguntza eman zien.

Horrekin batera, interesgarria iruditzen zaigu jardunaldi horretan izan ziren hitzaldiak argitaratzea, gizarte osoari eragiten dion gai bati buruzko agiriak eta ikuspuntuak eduki ahal izateko.



Txaro Arteaga Ansa  
EMAKUNDE / Emakumearen Euskal  
Erakundeko Zuzendaria

# PLANETA GAINPOPULATUA

Jesús Mosterín

## Jesús Mosterín

Bilbon jaioa 41-9-24ean.

Filosofia, Matematika eta Kazetaritza ikasketak Madrilén, Bartzelonan eta Alemanian. Hainbat herrialdetako unibertsitateetan egona.

Zientziaren Logika eta Filosofia Katedraduna Bartzelonako Unibertsitatean.

Zientziaren Logika, Historia eta Filosofia Saileko Zuzendaria Bartzelonako Unibertsitatean.

International Academy of Philosophy of Science-ko kide.

Alianza, Ariel eta Salvat-ek argitaratutako 14 libururen egilea. (esate baterako, «Racionalidad y Acción Humana» eta «Conceptos y teorías en la ciencia», biak Alianzak argitaratuak).

Ingelesez nahiz gaztelaniaz idatzitako zientzi artikulua askoren egilea, eta zenbait egunkariren laguntzaile (El País eta La Vanguardiarena, adibidez).

# E

skerrik asko hitz atsegin horiengatik. Aurrena neu naizenez, halako gogoeta orokor batzu azalduko ditut, ondoren, hurrengo hitzaldietan zehar, gorpuztuz eta zehaztuz joango direnak. Arazoari buruzko ikuspegi zabal bat azalduko dut, urrunetiko ikuspegi, kosmikoa dei lekiokena, hots, ez naiz Euskal Herriko biztanleriaren arazo berezietaz mintzatuko (ez bait ditut ongi ezagutzen).

Dena den, oro har, arazo horiek ez dira horren garrantzizkoak, batez ere, Euskal Herriaren guztizko biztanleria munduko biztanleriaren %0,1aren erdira ere heltzen ez dela gogoan izanik, edota, gaur egun munduan dagoen demografi hazkunde itzelaren ondorioz, urtero 50 euskal herriren biztanleria ganerazten zaiola munduko populazioari kontutan hartuz gero. Horrela bada, ikuspegi orokor batetik abiatuko naiz arazo hau aztertzeraz, eta gerora, aurrera egin ahala, gai hau inguruabar jakinei eta baita bertokoei ere loturik agertuko zaigula uste dut.

Ikuspegi kosmiko batetik, esan beharreko lehen gauza zera litzateke, termodinamikaren aldetik bizitza fenomeno oso gertagaitza dela, txit hauskorra, gezurrezkoa dirudi bizitza, oso bitxia eta harrigarria bait da bizitza izatea. Dakizuen bezala, termodinamikaren bigarren printzipioak dioenez unibertsoan gero eta entropia gehiago dago. Gu bezalako gauza batzu, hau da, entropia gutxitu eta antolamendua gehitzen direneko organismoon kasua salbuespentzat jo dezakegu, desantolamendurantzko joera unibertsal baten salbuespen lokala. Azken finean horrek ez dirau, eta izan ere, bizitza gertaera iragankorra da Unibertsoaren bilakaeraren baitan. Alabaina, gu Unibertsoaren aro interesgarri honetan gara, fenomeno bitxi hau, bizitza alegia, gertatu egiten den aroan, eta gure asturu onez gozatu behar dugu aro honetan eta ez beste ezinetan bizitzea suertatu bait zaigu.

Ez dakigu Unibertsoan barrena non dagoen bizitza; beste izar batzuetako beste zenbait planetatan, agian, bada bizitza, litekeena da, zergatik ez? Baina baliteke, era berean, bizitzarik ez izatea. Lurra planetan, ordea, badakigu bizitza badela. Eguzki sistemako gainerako planeta guztietan bizitzarik ez dagoela ere badakigu, haietara joan bait gara espazialuntzi berezi eta egokiekin. Eta gainera, ez dago joan beharrik, aski da planeta baten eguratsa, erakusten duen argia aztertzea, argi horren analisi espektroskopikoaren bidez eguratsa aztertu eta bizitzarik baden ala ez jakin dezakegu. Izan ere, bizitza dagoen planeta batetan, bizitzak erabat aldarazten du eguratsa, eta orduan, planetaren gainazal osoa halako izaki bizidun handi bat bihurtzen da, guk hemen biosfera hitzaz ezagutzen duguna, eta orduan eguratsa, izaki bizidunek sortzen duten eguratsa, Lovelock-ek "Gaya" hitzaz, grekoek lurrraren jainkosari atxekitako izenaz alegia, deitu duen izaki bizidun honen odolaren ibilbide eta arnasbide bihurtzen da.

Hasieran, gure planetaren eguratsa Martitz edo Artizar planetenaren antzekoa zen, karbonozko dioxidoa gehien bat. Jakina denez, gure planetaren airean oxigenoa dago, baina, hasieran ez zegoen oxigenorik, eguratsean dagoen oxigeno guztia, guk arnastu egiten duguna, horren ezean berehala hil egingo ginateke eta, oxigeno hori bada, izaki bizidunek sortua da, eta bereziki landareek. Hasieran, aurreneko hiru mila milioi urteetan zehar, lau mila eta zazpirehun dituen planeta honetan ez zegoen oxigenorik airean. Gerora, berriz, organismo fotosintetizadore batzu, lehenengo bakteriak hain zuzen, oxigeno hori sortuz joan dira, eta horren ondorioz, orain airea oxigenoz beterik dugu.

Oxigeno honek airearen %20 inguru osotzen du, horixe baita proportzio egokia. Orain baino oxigeno askoz gehiago balego airean, eguratsean alegia, berezko suteak sortuko liriateke, basoak berez sutan jarri eta gu geu ere zerraldo ginateke. Orain baino askoz ere oxigeno gutxiago balego, aldiz, funtsezkoak ditugun prozesu metabolikoak astiroegi joango liriateke eta, horrenbestez, hil egingo ginateke. Eguratsean, beraz, bertan bizi garen organismoentzat egokia den oxigeno-kopurua dugu hain justu.

Horrek esan nahi du gure eta biosferako gainontzekoaren artean halako atxekitasun bat dagoela, gu biosferaren osagai gara gure zelulak gure osagai diren bezalaxe. Gure zelulak etengabe birsortzen ari dira, bidertzen, eta ezberdinak dira, jakina. Gure hezurretako zelulak eta gure nerbioetakoak ezberdinak dira, era berean, gure pankrea nahiz gure giharretakoak, zelula ezberdinak ez ezik, ehun ezberdinak ditugu. Horrexegatik bizi daiteke organismo osoa, ehun guzti horien elkarrekintza bateratuari esker. Gu biosferaren osagai gara eta gure planetari urrunetik begiratuz gero, ikusten den lehen gauza ez gara gu, biosfera hau baizik.

Hau esan ondoren, hel diezaiozun biztanleriari gauza pare bat aipatzeko. Lehendabizi, biztanleria toki mugatu batetan espezie jakin baten kide-kopurua dateke, kasu honetan, hain zuzen ere, Lurra planetan dagoen gizaki-kopurua. Demografi hazkundera, berriz, (matematikaren aldetik adierazita) biztanleriaren deribatua denborarekiko besterik ez da. Esate baterako, abiadura posizioaren deribatua denborarekiko dugu, hots, abiadurak neurtzen du posizioa nola aldatzen den denboraren arabera. Azelerazioa, bestalde, abiaduraren deribatua abiadurarekiko da, hots, azelerazioak abiaduraren denboraren arabera aldaketa neurtzen du. Azelerazioa positiboa da, deribatua bezalaxe, abiadura gehituz bada; azelerazioa hutsa da, hots, deribatua hutsa da, abiadura aldatzen ez bada; eta azelerazioa negatiboa da, deribatua bezalaxe, balaztatzen ari bagara. Gauza berbera gertatzen da demografi hazkunderarekin. Demografi hazkundera, hau da, biztanleriaren deribatua denborarekiko, hutsa da biztanleria aldatzen ez bada; positiboa da biztanleria gehitzen bada; eta negatiboa biztanleria gutxituz bada.

Ekosistemak espezie ezberdinetako biztanleriez osatu ohi dira. Egoera arruntetan biztanleria hauek egonkorak dira. Ekosistema helduek, zenbait etapa igaro ondoren, prozesuaren klimaxa deritzana erdiesten dute, hau da, konplexutasun biologiko eta egonkortasun goreneko mailara iristen dira, eta berorretan gelditzen dira luzaroan.

Ekosistema edo espezie jakin baten biztanleria demografi orekan dago bere biztanleriaren deribatua denborarekiko (hau da, bere demografi hazkundera) hutsa denean, gehitu nahiz gutxitzen ez denean, alegia. Espezie ezberdinen jaiotzeak eta hilkortasunari erreparatuz gero, kume oso hilkorrek dituzten espezieek jaiokuntza handia ere badutela ikus daiteke. Hirigintzaren eta mixomatosisa medio, ia erabat desagertu aurretik, Mediterraneo inguruko herrialdeetan untxe ugari zegoen, eto untxeak arerio asko zeukan, axeriak eta arranoak, hala nola beste hainbeste harraparik ehizi oso preziatutzat bait zuten. Untxeen arerioek haren kumeak jaten ziztuztenez gero, untxeek kume ugari erditu, eta horri esker, hainbat eta hainbat arerioek kume asko eta asko jan arren, euren biztanleriari eusteko bezain bat untxek bizirik zirauten.

Itsas zabalean, aitzitik, baleek, gure planetan bizi diren abererik handienak diren baleek, ez zeukaten areririk gizakiok balea-arrantzale bihurtu arte. Hain handiak ziren, hain ahaltzu eta izugarriak, ezen inor ez zen haiekin ausartzen, ez zeukaten areririk; areririk gabe, beraz, baleakumeek bizirik irauteko probabilitate handiak zituzten, inork ez zituen hiltzen, eta ondorioz, baleek oso kume gutxi izan ohi zituzten. Behin edo behin, kume bakarra zuten, izan ere, ez bait zuten gehiago behar biztanle kopuruari eusteko.

Gauzak honela, demografi orekako maila hau berezko demografi orekako maila da. Giza-espeziea gure genomaren daramatzagun mezu genetikoetan txertaturiko plan baten arabera osotua da. Gure zeluletako bakoitzak bere plan genetikoa du, gizaki bat egiteko argitasunez jantzitako liburu bat bezalakoa. Ez gizaki orokor bat, jakina, baizik eta, nire kasuan neu bezalakoa, hain zuzen, eta zuen kasuan zeuetako bakoitza bezalakoa.

Guk gaitasun eta joera sexual jakin batzu ditugu; beste alde batetik, emakumeen ernalmena dago, eta halaberrez, kumeak sortzen dira, kumeok jasan ohi duten berezko hilkortasunaren ondorioz, hau da, arerioen, gaixotasunen, zolduren, eta abarren kariatz, gehienak hilik suertatzen badira ere, populazioak egonkor samar iraun dezan beharrezkoa den kume-kopurua, alegia.

A

ldatu dena, XIX. mendetik hona, batez ere, gertatu dena zera da, berezko oreka horretan gizakiaren ikutua soma daitekeela, hura kolokan jarri duena. Berezko oreketan eskuhartzea ez da derrigorrez kaltegarria suertatu behar, adimendutsuak badira, simetrikokoak badira, eskuhartzeak ongi etorriak izango dira edozein arazo konpontzeko.

Demografiari dagokionez, ordea, akats bat dago, izan ere, arazo honek bi alderdi bait ditu, jaiotzeak eta hilkortasuna, eta guk berezko hilkortasunaren arloan eskuhartu dugu artifizialki eta erabat, modu

erasokorrez esan genezake. XIX. mendean geroztik bada, eriotzari oztopoak jartzen ahalegindu gara, ez diogu jendeari hiltzen uzten, berezko hilkortasunari eraso egin diogu hainbat motatako txerto, botika eta abarrekin, berezko hilkortasuna zeharo baztertu dugu eta haren lekuan hilkortasun artifiziala jarri. Hil hiltzen gara orain ere, jakina, baina eriotza ez da berez etorri behar zuenean etortzen, inon diren arreta, kontu, botika eta abar luze bat gainditu ondoren baizik.

Gauzak honela, jaiotzeen arloan ere antzerako eskuhartze bat izan bagenu ez zatekeen ezer gertatu. Lehenago untxeak bezala jaiotzeak eta untxeak bezala hiltzen ginen legez, orain baleak bezala jaiotzeak eta baleak bezala hiltzen gero, ez lioke ardura, eredu-aldaketa bat besterik ez litzateke, baina demografi orekari eutsiko liokeen aldaketa.

Aitzitik, hilkortasunaren aldetik eskuhartze masiboa eta erasokorra izan bada ere, salbuespenak salbuespen, ez da halako eskuhartzerik, ez eta antzekorik ere, gertatu jaiotzeei dagokienez, hots, eskuhartze asimetrikoa izan da. Eta badakizue gizarte garaikide honek dituen arazoetako asko eskuhartze edo interferentzia asimetrikoetatik eratorriak direna. Esate baterako, manufaktur industriak ondasunak eta kalteak ekoizten edo produzitzen ditu, hortaz, ondasunak ekoizteaz bai, baina kalteak deusezteaz arduratzen ez bagara, bada orduan, zabor eta hondakinez gainezka izango gara. Halako arazo ugari dago, baina demografiari dagokion hau bereziki larria dugu, zeren eta bi gauza zentzudunak egin zitezkeen eta ez ditugu egin ez bata ez bestea: bata, natura dagoenean utzi, eta bestea, naturan eskuhartu, baina, arazoen alderdi guztiak kontutan hartuz eta ez batzu soilik.

Aldebateko eskuhartze edo interferentzia honen emaitza populazio-lehergailu bat izan da, eztanda egin duen eta oraintxe bertan ere geure begien aurrean eztanda egiten ari den lehergailua. Beno, ez Donostian hain zuzen, edo Europan orohar, baina bai mundu zabalean.

Eztanda hau XIX. mendean hasi zen, hain justu, eta gaur egun ere badirau. Eta ondorio garbi bat ekarri du, hots, planeta osoko biztanleriari erreparatuz gero, ez herrialde jakin batekoari, planeta osoari baizik, hazkunde exponentziala agertzen zaigula; hau da, epealdi berberetan ez da jende-kopuruaren hazkunde berbera izan, epealdi berberetan, ordea, jende-kopuruaren hazkunde handiagoa izan da, edo beste modu batez esateko, jende-kopuruaren hazkunde berbera suertatu da gero eta epealdi laburragoetan. Hortaz, hominidoen bilakaera iraun bitarteko milioika urteetan, badirudi, milioi batetik bost milioitara zirela. Gerora, Neolitikoko iraultzaren poderioz, gizaki-kopurua asko gehitu zen. Urte mordo baten buruan, India klasikoaren, Txina klasikoaren, eta Grezia klasikoaren eta Erroma klasikoaren garaian, berrehun edo berrehun eta berrogeitamar milioi izatera iritsi zen, eta zehazki jakiten zaila den arren, kopuru horrek benetakoa dirudi.

Gerora ere gizateria gehituz joan zen, baina eztanda XIX. mendean gertatu zen. Bi bider gizaki gehiago izatera noiz heldu ziren ere ikus daiteke. 0 urtetik 1650era hain zuzen, bi bider gizaki gehiago izatera iritsi zen, 1650 urtetan bikoiztu egin zen gizateria. Baina ondorengo bikoiztea, 1650etik 1850era, 200 urte igaro ondoren suertatu zen; hurrengoak, 1850etik 1930era, aski izan zuen larogei urterekin; hurrengoak, berriz, berrogeitabost urte baino ez, 1930etik 1975era; hurrengoak are gutxiago. Saldo honi (1650, 200, 80, 45, ...) erreparatuz gero, gizateria bi bider gehitzeko gero eta epe laburragoa behar dela ikus daiteke. Hazkunde hau, funtsean, esponentziala da.

Eta ezin daiteke mugagabea izan. Adibidez, demagun koordenatu-ardatz bat dugula, eta goian beheko  $x$ -ekiko paraleloa den marra bat egiten dugu, Lurraren konstanteetako edozein irudikatzen duena, bestalde, gorantz doan beste marra bat jartzen badugu, gizateriari dagokiona, eta bi marrok elkar zeharkatzen dutenean, horrek adierazten digu une hori baino askozaz lehenago gelditu behar dela demografi hazkundera.

Nork bere pisua du, ez dakit zein izan daitekeen batez bestekoa, 60 kilo, 70 edo 75, ez dio axola. Gizaki-kopurua etengabe gehituz joango balitz, gizakien haragia Lurraren masak baino pisu gehiago izatera iritsiko litzateke. Jakina, halakorik gertatu baino lehen gizateriaren hazkundera eten beharra dago. Gizakiok beroa sortzen dugu, abere-beroa deritzana. Dakizuenez, gure zeluletako bakoitza halako labe txiki bat da, izan ere, jatean, funtsean, zeluletara ikatza eramaten ari gara, hau da, elikagaietatik ikatza atera eta zeluletara eramaten dugu, eta sudurretik arnasa hartzean, funtsean, zeluletara oxigenoa eramaten ari gara. Zelula bakoitzean halako su txiki bat bezalako zerbait dago eta arnasketa su hori suspertzeko erabiltzen dugun auspo bat bezalakoa da, eta janaria, berriz, erretzen ari garen ikatza bezalakoa. Guzti horrek beroa sortzen du, 36 gradutako beroa, alegia.

Guk sor dezakegun beroak, bestalde, muga termiko batzu ditu, noski. Egoera honek ezin dezakeela etengabe iraun adierazten duten muga asko dira. Muga horietara heldu baino askoz lehenago geldituko da gizateriaren hazkundera. Natura meneratuko badugu, haren legeak gorde behar ditugu, esaten zuen Galileok. Artifizialki sortzen ditugun desorekak, behin-behineko desorekak dira; desorekok artifizialki zuzentzen baditugu, gaitz erdi, bestela, ama naturak berak zuzenduko ditu ororen gainetik. Horretaz ez dago zalantzarik.

Zeintzu dira ondorioak? Hazkunde esponenzial hau zergatik ote da arazo? Gizateriaren eztanda honek zein arazo dakar? Arazoa da bai, eta arrazoi askorengatik, baina, ene ustez, arazo-mota bi dira nagusi, batez ere.

Lehenengo eta behin, ekologi arazoak ditugu. Lehenago esan dudan bezala, gu biosferaren osagai gara, Unibertsoan ezagutzen dugun bizitza bakarraren osagaiak, alegia. Gauzak horrela, orain, gu gizakiok minbizi bat gara, biosferaren minbizia. Eta hau ez da metafora bat, egia hutsa baizik. Minbizia, zentzu teknikoan, behintzat, ehun baten biderkaketa nahasia da, beste ehun baten pentsura gertatzen den hazkunde nahasia. Nik, esate baterako, ehun epiteliarrezko zelulak dauzkat azalean, hezur ehunezko zelulak hezurretan nerbio-ehunezkoak nerbioetan; hots, ehun ezberdinetako zelulak dauzkat nire organo ezberdinetan, eta denen iharduera eta elkarrekintzari esker bizi naiz ni.

Nolanahi ere, une batez, nire organismoko zelula bat, edozein tokitako, hezurrekoa nahiz pankreakoa, edozein ehunako zelula bat, ezein natur arauri jarraitu gabe biderkatzen hasten bada, horrenbestez, hura hazi ahala, bere inguruko zelulak desegin eta akatuz joango da, haien lekua eta oxigenoa bereganatuz, haiei dena kenduz, eta orduan, gainontzeko ehunak ere hil egingo ditu, azkenean, organismo osoa hil arte. Orduan, organismo osoa hiltzean, ehun guztiak hiltzen dira, baita minbiziz jotakoa ere.

Zentzu tekniko honetan, beraz, planetarteko mediku batek planeta-biosferak aztertzerik baleuka, argi dago, Lurra planeta kanpotik ikusiko lukeen mediku horrek minbizia joko lukeela planeta honen oinarrizko gaixotasuntzat. Jakina, minbiziak sintoma ezberdinak agertzen ditu. Hortaz, planeta honek daukan minbizia, hots, bere ehunetako baten, gizateriaren alegia, biderkaketa nahasian datzan minbizia, hain entzunak eta ezagunak zaizkizuen ekologi arazo guzti horien bidez agertzen da. Esate baterako, planeta honetako ekosistema eder eta miresgarriak bata bestearen ondoren suntsitzen ari dira. Adibidez, Hegoameriketako hainbat herrialdetan demografi hazkunde izugarria gertatzen ari da, eta bertan izanik haiekin hitz eginez gero, zera esango dizute: “ezetz bada, herrialde honek hainbat eta hainbat kilometro karratu dauka...”. Bitartean hango umeak goseak hiltzen ari dira egunero, baina, kilometro karratuak aipatzen dituzte elikagaiak bailiran, eta aldi berean, dauden ekosistema guztiak hondatzearen alde agertzen dira.

Hainbat eta hainbat abere-espezie ere iraugitzeko zorian daude, eta zenbait dagoeneko betirako desagertuak dira. Jakina, Lurra planetan gero eta lursail gehiago eta handiagoak hustiratzen dira nekazaritzan, etekinik emango duen lursailik bada, honez gero landuta dago, antzuak direnak ere lantzen dira eta. Gero eta zolu gutxiago dago, lantzen den lur horrek ez bait du lantzeko balio, alabaina, landu egiten da; azkar alperrik galtzen den lurra da, eta laga ere azkar lagatzen dena, azkenean, tropikoko herrialdeetako euriek desegiten dutena. Hau ez da, agian, arazo honetaz hitz egiteko lekurik aproposena, baina, esan beharra dago jokabide horren ondorioz, gizakiak eta nekazaritzak lurrok laga ondoren, lur horiek erabat hondatuta edo hilda geratzen direla.

**H**asiera batetan, gizakiek lurralde oparo eta emankorrak aurkitzen dituzte herrialde horietan, Amazonian edo Afrikako hainbat zonaldeetan gertatzen den bezala, lurralde oso aberatsak, landarez beteak, abere eta landare ederrez hornituak. Orduan erre egiten dute, kiskaldu, den dena suntsitu, eta gero edozer ereiten dute eurek ere goseak ez hiltzearen, janaria izatearren. Orduan, baina, lur horrek urte pare bateko uzta besterik ez die

eskaintzen eta epe hori igarotakoan alde egiten dute. Ordurako lur horrek bere elikagai guztiak galdu ditu, basoan zeuden elikagaiak, jadanik ez bait dago basorik. Basoaren sustraiek babesten zuten lurra euria ari zuenean; sustrairik gabe, erauntsi tropikalak berekin darama lurra, eta lehengo lurralde oparora harrizko basamortu bihurtzen da. Lurra planetan gero eta basamortu gehiago dago, eta gero eta zabalagoak gainera; hots, Latinoamerikan gero eta basamortu gehiago dago, Asian gero eta basamortu gehiago dago eta Afrikan, berriz, denok dakigu Sahara basamortua urtero hedatzen ari dela, urtero bereganatzen dituela hainbat kilometro hegoalderuntz.

Sarritan entzuten ditugu gosetei buruzko hitz gordinak, Saheleko eta Etiopiako goseteak nahiz beste hainbat herrialdeetakoak ezagunak zaizkigu. Badira arrazoi bitxi samarrak ere aipatzen dituztenak, hots, zoritxarra, anabasa, inperialismoa eta abarrak. Nolanahi ere, arrazoa ez datza, anabasan, inperialismoan edo zoritxarrean, arrazoi bakarra zera da: landaretza urri eta ahula duten zonaldeetan, demografi hazkundearen ondorioz landareok errotik atera egiten direla, eta landaretza horrek, hain zuzen ere, eusten zion zoluari, landareok erakartzen zuten euria, landareok ematen zioten bizia lurraldeari..., landaretza desagertuz gero, basamortua hedatuz doa, jakina. Afrikara bazoazte, bandera bat jar dezakezue basamortuaren muga, "mugarri" hori hegoratu egin beharko duzue urtero urtero, basamortua gero eta handiagoa da eta handitze horren jatorria gizakiarengan dago, antropogenoa da.

Aipatutakoaz gainera, badira bestelako ekologi ondorioak ere, askotariko ekologi ondorioak. Denon mintzagai dugu "negutegi" efektua delakoa. Negutegi efektua zera da, gure iharduera, egiten dugun ia den-dena, arnasa hartzen dugunean, autoz gabiltzanean, janaria prestatzen dugunean, berogailua pizten dugunean, ia edozein gauza egiten dugunean, alegia, Karbonozko dioxidoa sortarazten dugula. Orduan, karbonozko dioxido hori egurats edo atmosferan metatu egiten da. Honek horrela ikusita ez dirudi kaltegarria, izan ere, guk karbonozko dioxidoa kanporatzen dugun moduan, landareek xurgatu egiten dutelako. Berriz ere desoreken arazoak ari gara. Guk sortarazi eta kanporatutako karbonozko dioxidoa landareek bildu eta iruntsi eta miatu eta asimilatzen dutena baino gehiago ez den bitartean, ez dago inolako arazorik, horixe bait da gure planetak behar duena, eta abere guztiok iraitzen dugu karbonozko dioxidoa.

Arazoa, ordea, zera da, abereek sortzen duten karbonozko dioxidoa orekatua, egonkorra bada ere, guk sortzen duguna, demografi eztanda honekin, izugarri gehitzen ari dela, eta gainera, gehitze hori mugatua bada, Lurreko biztanle gehienek bizi duten txirotasunari zor zaio, Hirugarren Munduko biztanleen, munduko %80aren txirotasunari, hain zuzen. Izan ere, jende horren errumeskeriari esker, negutegi efektua ez da hain larria, zeren jende horrek, hain txiroa izaki, gauza sinpleagoak egiten ditu eta ez du bidaiarik egiten, eta berogailurik ere apenas erabiltzen duen, eta erregai gutxi kontsumitzen du, eta aire girotua ere arrotz zaio, eta horrenbestez, karbonozko dioxido gutxiago aireatzen du. Jende honen bizitza-maila hobea balitz, gurearen erdia balitz, orain baino askoz ere karbonozko dioxido gehiago sortuko luke eta negutegi efektua oraingoa baino askoz larriagoa izango litzateke.

Lurrean dauden baliabide fosilak gero eta urriagoak dira, astiro-astiro ahitzen ari dira, eta eskerrak herrialde aurreratuetakoa biztanleek baino ez ditugula erabiltzen, zeren, herrialde azpiaurreratueta dagoen gizaki-samalda, izugarri handitzen eta eztanda batean dagoen aldra bizimodu aurreratuari jarraitzen hasiko balitz, baliabideok berehala agortuko bait lirateke. Gauza iraunkor asko dago munduan. Esate baterako, bizitzari ezinbestekoa zaio ura, eta Lurra planeta ur-kopuru jakina dago, gehitu ezina, ura ezin sor daiteke eta. Haatik, ur asko eta asko xahutzen ari da. Ekologi hondamendiak demografi eztandatik ondorioztatzen dira, zuzenean edo zeharka baina berorretatik. Eta gai honetaz luze mintza gaitzke, baina ezaguna zaigula uste dut.

Beste alde batetik, ondorio nahigabeak eta hondagerriak daude, ekologiaz at daudenak, etika edo gizakiaren ingurukoak, hots, zoriontasunari dagozkionak. Lurralde jakin batetan, eta inguruabar jakin batzuekin eta teknologia jakin batekin, gehienezko jende-kopuru jakin batek iraun dezake bizirik, txirotasun eta errumeskeria gorrian.

Demagun, esate baterako, lurralde mugatu horretan berrehun miloi gizaki bizi daitekeela urritasun gorrian, hau da, goseak hil ez daitezen elikagairik merkeenak eman diezazkiekegu hain justu, goseak egongo dira baina goseak hil gabe. Horixe da lurralde bateko gehienezko biztanle-kopurua, ez ego-

kiena ordea. Lurrealde bateko biztanle-kopururik egokiena, aldiz, per cápita-ko ongizaterik gehiena ahalbidetzen duen biztanle-kopurua dugu; hots, ekonomiaren ikuspegitik begiratuta, biztanleon errenta per cápita gorena dakarrena. Hortaz, arnasa ere nekez har daitekeen Hirugarren Munduko zonalde horietan egonak bazarete, ezein bakardade hain eragotzia dagoen herrialde horietan, goian zein behean, alderdi guztietatik jendetzaz inguraturik egoten zareneko herri horietan izan bazarete, badakizue bizi bizi daitekeela halako tokietan, horrela bizi arren ez dela inor hiltzen, dena den, bizimodurik atseginagorik ere bada, noski. Bizimodu atseginagoa, jakina, toki gehiago izatean datza, hau da, ahalduak, aberatsak, aukera dezaketenak, parke handi baten erdian bizi dira, zuhaitzez inguratutako txalet batetan, horixe aukeratzen dute, horixe bait da bizimodu ona, denok nahiko genukeena. Horrela bada, zenbat eta jende gehiagoren artean bizi, orduan eta gaizkiago sentituko gara, nahiz eta goseak ez hil. Psikologikoki ere gaizkiago izango gara. Hainbat saio egin dira arratoiekin, eta kutxa berebetean arratoi gehiago ipini ahala, arratoiok gero eta oldarkor eta erasokorrago bilakatzen dira, ikaragarri areagotzen da haien stress eta oldarkortasuna. Askoz lasaia gara toki zabalean.

Badira Lurra planetan ahalik eta jende gehien izatea, edo herrialde jakin batean nahiz kontinente zein zonalde jakin batean ahalik eta gizaki gehien izatea asmo zuzena eta erakargarria dela pentsatzen dutenak. Eta hauen galdera ez da izaten zenbat beharko genukeen izan ahalik eta ongien bizi izateko, eta ahalik eta nazio-parkerik gehien izateko, handienetan handienak, eta ahal izanez gero, behinik behin, herrialdearen %80a nazio-parkez osotua izateko; aitzitik, hauen kezka bestelakoa da, zenbat izan gintezkeen, alegia, den-dena suntsitu eta hondatu arren, eta goseak hiltzear izan arren, asko eta asko izan gaitezten, ahalik eta gehien.

Hauxe daiteke zenbait politika eta erlijioen ideial-mota, euren nazio edo erlijio nahiz politika-jokabidea, funtsean, abere metafisiko baten inguruan gorpuzten bait dute, beste hainbat abere metafisikorekin lehiatzen den abere metafisikoaren inguruan, alegia, eta horrenbestez, Lurra denon artean banatzekoa dela uste dute, eta hala izatera, gora gu eta gutarrak, esan nahi bait da, gu gehiago bagara, aberatsagoak izango garela, zati handiagoa egokituko zaigu eta.

Halako gogoeten baitan ez dira funtsezkotzat jotzen gizakiaren zorientasuna eta ongizatea. Hala pentsatzen dutenez, azken finean, gizakiaren zorientasuna bigarren maila batetan dago. Gizakiaren zorientasunaz arduratzea jokaera berekoia daiteke, jarrera zikoitz eta doilorra. Gizakiok abere nolabait doilorrak gara banan banan, gutako bakoitza arbuigarria da nolabait esateko. Zintzotasuna eta prestutasuna abere metafisiko jakin batzuri dagokie, hots, aberriari, Islam nahiz kristautasunari, edo batek daki zeri. Gure nahikunde eta interes banako, berekoi eta arbuigarriak alde batera utzi beharko genituzke abere metafisiko horien, hau da, aberrien, erlijioen, ideologien eta halakoen helburu txit miresgarri eta omengarrien mesedetan.

Pentsamolde hori, nire eritziz, filosofian alienazio hitzaz ezagutzen dugunaren adierazpena da, nork bere interesen kontzientzia-eza, alegia. Jendea ongi bizi deneko herrialdeei erreparatuz gero, funtsean, biztanleriaren hazkundea kontrolatu izan duteneko herrialdeak ikus ditzakegu. Esate baterako, Europan. Hemen dagoeneko deuseztatu da populazio-lehergailua, lehergailu horren eztanda, zorionez, ez da honez gero Europan entzuten. Horri esker europarrok urtean-urtean gero eta hobeki bizi gara, baita nekazaritzaren alderditik ere. Gure nekazaritza emeki emeki hobetuz doa eta biztanle-kopuruari eusten diogunez gero, Europa elikagaien inportatzaile izatetik esportatzaile izatera iritsi da.

Aldi berean, herrialde azpiaurreratueta alderantzizko bidea egin dute. Elikagaien esportatzaile ziren herrialdeak, Mexiko kasu, inportatzaile bilakatu dira, eta herrialde hauen aurrerabide ekonomikoak ez du ezertarako balio. Hor dago Egiptoren kasua, adibidez. Aurrerapen ekonomiko azkar eta ikusgarria aipatzekotan, Egipton gertatu dena aipatu behar da; alabaina, bertako jendea duela hogeitau urte baino txarrago bizi da, zeren eta, ekonomia dexente hazi bada ere, biztanlearen hazkundea are handiagoa izan bait da. Orohar, gauza berbera gertatzen ari da Afrika osoan eta Latinoamerikan. Uste dut gero nire mahaikideak jorratuko duela hau sakonago, ni ez naiz honetaz arituko, baina zera esan nahi dizuet, Alemania nahiz Suitzara joanez gero, berehala pentsatuko duzue: "arraioa, zein ongi bizi den hemengo jendea", eta jakina, aspaldidanik biztanle-kopuru egonkorra duten herrialdeak

dira; edo hobeto esanda, astiro astiro gutxitzen ari zaie biztanleria. Alemanian, hain zuzen ere, biztanleriak demografi hazkunde negatiboa du, banakako ongizatearen aldetik hobe oraindikan.

Azken buruan, gizarte zibilizatu eta zentzudun batek, eutsi dakiokkeen gizartea behar du izan. Hori erdiesteko bide luzea egin behar dugu oraindino. Eutsi dakiokkeen gizartea izango bada, bere populazioak ez du gehitu behar ez eta gutxitu ere, biztanle-piramide egokia behar du, lehenago aipatu dugun biztanle-kopuru egokiari dagokion biztanleria mantentzen duena, hots, bere biztanleentzako bizimodurik egokiena ahalbidetzen duena.

Baina, ongi baderitsozue, ohartxo bat egin nahiko nuke arrazionaltasunaz. Zer esan nahi du hitz horrek? Zertan datza arrazional izatea? Arrazionaltasuna ez da ahalmena, batzuk daukatena eta beste batzuk ez daukatena. Metodoa da. Iharduteko eta bizi izateko metodoa, funtsean bi oinarritan datzana: batetik, erdietsi nahi ditugun helburu eta xedeak zeintzu diren zehaztean, eta bestetik, helburu eta xedeok lortzeko bideak jartzean.

Horrela bada, gure helburua, hau da, nire eritziz, denontzat mesedegarria izan daitekeen helburu bakarra, batzuk besteko ongizatea ahalik eta gorengoa izatean badatza, edo beste modu batez esanda, nola bizi garen kontutan hartu gabe, ahalik eta jenderik gehiena izatean baino, helburua, zenbat garen axola gabe, ahalik eta ongien bizi izatean badatza, planeta honetan hobe bizi izango bagara 6.000 milioi gizakirekin, begoz 6.000 milioi, baina planeta osoan 600 milioi izanik, hobe bizi izango bagara, izan gaitezen 600 milioi, hel diezaigun ongizate gorena ahalbide dakigukeen biztanle-kopuruari. Eta ongizate gorena, esate baterako, gutako bakoitzak etxebizitza xume eta txiki baten ordeztaldea eder bat izango genukeen mundu batetan legoke, agian bai, baina horretarako gutxiago beharko genuke izan. Helburua biztanle-kopurua gutxitzean datza. Erdietsi nahi ditugun helburuei nola heldu, horretarako beharrezkoak diren baliabideak zeintzu diren jakin behar dugu zehatz-mehatz.

Herrialde aurreratuetan, nahi izanda ala nahi gabe, jendeak egin du gai honi buruzko gogoetarik, ausnartu du honetaz, eta nork bere neurriak hartu ditu. Eskuarte urriak dituen familia ohartu da, dagoeneko, diru berberaz aukera ezberdinak dituela, hots, bost ume ozta-ozta mantendu, otordu urrien eta hezkuntza aldrebesaren ondorioz burmuin ahulduak izango dituzten umeak, gerora lanbide-aukerarik izatekotan ere eskasena suertatuko zaizkien bospasei ume hezi; ala, eskuarteok ume bat edo bi hezitzeko erabili, bat edo bi izaki, bai elikadura bai hezkuntza eta abarrak askoz hobeak liritekeelarik. Halako gogoeta eta ausnarketak izan dira European, era berean Iparameriketean, eta hortik abiatu dira gaur egun daukaten bizitza-mailaraino iristeko.

Beste zenbait herrialdetan, gorabehera historikoak ere lagungarri suertatu dira. Japonian, adibidez, garai batetan gizarte erabat militarista nabarmendu zen. Demografi ez-tandaren babeslerik sutsu eta amorratuena beti izan dira erlijio eta militar buruzagiak. Militar buruzagiek beti uste izan dute herrialde baten indar eta ahalmena bere armadak zeukan soldadu-kopuruari lotzen zitzaioela, hortaz, zenbat eta soldadu gehiago hobe. Eta hau aspaldiko kontua da. Esate baterako, Mexikoko azteken artean ere burrukan hiltzen ziren soldaduentzat ziren ohorerik handienak, eta haien ondoan, erditzean hiltzen ziren emakumeentzat, horietan ziren gizarte haren heroiak, eta haien oroigarriak eraiki ziren, eta azteken teologia eta kosmologian Eguzkia, bere eguneroko ibilaldian, burrukan hildako soldaduek eta erditzean hildako emakumeek osotutako ibiltari-ildarekin batera agertu ohi zen, haiek bait ziren nagusiak, azteken estatuko heroiak. Militarren ikuspegitik begiraturaz gero, arma modernoek poderioz pentsamolde hori zaharkitua ageri zaigu ene ustez, baina lehenago, jakina, lehenago, makilaz eta ezpataz burrukatzen zenean, zenbat eta beso eta makila gehiago izan, orduan eta indar-tsuagoa zen armada.

Helburua zein den dakigunetik, hura lortzeko ahaleginak egin behar ditugu. European orain ez da honelako arazorik, europarrok, nor bere kasa ahalegintzen bait da. Arazo hau, ordea, oso larria da Hirugarren Munduko herrialdeetan, Latinoamerikan, Afrikan eta Asiako Hegoaldean, batik bat. Hortaz, helburua lortzeko baliabideak aski argiak dira. Batetik, jaiotzeak kontrolatzeko dauden mekanismo ezberdinak, bestetik, abortatzea, eta azkenik, biztanleriaren hazkunde egokia bultzatzeko jokabideak.

**F**ilosofiaren aldetik, bestalde, gizaki bakoitzak, abereek banaka, nik neuk bakarrik, edo katu jakin batek nahiz txakur jakin batek baino ez dauzkate plazerrak eta doloreak. Abere konkretuok eta banakook baino ez dauzkagu interesak. Hortaz, trapu-adabakiz irudikatzen diren entitate abstrakto horiek, adimen gutxiko edo odol beroegiko jendea hiltzeko nahiz erahiltzeko prest agertarazteko gaitasuna erakusten duten entitate abstrakto horiek gezur hutsa dira. Okerrena zera da, entitate abstrakto horiek mamuak direla, hau da, aberria nahiz Islama Cantervilleko mamua bezalakoak dira ontologiaren ikuspegitik. Cantervilleko gaztelura joan eta Cantervilleko mamuaren bila hasten bazarete, ez duzue ikusiko, ez eta ikutuko, Cantervilleko mamuak ez du jaten, Cantervilleko mamuak ez du kantatzen, Cantervilleko mamuak ez du ezer egiten, Cantervilleko mamua irudi hutsa da, harengan sinisten dutenen buruan baino ez dago; aitzitik, Cantervilleko mamuarengan sinisten duen jende asko badago, Cantervilleko mamuak eragin handia izan dezake gizartearengan, gerta bait daiteke, esate baterako, mamuzale guztiek bapatean gauez garrasika has daitezen eta horrek batek daki zernolako ondoreak izatea. Gainontzeko mamu metafisiko guzti hauek, berauegan sinisten duenik den bitartean, eragina izan dezakete, baina abere metafisiko hauen eraginaren iturburu benetako abereen gogoan datza. Aberriak min duela esaten denean, edo Islamak ez dakit zer behar duela adierazten denean, aberriak ez du minik, jakina, ez minik ez goserik, ez hazkordin ez ozpelik, ez ezer, hots, mina nahiz atsegina nerbio-sistemako alde jakin batzuren kilikadura elektrikoari zor zaizkio, burmuineko gune jakin batzutan, batez ere, sortzen dira, eta ez da aberririk ez erlijiorik, ez eta langileriarik, ez Islamik, ez da inolako zer abstraktorik, burmuina duenik, eta beraz, kilikadura elektrikorik nahiz atsegin edo minik duenik. Gizakioz gainera, goimailako ugaztunek soilik dakite zer den mina eta atsegina, txakurrak edo katuak, esaterako, hauek bai dira benetako entitateak eta ez beste haiek.

Harrigarria da, baina, politikari eta erlijioso sutsu eta amorratuak izan dira biztanleriaren kontrolaren aurkako burrukalari gartsuenak, eta horrenbestez, beraiei leporatu behar zaie gaur egun gizateriaren gehiengoa miseria gorrian bizi izanaren erantzunkizuna. Txinan, adibidez, kultur iraultzaren garaian, fanatismo izugarria nabarmendu zen. Esate baterako, eskolara joaten ziren umeak, nota onak ateraz gero, berehala bialtzen zituzten konzentrazio-guneetara, bertan goseak hiltzeko zorian bizi izaten zirelarik. Txinan halako erabateko gorroto bat suertatu zen. Atzerriko hizkuntzaren batez mintzatzen jakitea aski zen zigorrik gogor eta latzenak jasan behar izateko. Gauzak horrela, amorrubiziko garai hartan, Mao Tse Tung zenari otu zitzaion demografi eztanda kapitalismoaren ideologo zitalkeria zela, kontu hutsa, alegia, zeren, sasoi hartan berak aldarrikatzen zuen marxismoarentzat bitxia eta arrotza iruditzen bait zitzaion arazo hori, izan ere, ume batek esku bi gehiago bait zekartzan mundura, eta esku bi horiek Alderdi Komunistaren mesederako ziren, beste hainbat umerentzako janaria lortzeko tresnak ziren, eta beraz, arazo hori gezur hutsa zen.

Guzti horren ondorioz, garai hartan, Txinan demografi hazkunde erabat hondagarria izan zen, eta horrenbestez, milioika gizaki goseak hiltzen hasi ziren. Zorionez, garai hura bukatu zen eta gerora Txinan, hainbat jokabide oker izan badira ere, demografiaren arazoari, behinik behin, aurre egitea erabaki dute, eta duela hamabost urtetik hona, demografiaren arazoari dagokionez, Txina ausartasunez jokatzeko ari dela esan genezake.

Latinoamerikan, ordea, ez da halakorik gertatu. Eta gauza harrigarri eta bitxiak aurki ditzakegu bertako egoerari erreparatuz gero, abortatzearen kasua, esate baterako. Latinoamerikako herrialdeetan, eleiza katolikoaren poderioz, abortatzea debekatuta dago. Munduan ez da halako debekurik Espainian eta Irlandan izan ezik, Rumanian ere hala zen Ceaucescuren garaian, baina, hura kendu zutenean, hura kendu eta astebetegarrenean, abortatzea legeztatu egin zen. Argi dago eleiza katolikoaren indarra eta eragina. Polonian, adibidez, diktadura komunistaren aurkako oldarraren ondorioz, eleiza katolikoak botere izugarria bereganatu du, eta dagoeneko, gotzai poloniarrek presio itzela egiten ari dira Poloniako legeak aldatu eta abortatzea debekatua izan dadin.

Ceaucescuk arrazoi nagusi batetan oinarrituz debekatu zuen Rumanian abortatzea, hots, bere ustez, abortatzeko baimena izanez gero, emakumeek abortatu egingo zuten, eta seme-alaba gutxiago izatera, Rumaniako armadak ere soldadu gutxiago izango zituen. Horixe zen arrazoi bakarra, izan ere, Ceaucescu atea bait zen, erabaki haren iturburu ez ziren erlijio-arrazoiak, noski. Atzo bertan

Madrilgo egunkarietan agertu zen musulman batek, egyptiar batek hain zuzen, bere emaztea hil zuela honek abortatu nahi zuelako. Honelako erlijiozale amorratu baten ustetan, sufritzera baino ez gara munduratzen, mundua bera malko-lekua bait da. Jainkoak bialtzen ditu umeak eta nahitaez jaio behar dira. Halaxe uste du politikari amorratuak ere, Jainkoagatik ez, baina, aberriarengatik sufritzera munduratzen garela, alegia, eta horren alde edozer emateko gertu izan behar dugula.

Gehiegi luzatu naizela iruditzen zait. Demografi eztagandaren ondorioz sortutako arazoei buruzko azalpen orokor eta azkar bat eskaini dudalakoan nago, ondorengo solasaldian ere izango dugu gai honetaz sakonago mintzatzeko betarik, hala espero dut. Eskerrik asko zuen arretarengatik.

# **MUNDUKO BIZTANLERIAREN EGOERA: NORABIDEAK ETA POLITIKAK**

Tomás Jiménez Araya

## Tomás Jiménez Araya

Naziotasuna: Espainiarra

Lanbidea: Ekonomilaria

Ikasketak: Politika eta ekonomi zientzietan lizentziatua

(Bartzelonako Unibertsitatea)

Historia eta Ekonomia graduatuondoko ikastaroak

(St. Antony's College, Oxford-eko Unibertsitatea)

Lanbide iharduera: Nazio batuen biztanleria fondoko (FNUAP) kontsultaria

FNUAP delakoaren Ordezkeri Biztanleriari buruzko Nazioarteko Konferentzian (Mexico, 1984)

- Espainiako Zientzi Batzordeko kidea Biztanleriari eta Hirien Etorkizunari buruzko Nazioarteko Konferentzian (Bartzelona, 1986)

Argitarapenak: Biztanleriari eta ekonomi garapenari buruzko artikulak eta kolaborazioak (Ekonomia, Ogasuna, Ikerkuntza eta Zientzia Bildumak, EL PAIS).

## BOST MILA MILIOITAKO MUNDUA



zken hamarkadetan demografi aldaketa nabarmenak gertatu izan dira, inoiz izan diren handienak, alegia, eta une honetan bost mila milioi biztanle garelarik, jarrera

ezberdinak nabari daitezke egoera honen aurrean.

Kondairaren aldetik, bederen, gizakiaren garaitzak har daiteke demografi jomuga hau. Oraintsuko garaitza alegia, mende honen bigarren erdikoa, batez ere. Izan ere, kondaira osoan zehar, munduko biztanle-kopurua ezer gutxi aldatu da, bizirauteko oreka ahul baten mugetan, hilkortasun handiaz eta jaiotze askorekin.

Nolanahi ere, bost mila milioi biztanleren mugarría igarota duen egungo mundu hau, beste hainbat arlotan bezalaxe, demografiari dagokionean ere bi zati nabarmenetan bereizirik ageri zaigu. Hazkunde itzel honexek, bestalde, hainbat kezka sortarazi ditu etorkizunari begira.

Orohar, bitasun demografiko nabaria antzeman daiteke egungo munduan. Munduko biztanleriaren laurden batek, herrialde aurreratuenek (Europa, Iparramerika, SESB, Japonia, Australia eta Zelanda Berriak) osotutakoak, hain zuzen ere, berezko hazkunde txikia erakusten du, %0,5koa gutxi gorabehera. Gainontzeko hiru laurdenak, osteraz, hau da, Asia, Afrika eta Latinoamerikako herrialde atzeratuenetan, jaiotze-tasa eta umeen hilkortasuna zein baino zein handiagoak direlarik, demografi hazkundera lau bider handiagoa da, %2koa alegia. Eta gehien hazten diren herrialdeak Afrikan, %3ko hazkunderaz, eta Mendebaldeko Asian, %2,7az, daude.

Gizateriak hemeretzi mende baino gehiago behar izan ditu lehenengo mila milioi biztanle izan arte. Bi mila milioi izateko askoz ere denbora gutxiago igarota zen, mende bat baino pixkat gehiago, alegia, biztanle-kopuru hori 1920ko hamarkadan erdietsi zelarik. Hazkunde honen portzentaiarik handiena Europan eta Iparramerikan izan zen. Garai hartan, hilkortasun-tasak apurka apurka baina etengabe jaisten joan ziren elikadura nabarmen hobetu zelako (nekazaritzan iraultza tekniko suertatu eta elikagaien eskaintza dexente gehitu zen), hirietan garbitasuna eta saneamendurako neurriak hartu zirelako eta izurriteen aurrikuspenean (txertapenean) areagotu zelako.

Horrela bada, jaiotzean bizitzeko itxaropen handiagoak izatera, eta industrializazioa, hirigintza nahiz sekularizazioaren ondorioz, jaiotze-tasak behera egiten hasi ziren arian-arian. Fase honen amaieran, hogeitamarreko hamarkadan hain zuzen, Europako herrialde industrialdunetan gertatua zen demografi aldaketa, eta horrenbestez, hilkortasun nahiz jaiotze-tasa nahiko txikiez eta neurritzko hazkunde batez ageri zaizkigu. Aldaketa honetan, bestalde, garrantzizko gertaera bat aipatu behar, hots, berezko biztanle-hazkunde horren zati nabarmen baten "desbideraketa", hau da, Ameriketara eta Australiara, batez ere, erbesteratu zen jendetza.

Ondorengo demografi mugarríak agudo gauditu dira. Bigarren mundu gerratearen ondoren, gizateria deblauki hazi zen, izugarritzko hazkundera suertatu zen jokabide demografikoetan nabari ziren aldaketa sakon eta berrien ondorioz (hilkortasunaren urritzea, jaiotze-tasaren gehitzea). Hirurogeitamarreko hamarkadaren erdian lau mila milioitara izatera iritsi ginen, berrogeitamar urteren buruan gizaki-kopurua bikoiztuz. Azkenengo hamarkadan, halaber, bost mila milioitara iritsi gara. Martxa honetan, hamabi urteren buruan munduan mila milioi gizaki gehiago dago. XX. mendean zehar gizaki-kopurua hirukoiztu egingo da, bi mila milioi izatetik sei mila milioi izatera. Historiaren aldetik, bada aldaketa bat, ordea, hots, hazkunde izugarri hau ez dela herrialde aurreratuenetan izan, Hirugarren Munduko herrialdeetan baizik, hau da, hilkortasunari aurre egiteko aurreneurriek zor zaiola.

Munduko biztanleriaren ia erdiak (2.300 milioi biztanlek) hau da, herrialde industrialduetako biztanleriak eta Txinakoak osotutako biztanle-multzoak bere demografi iragaketa burutu du edo burutzear da, hots, hilkortasun eta jaiotze-tasa txikiak ditu, orekara hurbiltzen direnak (Europako zenbait herrialdek hazkunde hutsa edo negatiboa dute jadanik).

Beste erdia, aitzitik, Asia, Afrika eta Latinoamerikako herrialde azpiaurreratuek osotzen duten multzoak, gero eta hilkortasun-tasa txikiagoak ditu, baina, jaiotze-tasak oraindik handiak direnez gero, demografi arazo larriak jasaten ari da, eta lehenago ere habitat ahulak zirenez, halako kiribil batetan sartuak dira, biztanleria asko hazten ari den bitartean, ekonomia gainbehera doa, ekologi

hondamendia nabari da eta politika arloan ere ezegonkortasuna da nagusi, faktore hauen arteko elkarlotura gero eta handiagoa delarik. Herrialde hauetako askok Afrikako eta Asia Hegoekialdeko hainbatek, batez ere, honez gero badaramatzate lau edo bost hamarkada biztanleria azkar hazten ari zaielarik eta jaiotze-tasetan beheranzko joerarik nabaritzen ez delarik. Ekonomi garapenik gabe, eta beren bizitza-maila hobetzeko modurik somatu ezinik, herrialde hauek gero eta urrunago ikusten dute beren demografi iragaketa. Egungo egoera aintzat harturik, hau da, ekonomi atzerakada eta migrazioarekiko kontrol zorrotza kontutan izanik, erbesteratzeko aukera ere gero eta urriagoa da, eta Europako iragaketa suertatu zenean ez bezala, ezin daitezke erbesteratzeaz baliatu jasaten ari diren presio demografikoa arintzeko.

Bitartean, munduko beste “erdian”, Europan batik bat, “bigarren” demografi iragaketaz mintzaten hasiak gara. Industria-ondoko gizartearen bizimoduari datxezkion faktore bereziek, eta horien artean emakumeak etxetik kanpo gero eta gehiago lan egitea eta antisorgailu eraginkorren erabilera masiboa aipatu behar, faktore horiek bada, erabateko aldaketak ekarri dituzte umeak izatearekiko gizalegeei eta familiaren eratze eta osakerari dagokien guztian. Aldaketa honen ezaugarri nagusia zera da, gero eta seme-alaba gutxiago izan ohi direla (kalitatea hobetsi da kopuruaren kaltetan), eta jaiotze-tasak biztanle-kopuruari eusteko (emakume bakiotzeko 2,1 seme-alaba, eta hilkortasun eta jaiotze-tasa berdintsuak) mailaz behera erori direla jadanik.

Europako biztanleriak, kopuruaren aldetik, demografi hazkunde handia duten beste herrialde batzuekiko behera egin duenetik, zenbaitek “gainbehera edo zemaia” dakusate etorkizunean. Uste hori, ordea, gizarte-aberastasunari eta nazioarteko hartuemanen buruzko pentsamolde zaharkitu bat-tetan oinarritzen da eta ez dagokio gaur egungo egoerari ez eta etorkizunerako aurrerakidetasunari ere.

Lehenengo eta behin, Europako aldaketa demografikoak (jaiotze-tasen beherakada, biztanleriaren nolabaiteko zahartzea), batetik, jaiotza kontuetan norberak aukeratzeko askatasun handiagoa izateari zor zaizkio, eta bestetik, hilkortasun-faktoreekiko gizarte kontrolaren areagotzeari, beronen ondorioz bizitza-mailaren hoberenetze orokorra suertatu bait da. Bigarrenik, herrialde baten benetako aberastasuna, funtsean, bere giza-baliabideei lotzen zaie eta ez bere biztanle-kopuruari edo berorien adin-egiturari. Alde horretatik, aipatutako aldaketak egungo gizarte demokratiko aurreratuen konplexutasun edo zailtasun gero eta nabarmenagoari lotzen zaizkie eta ez dira gainbeherako ikurtzat hartu behar gizarte heldu baten seinaletzat baizik. Hortaz, Europako demografi aldaketei ikaratu gabe aurpegi eman behar zaie egoera berri hau bideratu eta egokitzeko jokabideei jarraituz.

Dena den, demografi aldaketei erantzuterakoan aginkeria agertzeko arriskua ere bada. Jaiotzeen aldeko derrigorrezko politikak baztertzekoak izanik ere, aginkeriazko arrisku hori aurkako politikatik letorke, hau da, demografi desoreken poderioz, migrazioen bidez inguruko herrialdeetatik Europaratzen diren “atzerriko arrisku” delakoari aurre egiteko politikatik.

Aginkeriazko erantzun honen lehen seinaleak antzeman daitezke jadanik Europako zenbait herrialdetan agertu izan diren arrazakeria eta xenofobia-kutsuko hainbat ekintza eta jarreretan. Orain arte, herrialde gehinen erantzun politikoa nahasgarri samarra izan da. Alde batetik, gaitzespen moralak, hitzekoa, eta bestetik, murrizketa neurriak gero eta zorrotzagoak, Europako Komunitatetik kanpoko etorle irregularren kasuan zuzeneko kanporatzea ere bai, eta inmigrazioa eragozteko neurriak. Argi dago, egoera horretan dagoen gizaki-kopuru handia (Komunitatez kanpoko 12 milioi langile baino gehiago eta beraz 4 milioiren bat legez kanpo daudenak) eta egoera horren ondorio sozial izugarriak aintzat harturik, adierazpen eta aldarrikapenak edo abagadunezko neurriak ez ezik, bestelakoak ere beharrezkoak direla. Aginkeria benetan baztertu nahi bada, arazoari dauzkan alderdi bietatik aurre egin behar zaio, hots, barneko alderditik eta kanpokotik, eta epe ertainerako nahiz luzerako konponbide iraunkorrak aurkitu. Alde batetik, atzerriko biztanleak erabat hiritartzeko politika bateratuak behar dira Komunitate osoan. Bestetik, eta aurrekoaren osagarri gisa, Komunitateak osoko lankidetzarako politika oparo eta eskuzabala garatu beharko du bere inguruko herrialdeekin, Afrikako Iparraldekoekin batez ere, politika horren bitartez migrazioen iturburu diren desoreka ekonomiko eta sozial itzelak murrizteko, eta ondorioz, migrazioen erregulazio positibo bat ezartzeko, denontzat onuragarria suerta daitekeen erregulazioa alegia.

# D

emografiari dagokionez horren argi erdibiturik dagoen mundu honetan zati bat biziki hazten ari den bitartean, besteak egonkortasunerako joera erakusten du, eta hala ere, bi zatiotan antzeman daitezke aldaketa sakonak biztanleriaren tamaini erlatibo, bere leku-banaketari eta adin-egituren osakerari dagokienez.

Mediterraneo itsasertzeko alde bietara begiratuz gero, argi eta garbi ikus dezakegu munduan diren demografi desoreken adibide gordina, bata bestearengandik oso hurbil egon arren, munduko desorekarik nabarmenena ageri bait da alde bi horien artean. Izan ere, Europa eta Afrikako biztanleriaren artean nabari bait dira diferentziarik handienak bai hazkunde tasetan, bai adinkako osakeran, bai baserri eta hiri-banaketan, eta bai umeen hilkortasun nahiz jaiotze-tasetan, hots, jaio ondorengo bizitza-itxaropenari dagokionean. Europar arrunt bat (gizona zein emakumea) batazbeste 74 urtez bizi badaiteke, afrikar bat 52 urtetara iristen da. Gaur egungo joerek badiraute, bestalde, 2.005. urterako, hau da, hamabost urte barru, Afrikako biztanleria (1.036 milioi) Europakoa (521 milioi) baino bi bider handiagoa izango da.

Halaber, belaunaldien arteko -gazteak, helduak eta zaharrak- loturazko harremanak edota biztanleria aktiboaren eta ez aktiboaren artekoak nahiz baserrikoaren eta hirikoaren artekoak ere gero eta azkarrago aldatzen ari dira, eta eragin nabarmena dute hezkuntz sisteman, gizarte zerbitzuetan eta lan merkatuan. Dirudienez, 1990etik 2000ra bitartean herrialde industrialdutako biztanleria aktiboa (15-64 urte) 30 milioi pertsonaz gehituko da. Epe horretantxe, halaber, garapen-bidean dauden herrialdeetan 350 milioi biztanle aktibo gehiago izango dira. Horrez gainera, dagoeneko mundua hiri-planeta da. 2000. urtean munduko biztanleetako erdiak hirietan biziko dira, eta gehienak hiritar izugarrietan bizi ere. Mundu osora hedatutako ekonomi hazkunde iraunkorra ez ezik, migrazioarekiko eta merkataritzarekiko kontrolen arintzea ere erdietsi beharko genituzke egungo langabezia eta gerorako ere aurreratu daitekeena murrizteko, baina gaur egun oso zaila egiten zaigu halakorik somatzea ere. Hala ere, mundu osoan barrena ageri zaiguna zera da, demografi diferentziak (biztanle-kopurua) itzelak izan arren, askoz ere latzagoak direla desberdintasun kualitatiboak (giza-kapitala), hau da, hezkuntza arloan, osasun gaitetan, gaitasun teknologikoan eta biztanleria-motabion baliabide nahiz aukeren artean agertzen diren ezberdintasunak, alegia.

Mila milioi gizakitik gora, hots, gizateriaren bostenak, ez dauka edateko urik, behar bezalako aterperik, elikadura egokirik, oinarritzko irakaskuntzarik edo funtsezko osasun laguntzarik. 1980ko hamarkadan zehar, Latinoamerikako toki gehienetako diru-sarrerak ia %10ean jaitsi dira, eta Sahara hegoaldeko Afrikakoak %20an, alabaina, aldi berean, demografi hazkundearen indize berberak edo handiagoak agertzen dira, herrialde askoren ekonomi atzerakada larria areagotuz.

“Ingurugiroaren ondoriozko” hamar milioi errefuxiatu baino gehiagok alde egin dute beren bizitokietatik, hango lur eihartuek, giza-gorabeherek nahiz naturak berak bultzatuta. Asian, ordea, biztanle gehien daukaten herrialde batzutan, munduko biztanleriaren erdia dagokien herrialdeetan, alegia, ekonomiaren hazkunde iraunkorra erdietsi dute eta, aldi berean, demografi hazkundea moteldu egin da, eta horrenbestez, nolabaiteko aurrerapena erdietsi dute. Hala eta guztiz ere, munduko txirotasunik ikaragarriena Asiako hegoaldean erroturik dago. Urtero hiltzen diren umeetako erdiak eta gutxi jandakoen nahiz eskolatu gabekoen erdiak hiru herrialdeei dagozkie, Bangladesh, India eta Pakistani hain zuzen. Eskasia, ordea, herrialde txiroetatik kanpo ere aurki daiteke. Herrialde industrializatuaren beraien ere gero eta alde nabarmenagoa dago daukatenean eta ez daukatenean artean. Eta horrela, azken hamarkadan etengabeko ekonomi hazkundea izan den arren, bai Britainia Handian eta bai Estatu Batuetan bikoiztu egin da etxerik gabeko familia-kopurua, eta gainera, azken herrialde horretan hiru milioi haur txiro gehiago dago.

Egungo demografiaren abiabidearen arabera soma daitekeena aintzat harturik, munduko biztanleriaren hazkundeak iraun egingo du, eta bi mila milioika hazi ere, belaunaldi batetan zehar, behinik behin. Mundua demografi bidarte batetan dago. Eta hartu beharreko bidea ez da zozketaz erabaki behar ez eta muga estu eta aldaezinei jarraituz ere. Lehen bidetik abiatuz gero, demografiaren hazkundea apurka apurka motelduz, biztanle-kopuruaren eta baliabideen arteko desoreka konpontzera eta euts dakiokkeen garapenerako estrategiei ekiteko gaitasun handiagoa izatera hel daiteke, biztanleria egonkor bat antzematera iritsi arte. Beste bidetik abiatuta, ordea, azken hamarkadetan izandako

joerei inertziaz jarraituz, ekonomi desorekak gero eta larriagoak izango ziren, demografi presioak eta ingurugiro arloko arazoak bezalaxe, demografiaren egonkortasuna lortzea gero eta zailagoa suertatuko zelarik.

Egungo urteroko hazkundeak balirau, munduko gizaki-kopurua 40 urtetan bikoiztu egingo litzateke, 2030. urtean 10.000 milioi gizaki izango ginatekeelarik. Dena den, munduko biztanle-kopuruaz ari garenean, bai gaurko kopurua eta bai etorkizuneko giza-erabakien menpe dago eta ez dagokie natur inguruabarrei.

Historian zehar lehen aldiz, munduak berak erabaki dezake bere etorkizuna demografiari dago-kionean. Eritasuna eta hilkortasuna hein handi batetan aurrizteko eta jaiotzeak ere neurtzeko ezagupen nahiz baliabide egokiak dauzka, denon beharriaz erantzuteko eta oinarritzko giza-eskubideak bermatzeko moduan, eta natur baliabideen erabilera zentzuzkoa eta ekologikoki egokia segurtatzeko.

Jaiotzei buruzko Mundu-Inkestaren datuek erakusten dutenez, famili plangintzarako eskakizun asko gelditzen dira oraindik ere erantzunik gabe. Garapen bidean dauden herrialdeetako 300 milioi bikoteek ez dute seme-alaba gehiago izan nahi, baina ez dute antisorgailuak eskuratzeko aukerarik. Bikote horiek aukera hau balute, garapen bidean dauden herrialdeon demografiaren hazkunde-tasa %30ean gutxituko litzatekeela uste da, eta horrenbestez, 1990etik 2025era bitartean 1.300 milioi gizaki gutxiago munduratuko litzateke.

Era berean, oraindik ere hainbat herrialdetan nabari diren umeen hilkortasun-tasa handiak (1000eko 150etik gorakoak) arras gutxitzera, jaiotzeen murrizketa iraukorraren mesedegarri izango litzateke, gurasoek beren seme-alabek bizirauteko itxaropen handiagoak izango lituzketelako. Horrela bada, bai norbanakoei eta bai familiei nahi gabeko jaiotzeak eragozteko eta, aldi berean, oinarritzko osasun laguntzako neurrien bidez, beren seme-alaben hilkortasuna ekiditeko aukera ematean dago koska. 1989. urtean bost urte baino gutxiago zeukaten 14 milioi ume hil ziren janari-ekasaren zioz edo immunizazioaren nahiz kostu gutxiko oinarritzko arretazko beste zenbait neurrien bidez erraz eragotzi daitezkeen zoldura arrunten poderioz. Aipatutako ekintza biak batera gauzatuz gero, hau da, bai jaiotzeen eta bai umeen hilkortasuna murriztuz, demografi hazkundeak gutxitzeko ondorio sinergiko are handiagoa erdietsiko litzateke.

Argi dago, halaber, biztanleriaren hazkundeak gutxituta, besterik gabe, ez direla nazioarteko desoreka itzelak konponduko; baina, hau horrela izanik ere, garrantzizko hainbat eragozpen arintzeko eta haiek gainditzeko erabat mesedegarria gertatuko litzateke dudarik gabe. Mundu osoko biztanleria aintzat harturik, askotariko nazio, toki nahiz banakako egoera arras ezberdinak aurki ditzakegu, jakina. Multzo ñabar honen bilakaera, berriz, era askotako gizarte-inguruabarretatik eta norbanakoen jokaera berezietatik ondorioztatzen diren demografi pauten menpean dago. Alabaina, gero eta elkarlotuagoa den mundu honetan, biztanleriaren dinamika ezberdinen eta natur baliabideak eskuratzeko nahiz erabiltzeko baldintzen ondorioak gero eta nabarmenagoak dira planeta osoan. Hortaz, demografiaren nahiz ingurunearen zama gero eta handiagoei aurre egin eta jarraitu beharreko demografi bidea aukeratzeko erantzunkizuna ezin zatitu daiteke nazio bakoitzaren inguruabarren arabera, aitzitik, aukeratzeko gaitasun handiagoa dutenen eta horrelako aukerarik apenas dutenen artean hitzartutako nazioarteko ekintza baten ondorio izan beharko luke.

Nazio Batuetako Biztanleria Atalak egindako zenbatespenaren arabera, arestian gehitzeko berrikusi behar izan dena, 1985etik 1990era bitartean, munduko biztanleria batazbeste 87 milioitan gehitu da urtero. Mende amaierarako, guztizko biztanleria beste 1.000 milioi biztanlez gehituko da, hurrengo hamarkadan zehar, urtero batazbeste 90 milioitan gehituko delarik, harik eta 2000. urtean 6.251 milioi biztanle izan arte. Azken berrikuspena informazioaren hobekuntzari zor zaio, batez ere, eta munduko biztanleriaren hazkundeari buruzko aurrizkuspak apenas aldatzen dituen arren, espero zitezkeena baino moteltze txikiagoa erakusten du biztanlerik gehien dauzkaten bi herrialdeetan, Txinan eta Indian, alegia.

Nazio Batuen aurrizkuspenean arabera, 2000 urtetik aurrera aurrerapen urrireneko herrialdeen hazkundeak motelduz joango da munduko batazbesteko tasarekin (%1,7) parekatu arte, eta aldi berean, herrialde aurreratuen hazkundeak ere pixkat gutxituko da, %0,4eraino gutxi gorabehera. Gutxitze hau

aintzat harturik ere, metatze-prozesua dela medio, ia ziurtzat jo dezakegu 1990etik 2025era bitartean munduko biztanleria 3.000 milioi biztanlez gehituko dela, eta horietako gehienak Hirugarren Munduko hiri-multzo handietan biziko direla, gero eta ahulagoa den habitat edo biziguaren egoera are larriagotuz.

Munduko geografi dualismo hau, bestalde, baliabideen eskuratze eta erabileran nabari den desberdintasun izugarrian isladatzen da, eta hain zuzen ere, lehen mailako energiaren kontsumoan. Nazio Batuetako Ingurugiro eta Garapen Batzordeak azaldutako (Brundtland Txostena) datuek erakusten dutenez, munduko biztanleriaren laurdenak, industrializatuenak diren herrialdeetako biztanleen osotutako laurdenak alegia, lehen mailako energia erabilgarriaren hiru laurdenak kontsumitzen ditu. Energiaren per capita kontsumoa (urteko kilovatiotan neurtua) munduko biztanleriaren gehiengo nabarmena biltzen duten gainontzeko herrialdeetan baino zazpi bider handiagoa da industrializatutako herrialdeetan.

Gauzak honela, biztanleriaren, baliabideen eta ingurugiroaren arteko elkarlotura dinamikoak aintzat hartzen duen edozein aurrikuspenak, egungo garapen-bideak erabat aldatu ezik, eutsi-ezinezko egoerak erakutsiko dizkigu. Eta derrigorrezko aldaketa horiek demografiari ez ezik, produktioari eta kontsumoari ere badagozkio, hau da, bizimodua bera aldatu beharko litzateke.

**G**arapen egingarria lortzeko estrategiek aldaketak exijituko dituzte, hala herrialde garatuetan, nola garapen-bidean dauden herrialdeetan. Brundtland Batzordearen aurrikuspenen arabera, herrialde garatuetan aldaketa teknologikoak sartu beharko dira energia gutxiago xahutu eta kutsadura gutxiago sortaraziko duten produkzio-bide berriak lortzeko eta gaur egungo energiaren per capita kontsumoa %50ean murrizteko. Garapen-bidean dauden herrialdeetan, berriz, demografiaren hazkundea gutxitu ahala, ekonomiaren hazkundearen eta teknologia eraginkorren ondorioz, energiaren per capita kontsumoa %30 batean gutxi gorabehera gehitu beharko litzateke.

Nolanahi ere, aipatutako ezer gutxi erdietsiko da inbertsioen birbanaketa egin ezik eta arazo horiei aurre egiteko borondate politikorik ez badago.

Horretarako bada, funtsezkoa da baliabideen egokiera edo asignazioa aldatzea, hots, baliabideok egokitzerakoan, biztanle-multzo behartsuenera aldeko jokabideari jarraitzea. Edo beste modu batez esanda, zuhurtzia aberatsentzat eta produkzio gehiago eta kontsumo gehiago behartsuentzat.

Munduko demografi nahiz ekonomi desoreka itzelak gogoan izanik, garapen egingarria lortzeko estrategiek produkzio faktore guztien nazioarteko mugikortasun handiagoa beharrezkoa dela kontutan hartu beharko dute. Hots, orobateko ekonomia batetan gaude, baina munduko merkatuak asko hobe daitezke. Izan ere, kapitala erabat mugikorra den bitartean, babes-mugak larriki eragozten dituzte merkatalgaien, teknologien eta zerbitzuen merkatal bideak, eta migrazioarekiko kontrol gero eta zorrotzagoek lan-indarra ia mugiezinik izatea ekarri dute.

Larogei urteen hamarkadaren amaieran, garapen bidean zeuden herrialdeek %17ko partaidetza zuten munduko PIB delakoan, aldi berean, munduko biztate guztien %75a herrialde horietan bizi zen. Iparralde eta Hegoaldearen arteko desberdintasun itzel hauek bi norabide dituen prozesu batetatik ondorioztatzen dira. Alde batetik, gero eta alde nabarmenagoa dago per capita sarrerei dagokienez. Bestetik, mundu industrializatuaren eta garapen-bidean dagoen munduaren arteko aldea gero eta txikiagoa da umeen hilkortasun indizeei eta bizitzeko itxaropenari dagokienez. Horrela bada, Hirugarren Munduko biztanleriaren zati handi batek bizitza luzeagoa eta hezkuntza hobea ditu, baina ez du bere gaitasuna erabat garatzeko aukerarik.

Epe laburrera, 1990 urteen hamarkadan zehar, alegia, inoiz izan den belaunaldirik ugariena munduratuko da, ia 1.500 milioi gizaki, eta hauetako gehienak, %90 gutxi gorabehera, garapen-bi-

dean dauden herrialdeetan jaioko da. 2000. urterako, beraz, herrialde horietan hogeitabost urtez beherako 2.600 gizaki izango dira, hau da, urte horretan munduan izango bide diren biztanle guztien %40a.

Garapen-bidean dagoen munduko belaunaldi berriek beren bizimodua hobetzen ez badute, hau da, beroien herrialdeen merkataritza, teknologia eta finantzak garatu eta hobetuz, nazioarteko merkaturtan errazago eta herrialde aurreratuenera parekidetasunez esku hartu ezik, emigratzeko joera izugarri areagotuko da horrela ekonomi aukera hobeak erdiesteko. Larogaitamar urteen ikuspegitik, egoera honek, nazioarteko ekintza bateratu eta hitzartu baten bidez, garapen-aukeren banaketa orokorra egokitzera behartzen gaitu. Lehentasuna duten ekintzen artean hauek aipa daitezke: herrialde aberatsen merkatal babespena eta nekazariarentzako diru-laguntzak hein handi batean murriztea, hartzekodunen eta zordunen artean zorraren arazoari denok batera aurre egiteko konponbidea aurkitzea, eta giza-baliabideak garatu eta erabateko txirotasuna deuseztatzea zuzendutako nazioarteko laguntza erabat areagotzea.

XXI. mendeko Biztanleria eta Garapenari buruzko Nazioarteko Foroa (Amsterdam 1.989ko azaroaren 6tik 9ra), Nazio Batuetako Biztanleria Fondoak (FNUAP) delakoak bultzatu zuena, oraintsuko iragana balioztatu eta hamarkada honetarako nahiz datorren mendearen hasierarako funtsezko ekinbidea mugatzeko biltoki egokia suertatu da.

Horretarako, ezinbestekoa da demografi helburuak garapen egingarria lortzeko estrategietan sartzea. Estrategia horien oinarrian emakumeari, bere kabuz aukeratzeko ahalmena areagotzeko, hezkuntza eta lan arloetan, batez ere, zor zaion gizarte-begirunea bultzatzeko ahalegina dago. Hortaz, gobernu guztiei eskatu zaie bikote guztiei oinarritzko giza-eskubide bat berma diezaieten, hots, norik berak zenbat seme-alaba eta noiz izan nahi dituen aukeratzeko duen eskubidea, horretarako beharrezkoak diren argibideak eta baliabideak lortzeko erraztasunak emanez.

2000. urterako erdietsi beharreko gutxienezko helburuen artean hurrengook agertzen dira:

- Umeen hilkortasun tasa bizirik jaiotako 1.000 umetatik 50era edo gutxigora jaistea herrialde guztietan eta biztanle-multzoz guztientzat. Gaur egun, 2.000 milioi biztanle baino gehiago daukan herrialde-multzoz batetan umeen hilkortasun tasa handia edo oso handia dago, milako 100 eta 300 bitartekoa.
- Amen hilkortasun tasa erdira murriztea, era guztietakoa, legez kanpoko abortatzearen ondoriozkoa ere bai, eta batez ere, 100.000 jaiotzetatik horrelako 100 heriotze baino gehiago gertatu ohi diren herrialdeetan. Urtero milioi erdi bat emakume hiltzen omen da haurdunaldiari eta erditzeari lotutako arazoengatik, seme-alaba gehiegi eta tarte laburrietan dituzten emakumeak, batik bat. Afrikan, hain zuzen ere, 21 emakumetako bat bere seme-alabak erditzearekin zerikusirik duen arrazoiren bat dela medio hiltzen da. European, ordea, proportzio horrek 2.000tatik bat jotzen du.
- Garapen-bidean dauden herrialdeetan antisorgailuen erabilera areagotzea, harik eta, familiaren planifikaziorako erantzunik gabe gelditzen direnen eskaria aintzat harturik, er-nalgarriak diren emakumeen %50ak, gutxienez, haietaz baliatzeko aukera izan arte. Hortaz, antisorgailuak erabiltzen dituzten bikoteak, gaur egun, 326 milioi badira, 2000. urtean 535 milioi izan beharko lukete.
- Aurreko hiru helburuok lortuz gero, askoz errazagoa gertatuko litzateke garapen txikienero herrialdeen guztizko jaiotzeak gutxitzea Nazio Batuek populazioari buruz egindako proiektioetako erdi-mailakoekin bateragarriak izan arte.
- Hilkortasun tasa handiak dituzten herrialdeetako gizon eta emakumezkoen jaiotzean dagoen batazbesteko biziraupena 62 urtetako edo gehiagoko mailaraino igotzea.

# E

z da erraza helburuoi legozkiekeen kostuak zehazten. Populazioari dagozkion osoko egitaruetan elkarloturik dauden iharduera saldo bat sartzen bait da, sanitatearekin, hezkuntzarekin nahiz sozioekonomiarekin zerikusirik duten iharduerak, alegia, eta horien ondoan, informazio, komunikazio eta ebaluazio-zerbitzu lotuen erabilera. Gaur egun, garapen-bidean dauden herrialdeetako populazioari lotutako ihardueretara zuzendutako nazio nahiz nazioarteko gastu guztiak urteko 4.500 milioi dolar jotzen dutela kalkulatu da. Ezarritako gutxienezko helburuak lortuko badira, ordea, diru-kopuru hori bikoiztu egin behar da, 2000. urterako urteko 9.000 milioi dolarretara iritsi arte. Garrantzizko gehitzea, jakina, baina errealitateari zor zaiona. Alderatzeko erreferentzia bat azaltzearen, diru-kopuru hori munduan egunero armetan xahutzen denaren parean dago, edo zehazkiago adierazteko, diru-kopuru horrek munduko herrialderik txiroenak urtero armetan gastatzen dutenaren %5a jotzen du.

Europako datuetara joz gero, diru-kopuru hori Europako Elkartearen Nekazaritzarako Politika Amankomunaren bidez urtero ematen diren nekazal laguntzen bostena litzateke, hots, ekonomi xahupenaren ikurretako bat bihurtu den 20.000 dolarretako laguntzaren bostena.


Persiar Golkoko krisialdia amaitutakoan, nazioarteko bakealdia sendotzen bada, barealdi hau oso mesedegarria suerta liteke, funtsean antzuak diren ihardueretan xahutzen diren baliabideak populazio arloko egitarau onuragarrietara zuzendurik, egungo arazo larrietako zenbait konpondu eta etorkizunerako konponbideak urratuz joateko.

Bai Europak eta bai munduko gainontzeko herrialdeek erronka nagusi bati egin beharko diote aurre datozen urteetan, hots, demografi egituraren eta ekonomi egituraren arteko egokitze eta doikuntza gero eta estuagoa lortzeko, horrela biztanle-kopuru egonkortua eta ekonomiaren garapen iraunkorra erdiesteko. Horretarako, giza-baliabideen kalitatean (hezkuntza, osasuna, etxebizitza, ingurugiroa) oinarritutako aurrakuspenezko gizarte-politikak moldatu eta aurrera eramane beharko dira, enplegu osoko ekonomiarantz eta aukera-berdintasuna eta giza-eskubideen, politikoen nahiz gizarte-mailakoen erabilera berma dezan demokraziarantz abiatzeko.

Aldez aurretik badirudi abiatze horrek, seguruenik, askotariko etniaz eta kulturaz hornitutako gizarteetara eramango gaituela, egungo metropoli handietan ikus daitekeenaren eredura.

Hala bedi, baldin eta bide hau, halabeharrezkoa ez ezik, positiboa eta desiragarria delako ustea geureganatzeko gai bagara.

**1. IRUDIA.** Munduko populazioa, 1950-2025. (Gizakiak milioitan)



*Iturria:* Nazio Batuetako Populazio Atalaren zenbatespen eta proiektzioak, erdi mailakoak, 1988.

# **EMAKUMEA, DEMOGRAFI JOKABIDEAREN GAKOA**

Aurora García Ballesteros

## Aurora García Ballesteros

Giza-Geografia katedraduna Madrileko Unibertsitate Konplutensean, Historian doktratua, halaber, unibertsitate horretantxe Guadalajarako Hiri Geografiari buruzko lan bati esker. Bere ikerlanetako gai nagusia hiria da, demografi eta gizarte-arazoen ikuspegitik, batez ere.

Bere liburu eta artikuluen artean hurrengook aipa genitzake: «Crecimiento y problemas de la Población Mundial», «Actividad y paro en España», «Estructuras demográficas», «El espacio subjetivo de Segovia»... Gizarte Geografiaren arloan, bestalde, emakumearen espazioaz Espainian arduratu diren aurrenekoetako dugu, eguneroko bizitzako espazioaren erabilerari buruzko solasaldiaren koordinatzaile izan delarik.

## SARRERA

U

kaezina da jaiotze-kopuruak eragin zuzena duela populazio baten hazkundera eta adinen araberako banaketan, eta jaiotze-kopurua populazio horren emakumezkoen

kumezkoen egiturari nahiz zenbatekoari eta, hauekin batera, erditzeko gai diren emakumezkoen ugaltze-jokaerari lotuta dago.

Hau horrela izanik, funtsezkoa deritzot jokaera hori eta berau baldintzatzen duten faktoreak aztertzeari eta, horrez gainera, jokaera horrek jaiotzari, orohar, dakarzkion ondorioak populazioaren bizimoduaren ardatz bihurtzen direla eta jaiotzak berak ere emakumezkoen bizimoduan zuzeneko eragina izango duela aintzat harturik, beste azterketa bat ere egiteari, hau da, har litezkeen demografi neurriek zernolako eragina izan lezaketen emakumezkoen bizimoduan eta nola egokitu daitezkeen ahalik eta ongien emakumeon nahi eta beharizanetara.

Hau guztiau gogoan izanik, lehendabizi ugalkortasunaren egungo beherakadari buruzko iritzi orokor batzu azalduko ditut, ondoren, egoera honi aurre egiteko hartu beharreko neurriak aipatzeko, hartzekotan ere, emakumearen ikuspegitik hartu beharreko neurriak, alegia.

## UGALKORTASUNAREN BEHERAKADA ESPAINIAN

B

eharakada nabarmena ageri bait da Espainiar Estatuko ugalkortasunari dagokionez, lurraldekako diferentzia handiak erakusten duen beherakada hau 1977-1978tik

aurrera, batez ere, nabarmentzen da; hortaz, 1975ean, esate baterako, ugalkortasunaren indize sintetikoa 2,8koa zen, 1985ean 1,6koa eta, azken zenbatespenek erakusten dutenez, gaur egunean 1,4etik beherakoa da, horrela bada, epealdi honetan ugalkortasunaren indize sintetikoa %41ean gutxitu da, hots, emakume bakoitzeko seme edo alaba bat baino zerbait gehiago. Dagoeneko zera argitu behar da: azterlanik fidagarriek erakusten dutenez, beherakada horren erdia baino gehiago nahi gabeko seme-alabarik ez jaiotzeari dagokiola, eta honi positiboa deritzot. Eta gainera, Espainia 1981ean ordezipen-maila mitikora (gero azalduko dut zergatik diodan mitikoa) heldu gabe geratu zen, izan ere, 1981ean, estraineiko aldiz, ugalkortasunaren indize sintetikoa ez bait zen 2,1era iritsi.

Nolanahi ere, ez dirudi indize sintetikoaren zenbatekoak erabat egonkortu direnik; logikoa da erditzeko adinean dauden demografi-talde bolumen txikiagoari begiratuz gero, baina argi ikusten da, bestalde, indize sintetiko horren beherakada moteldu egin dela. Gauzak honela, Europako herrialde ugalkorrenetakoa izatetik, ugalkortasun txikienetakoa agertzen duen herrialdea izatera igaro gara. Nire datuak gaizki ez badaude, une honetan Danimarkan, Italian, Luxenburgon eta Alemanian baino ez daude Espainian baino indize sintetiko txikiagoak. Eta jakina, lurraldeen arteko diferentzia nabarmenekin, horrela bi muturretan Euskadiko 1,13ko indizea eta Andaluzia-Murcia-Extremadurako 2aren inguruko indizeak ageri zaizkigu.

Ugalkortasun-tasa, beraz, orohar gutxitu da, baina bereziki adin ugalkorrei dagokienean, eta hirugarren seme-alaba izaterakoan, batez ere; hots, lehenengo eta bigarren semea edo alabari (eta geroago mintzatuko naiz honetaz berriro ere) dagozkion kopuruak mantentzen dira gutxi gorabehera, baina hirugarrenari erreparatzean nabari da beherakada argia. Nire ustez jokaera erabat logikoa da, behingoz gure ugalkortasuna gure hilkortasunari egokituz doala erakusten bait du, dinamika demografiko ororen oinarritzko osagaiak berriz berrorekatu direla, alegia.

Gertaera hauek, nire eritziz, zenbait gogoeta sortarazten dituzte guregan, solasaldi bat gorpuzteko abiapuntu izan daitezkeen gogoetak, alegia.

## **UGALKORTASUNAREN BEHERAKADA, MEREZI AL DU KEZKATZERIK?**

E

goera honen aurren, lehendabizi, soziodemografian nolabait oinarritutako kezka agertu dira, ekintza bereziak ere aipatu direlarik. Atzo bertan, ordea, hemen esan-

dako hitz prestuak gogoan izanik, gure kezka sortzen duen arazo honek ia ez du garrantzirik nazioarteko testuinguruan. Hala da bai, munduaren kezka demografiko nagusia ez da ugalkortasun txikia, ugalkortasun handia baizik. Alabaina, hemen eta orain, aitzitik, ugalkortasun txikiak sortzen du kezka. Eta norbaiti, kezka ez ezik, larritasuna ere sortzen dio gizarte zahartu batetarantz abiatzeak. Eta egia esateko, zahartzapena ugalkortasunaren gutxitetik ere badator, baina, honez gero, baita hilkortasunaren gutxitzetik ere, gure biziraupen-muga 70-72 urtetaraino iritsi bait da. Eta zahartzapen horrek larritasuna sortarazten badu ere, nire eritziz, gizarte-mota berri bat egokitzeaz gainera ezer gutxi aldaraziko du.

Baina, zahartzapen hori pentsio-sistemaren etorkizunari eta Gizarte Segurantzarenari ere lotuta azaldu nahi digute, gestio ekonomikoari dagokion gai bati lotuta, ugalkortasunaren beherakadarekin nahasi behar ez diren gaiei lotuta, alegia, izan ere, etorkizun hurbilean ez bait dira nabarmenki urrituko biztanle-multzo ugalkorrek eta, gainera, zergatik ez gara aurrerapen teknologikoaz, produktibitatea areagotzeaz eta Europako behereneko den iharduera-tasa gehitzeaz ardurutzen? Hau da, arazoa kotizatzen duen pertsona-kopurua gehitzean badatza, ohizkoa ez bezalako eredu berri bat azter liteke kotizatzen dutenen kopurua gehitzeko, eta ildo horretatik, zergatik ez gara emakumeari laneratzeko aukera gehiago emateaz ardurutzen? Eta eredu berri horretan etorkinak ere sartuko lirake, izan ere, Espainia joaleen herrialdea izatek Hirugarren Munduko etorkinen hartzaile izatera igaro bait da.

Larritasuna eta kezka sortzen da, bestalde, gizaldi-ordezpenaren mugaren inguruan. 2.1etik behera gaude, 1,4ean gutxi gorabehera. Gizaldi-ordezpena ez da jadanik betetzen ari, demografiaren ahi-tze-ahalmena agortzen ari da, iraungipena datorkigu. Irakurri izan dut artikulu batetan, aldizkari batetan, Txina autogenozidiorantz doala eta gu, bide honetatik jarraituz gero, ere bai. Eritziok merezi dute halako hausnarketa bat egitea, ordezpen-mugari gaur egun ere, lan merkatua hornitzeko estrategia berri bat izanik ere, eutsi egin behar ote zaion galdetzea. 2.1eko muga oso zehatza da demografiaren ikuspegitik, noski. Zenbakietan oinarritutako muga da. Baina, agian, gaur egun beste muga bat asmatu beharko genuke, populazio-kopuru txikiagoa bilduko duena, baina balorazio kualitatibo ezberdin batekin. Gai honek hausnarketa bat eskatzen duela uste dut, izan ere, eztabaidaren koska Lurreko populazioa gehituz jarraitu behar duen ala ez bait da. Areago, egungo teknologi-maila aintzat harturik, ez ote litzatekeen hobe nazioarteko migrazioen bidez egungo populazioa baliabideen arabera birbanatzea, edota biztanle gutxiago izatea eta horrela herrialde guztietako bizimoduaren kalitatea areagotzea eztabaidatu beharko genuke.

Nolanahi ere, ugalkortasunaren krisialdia dela medio, martxan zeuden bilakaera demografiko zenbait larritu egin dira. Eta horrez gainera, gure gizartearen baitan adin-mota ezberdinen artean ohizkoak izan diren orekak aldatuko ditu, edo hobeto esanda, dagoeneko aldatzen ari da. Eta hau horrela da ezbairik gabe. Gauzak honela, ez ote dugu gizarte-eredu berri bat asmatu beharko? prentsan irakurtzen ditugun ezaugarri negatibo horiei, atzerakoia, berrikuntzarik gabekoa, ekonomi arazoak, eta abarrei loturik egon beharrik ez duen eredu berria, alegia. Nire ustez, biztanle-kopuru txikiagoa ez da parametro garrantzitsua; ez da pentsatu ere, mundu osoa aintzat harturik, parametro desiragarria bait da, hala ere garrantzizkoa zera da, populazioaren osagaien arteko oreka berria bilatzea.

Ugalkortasun txikiak, bestalde, aukeratu beharra, erabaki beharra, sortzen ari dela uste dut, eta aukeratu behar horren baitan, neurri handi batetan, bederen, ekonomia dago. Bi aukera ekonomikoren artean erabaki beharra dago, batetik, zahartzapenari, populazioaren gutxitzeari eta, beraz, pentsioen nahiz sanitate-inbertsioen eredu ekonomiko berri bati dagokion kostu diferentia edo, bestetik, gaurtik hasita aurre egin behar zaion kostu ekonomiko, eta esate baterako, gizakien munduratzeari nolabait sozializatzeko aukerak emango dituen geroago aipatuko ditudan erabakien bidez, eta hain zuzen ere, gai honi buruz Espainian eta kanpoan ere egin diren inkesta gehienetan agertzen

denez, emakumearen bi nahi nagusiak, hau da, lana eta amatasuna bateragarriak izan daitezen ahalbideratuko duena. Neurriok garestiak izango dira seguruenik, baina, beharrezkotzat jotzen badira, gaur bertan hartu beharko genituzke.

## **UGALKORTASUNAREN BEHERAKADAREN ZERGATIAK**



neurriok hartu baino lehen, ugalkortasuna zergatik gutxitu den jakin beharko genuke; eta argi dago, galdera horren gakoa, berriz ere, emakumea dela. Ara-

zo ekonomikoek ikututako emakumea. Baina, arazo ekonomikoen ondoan bere jokaera soziokulturalaren aldaketa garbia dago, bere balio eskala ere ikutu duen aldaketa nabaria. Nire eritziz, funtsezko data bat dago, 1979a alegia, urte horretan zigorgabetzen bait da antisorgailuen salmenta eta zabalkundea, urte horretan sortzen bait dira famili plangintzarako lehen zentroak, nahiz eta 1986an oraindik 331 besterik ez izan. Horregatik diot funtsezko data dela, gertakizun guzti horien ondorioz, nahi ditugun beste seme-alaba izatera abiatu garelako, bai ezkontuta eta bai bestelako elkarbizimoduetan ere.

Espanian 1985ean egin zen inkestari erantzutean espainiarrek jaiotzeei buruz agertzen dituzten jarrerak eta eritzia nahiko argigarriak direla iruditzen zait. Lehendabizi, espainiar gizartea ez da -jarrera konfesional batzutatik noizean behin esan den bezala- berekoa eta hedonista, ez du seme-alaba errefusatzeko inondik ere. Alderantziz, seme-alabak izatea erabat mesegarritzat jotzen da bikotearen egonkortasunerako, eta inkestaren erantzuleetako ia hiru laurdenek adierazten dute seme-alabarik ez badute, ezinezkoa zaielako dela -segidan ikusiko ditugu ezin horren zergatiak-, inkestari erantzun diotenetako laurden batek soilik adierazten du ez duela seme-alabarik nahi, lurraldeen artean ezberdintasunak nabariak badira ere.

Batazbesteko kopuruari dagokionez 2,54 seme-alaba izan nahi dute, baina puntu honetan etorkizunera begira garrantzizkoa den berezitasun bat aipatu behar da, hots, gazteenak direla, hain zuzen ere, seme-alaben kopuru-muga txikiena aipatu dutenak, eta horrela 16 urtetik 24 urtera bitarteko indizea 2,27koa zen. Hortaz, gazte hauen eritziz, oraingo bikoteak eurek desiragarriak deritzotenak baino seme-alaba gehiago munduratzen ari dira; gauzak honela, badirudi, jaiotzeak kontrolatzeko prozedura seguruagoak eta fidagarriagoak erabiltzeko aukera gehiago izanez gero, errazago gertatuko zaiela beren nahiak betetzen eta, horrenbestez, ugalkortasunaren beherakada ez dela geldituko oraingoan.

Beste alde batetik, nahi baino seme-alaba gehiago izateko arrazoiak aipatzerakoan, antisorgarriak ez ezagutzea nabarmendu zen. Seme-alabak izateko nahia murriztearen kausa nagusia, ordea, arazo ekonomikoak zen eta kasuren batetan eragozpen fisiologikoak. Lehen semea nahiz alaba gogo handiz izan ohi da, eta egunkariak irakurtzea aski da, antzutasuna deuseztu eta lehenengo semea edo alaba izateko egiten diren era guztietako ahaleginak, eztabaidagarriak izan daitezkeen manei genetikoak barne, egunean egunean ikusteko. Beti ere, lehenago esan dudana bezala, ezberdintasun handiekin azaltzen zaigu lurraldeen eta gizarte-mailen arabera. Izan nahi dituzten seme-alaben kopuruak, esate baterako, handiagoak dira kultura gutxiago dutenen artean, politika arloan euren burua eskuindartzat dituztenen artean, elizkizunetan parte hartzen dutenen artean, goimailako eta goi-erdimailako klaseen artean eta jaiotze-tasa handienak agertu ohi dituzten eskualdeetan: Andaluzia, Canarias eta Murtzian, adibidez.

Espaniako egungo jaiotzei dagokienez, berriz, harrigarri samarrak dira inkesta honen emaitzak. Erantzun dutenetako erdiek, gutxi gorabehera, jaiotze gutxiegi gertatzen dela uste du, baina bada beste hiruren bat jaiotze gehiegi direla uste duena, eta gehiengo batek, hiru laurdenak hain zuzen ere, ugalkortasunaren beherakadak irauan egingo duela eta hala izatea ongi dela uste du.

Eta ongi izate hori egoera ekonomikoari lotzen zaio, eta honi erabat interesgarria deritzot. Ez dugu gai hau sakonki aztertuko, ordea, eta gainera arratsaldean Montserrat Solsonak jorratuko duela uste

dut, alabaina, ugalkortasunaren eta langabeziaren arteko lotura aipatu nahi dut, argi bait dago, Espainian behinik behin, langabeziaren zifra handiek eragin zuzena izan dutela ugaltze-jokabideetan, eta ugalkortasunaren beherakadari esker, hain zuzen ere, lan merkatuaren gaineko presioa arindu egin dela piramidearen oinarrian. Horregatik bada, egunkari batetan irakurri dudan moduan, demografi multzoak nahiz lan merkatuaren egoera kontutan hartu gabe, Euskadin familia bakoitzeko bost edo sei seme-alaba izan beharko genituzkeela esatea, erlijioaren aldetik errespetagarria izan daiteke, baina ez dut uste proposatutakoaren ondorioak aztertu direnik, bestela nekez adieraziko bait luke horrelakorik.

Inkesta horretan, bestalde, Espainian gero eta jaiotze gutxiago izatearen arrazoiak galdetzerakoan, estualdi ekonomikoek gainera, antisorgailuen erabilera aipatu zen, eta baita emakumearen lanbide-iharduera nahiz menpekotasun-eza gero eta handiagoak izatea ere. Horregatik, behar bada, aldarrikatzen diren neurrien artean, emakumea lanbide-ihardueraz kanpo uztea aipatzen da. Eta azkenik, familiarentzako dirulaguntza urriak aipatzen ziren bitartean, abortatzearen legeztaketa eta dibortzioa lortzeko erraztasunak ez ziren horren funtsezkotzat jotzen jaiotze-kopuruaren mugapenari dagokionez.

Gauzak honela, espainiar gizarteak ez du inola ere umea arbuiatzen; ugalkortasunaren beherakada hirugarren eta, noski, laugarren seme-alaba izaterakoan nabari da, batez ere, emakumearen lanbide-iharduerarekin bateraezinak gertatzen direlako, bigarren eta hirugarren seme-alabaren artean eta beronen eta laugarrenaren artean tarte nabarmenak izaten ez badira, behinik behin. Halako zerbait hasi da gertatzen Espainiako zenbait eskualdetan, eta etorkizunera begira oso interesgarria deritzot gertakizun honi.

### **KOMENIGARRIA OTE DA UGALKORTASUNAREN BEHERAKADAZ IHARDUTEA?**

G

uzti honen aurrean, litezkeen alternatiba edo hautabideak behar ditugu, eta hautabide horien bila abiatu baino lehen, ugalkortasun-maila gehitu beharra da-

goen ala ez erabakitzeke hausnarketa bat egin beharko genuke, eta baietz baderitzogu, zein epetan?, hau da, aurrena 2,1ean birkokatzea komeni zaigula erabat argi izan beharko genuke, eta nire ustez, hau ere oso eztabaidagarria da. Hala ere, baietz esaten bada, bigarren galdera bat azalduko zaigu, nola?, zer egin behar du Estatuak? Estatuak esku hartu behar du ala ez? Estatuak jaiotze-kopurua murriztearen alde jokatu behar duen ala ez galdetzerakoan, erantzun parekatuak agertu ziren 85eko inkestan. Portzentaiarik handienak %33a jotzen zuten, Estatuak jaiotzeen beherakada geldiarazteko ahal zuen guztia egin behar zuela adierazten zutenek osotutako portzentaia, alegia, eta harrigarria badirudi ere, jarrera horren alde agertzen zirenen artean gazteenak ziren nagusi, 16 urtetik 24 urtera bitartekoak hain zuzen. Gazteriak, lehendabizi eta funtsean neurri ekonomikoak eskatzen zituzten, eta neurrien artean, gazteen langabeziari ekiditeko neurriak.

Egia esateko, ugalkortasunaren beherakada, Estatuak arazo honetan esku hartu behar duen ala ez eta hartu beharreko neurriak aspaldiko kezka dira. Orain, ordea, arazo honetan murgilduta gaude-nez, berria eta larria iruditzen zaigu. Duela lau urte, esaterako, joera demografikoei eta plangintza ekonomikoari buruzko nazioarteko simposium bat egin zen Madrilen. Batzar horri amaiera emateko ekitaldian, sasoi hartan Instituto de la Mujer delakoaren zuzendaria zen Carlota Bustelok hitz egin zuen, eta honela mintzatu zen, hitzez hitz irakurriko dut: “no es bueno que la tasa de fecundidad siga descendiendo, porque nos preocupa el futuro de nuestra población”. Hala eta guztiz ere, argi eta garbi adierazi zuen Instituto de la Mujer delakoa seme-alaba bakoitzeko famili laguntzak gehitzearen aldeko gizarte politika guztien aurka dagoela, baliabideak xahutzeko modua bait zeritzon, nahiz eta familia oso behartsuen kasuan beharrezkoa izan zitekeela onartu, baina beti ere, salbuespen gisa. Bustelo andereari, ordea, Espainian askoz ere egingarriagoa, merkeagoa eta eraginkorragoa irudi-

tzen zitzaion emakumeari lan egiteko (jaiotzeak murrizteko kausa) eta aldi berean ia emakume orok nahi dutena, hots, seme-alabak izateko aukera emango lioketen gizarte zerbitzuak garatzea.

Ekitaldi berorretan, bestalde, Ekonomia eta Plangintzako Estatu Idazkariak zera zioen: “la actitud que recomendaría un político es la de sana preocupación, la de ocuparse de los problemas, no despreocuparse, no alarmarse, porque los problemas demográficos de España no alcanzan la dimensión como para aconsejar lo que ustedes llaman políticas demográficas”. Hala ere, Ekonomia eta Plangintzako Estatu Idazkari berberak, 1987ko maiatzean Bruselan egin zen famili arazoez arduratzen diren Europako Ministrarien Konferentziako batzarraldi batetan zera esan zuen, epe ertainera Espainia ere jaiotze-tasari eusteko politikak aurrera daramatzaten Europako gainontzeko herrialdeekin batera ihardun beharko zuela, baina politika horiek ez direla jaiotzeen kontrolaren hedapena eragozten edo emakumeen ekonomi iharduera-eza sarizatzen ahalegindu beharko.

Horrela planteatzen da gai hau Espainian. Areago, Madrileko Erakunde Ofizialak agindurik orain urte batzu egindako inkestetan agertzen denez, egun lanean ari diren emakumeen artean %10 baino gutxiagok adierazten dute etorkizunean lanari uzteko asmoa, eta lehenago langileak izan eta lanari uzti diotenak nahiago izan zuketela lanari eustea seme-alabak izan arren, eta lanari halabeharrez utzi ziotela, haurtzaindegi-ezaren, eskaintzen zizkieten lan baldintza txarren nahiz soldata eskasen eta trebakuntza urriaren poderioz, baina ez hasierako laneratzean, birlaneratzean baizik, familiak ez zielako laguntzarik eman etxeko eginkizunetan, senarrak ez zuelako lanera zedin nahi (%18) eta, finean, emakumeek lan egitearen aurkako eritzi orokorrerengatik (%14).

Inkesta hau Madrilen egin zen, eta agertzen diren zifrak interesgarriak direla deritzot, izan ere, espainiar gizarteak emakumeei buruz dituen zenbait jarrerak erakusten bait ditu, aldatu beharreko jarrerak, alegia.

Seme-alabarik txikiena adin nagusitasunera heldutakoan, ezkonduko emakumea berriz laneatzea, Europako hainbat herrialdetan ohizkoa edo bada ere, hemen ez da horren erraza eta ohizkoa. Emakumeak, lehen aipatutako zergatiak direla eta, ahalge ikusten du bere burua gizonezkoena bezalako ekonomi iharduera batetan aritzeko, argi dauka lan merkatuan diskriminaturik dagoela eta ezinbestekoa zaiola bera hobe dela frogatzen aritzea ahal duen guztietan, eta horrez gainera, lan merkatuan sartutakoan ere ordezeko langilea izan ohi dela eta kaleratzeko zemaia handiagoa izan ohi dela emakumearentzat.

Baina lehentxoago esan dizuedan bezala, eta honekin ondorioak ateratzen hasiko gara, ugalkortasuna areagotzeko kezka hau ez da gaurko kontua, ez eta sortu berria ere. Adibide bat ekarri dut, Alemanian Adolf Hitlerrek gobernatzen zuen garaian Munich-en Estatistikako Zuzendari Nagusia zen Federico Burgdöorferren testu bat, alegia. Munduko Bigarren Gerratearen inguruko sasoi hartan argitaratutako liburu batetan, “Jaiotzeen urripena: Europaren eritasuna eta beronen sendabidea Alemanian” izenburuaz argitaratu zen liburuan, besteak beste, zera zioen: “Enperadoregoaren eta Nazionalsozialismoaren errege gabeko tarteak, Estatu nahiz ekonomi krisialdi hutsa ez ezik, funtsean bizitzari zegoen krisialdia gertatu zen Alemanian, krisialdi biologikoa, alegia; alemaniar herriak galdua zuen bizi eta ugaltzeko gogoak, tokirik gabeko herria izateaz gainera, bizitzeko gogo eta energiarik gabeko herria zen”. Eta gauzak honela, Nazionalsozialismoa heldu eta hainbat neurri hartzen ditu. Eta jaun honek dioenez, 33. urtetik 40. urtera bitartean espero zirenak baino hiru milioi ume gehiago jaio ziren, eta “abertzaletasunaren seme-alabak” deitzen ditu. Izendura txit interesgarria, nire ustez.

Gai hauek jorratzen ari direlarik, Burgdöorferrek beharrezko jaiotze-kopuruaz mintzatzen da jadanik, zaindu beharreko biztanle-kopurua aipatzen du, eta baita populazioaren guztizko zenbatekoa edo lan gaitasuna, indar militarra nahiz ugaltzeko ahalmena dakartzaten giza-talde bolumena ere; bere eritziz, jokabide demografikoak helburu jakin bat izan behar du, hots, nazioa etengabeko hazkunde-bidean mantentzea, eta zera dio, nazionalsozialismoak badakiela ugaltze-nahi hori dela, hain zuzen ere, gure fruiturik ederrena, Fürherrek behin esan zuen bezala, gure barruko eta kanpoko eraldakuntzaren ondorioz jaso dezakegun bedeinkapenik preziatuena jaiotzeen gehikuntza dela; hortaz, jaiotzeak direla eta antzematen den aldaketa neurri zehatzei baino gehiago zor zaio Alemanian izandako eraldakuntza sakonari, herria ohartu da jaiotzeen arazoa hil ala biziko arazoa dela, eta

ohartze horri zor zaio, hein handi batetan, herriaren bizitasunaren zuzpertzera eta ugalkor izateko nahia eta gogoia.

Eta horretarako zenbait ekintza proposatzen dituzte: ezkontzarako maileguak; seme-alabentzako laguntzak; administrazio publikoan ari diren langile eta enplegatuentzako gainsoldatak familia ugaria dutenean; errentaren, onuren eta jaraunspenen gaineko zergen tarifak familiaren egoera eta seme-alaben kopurua aintzat harturik ezartzea; nekazarien aldeko jokabide demografikoa; eskola matrikulen mailaketa seme-alaben kopuruaren arabera; dohaneko eskolatzea eta bekak familia ugari eta osasuntsuen seme-alabentzat; ohorezko aitabitxitasunak, Berlin eta Stuttgart-en, esate baterako hiru edo lau seme-alaba zituzten familientzako ohorezko aitabitxitasunak eratu ziren; etab. Hau da, familiari eusteko laguntzak hain zuzen. Badira antzeko beste hainbat testu, Mussolinik Lazioko emakumeen aurrean egindako hitzaldia, adibidez, seaskak hutsik zeuzkatelako abertzaletasunik ez izatea leporatzen zielarik; edo 40-50. hamarkadetako espainiar testuak, antzeko gauzak adierazten dituztenak. Kezka hau, beraz, ez da sortu berria.

Nolanahi ere, eta bukatzeko, harrigarria iruditzen zaidana zera da, kezka hori azaltzen denean oso gutxitan aipatzen dela emakumea. Eta ugalkortasuna zuzpertzeko ahalegina gauzatuz gero, famili politika zabal baten barruko ekintzen bidez jokatu beharko litzateke, zeren, nire ustez, gaur egun, zorionez, funtsezko aldaketa bat nabari da gure gizartean, emakumeak bere kondizio bereziaz ohartu dela, alegia. Eta horrenbestez, bere biologiak halabeharturik historian zehar atxeki zaion emazte eta ama derrigorrez izan behar hori arbuatzen hasi da. Emakumea, dagoeneko ohartu da, bere patua hautatzeko geroz eta gaitasun handiagoa duela eta gure garaiko erabaki handiak, eta bereziki, jokabide demografikoei dagozkien erabakiak hartzerakoan ba duela zer esanik.

Harrigarria bait da, jaiotzei buruzko erabakietan, oraintsurarte, gizateriaren erdiak beste erdiak erabakitakoa irunsi eta jasan behar izana, jaiotzei buruzko gomendioak emakumeak aintzat hartu gabe ematen direla bait dirudi, eta batzutan haien kalterako ere, jokaera pasibo bat bait legokieke.

Gaur egun ez da hala gertatzen, zorionez. Hortaz, une honetan beharrezkotzat jotzen dut, lehenengo eta behin ugalkortasuna parametro berri batzuren arabera baloratzea: hilkortasunari dagozkion parametro berriak, parametro teknologiko berriak, ekoizkortasuna gehituz, populazio aktiboari dagozkion parametro berriak, emakumea populazio aktibo horretan sartuz, etab.; bigarrenik ugalkortasunaren tasa txikiak nazioarteko testuinguruan baloratzea, izan ere, munduaren arazoa ez bait da ugalkortasun txikia, handia baizik; hirugarrenik, nahi bada eta beharrezkotzat jotzen badira, etxeakoandreatzako soldata bezalako neurriak hartzea, baina emakumea berriro baztertu gabe. Areago, demografian eragin txikian izanik ere, lan iharduera eta familiarekiko iharduera eta erantzunkizuna bateratzeko aukera eskaini dezaketen neurriak ere har daitezke. Labur esateko, sozializatu egin behar da.

Aktiboa ez den populazioari bagagozkio, argi dago etxeakoandreatan lanak hainbat eginkizun espezializatu biltzen dituela: garbitzailea, erizaina, sukaldaria, lisatzailea, pedagogoa, eta batek daki zenbat lanbide gehiago; hots, egun dagoen etxeakoandre-kopurua baino handiagoa datekeen langileria ordeztzen ari da. Horregatik uste dut, hain zuzen, etxeakoandreatan ideologiari eustearen oinarrian ideologia ez ezik, arrazoi ekonomikoak ere nabari daitezkeela. Guzti honetaz solasaldian ere mintzatuko gara seguraski, baina, beti ere, eman diezaiogun geroz eta balio handiagoa kalitateari eta ez kopuruari; eman diezaiegun geroz eta balio handiagoa seme-alabei, baina izan nahi baditugu, noski; beregana beza gizarte osoak arazo honenganako ardura, ez emakumeek soilik; har ditzagun aintzat emakumeen eritziak beraiengan horren eragin handia duten erabakiak hartzerakoan, nire ustez horrela jokatzuz bakarrik hasi bait gaitzke bide demografiko berriak urratzen. Eskerrik asko.

# **SUEDIAREN KASUA: DEMOGRAFI HAZKUNDEA DEMOKRAZIA AURRERATU BATETAN**

Eva M. Bernhardt

## Eva M. Bernhardt

Demografian Lizentziatua Pennsylvaniako Unibertsitatean, USA. 1940an jaioa, suediarra. Stocholm-eko Unibertsitateko Demografia Saileko irakaslea eta ikerlaria 1983tik aurrera.

Hainbat urte eman ditu “Emakumeen bizitzaren faseak” delako gaia lantzen, hau da, emakume suediarrek ekonomi iharduera eta amatasuna (amatasun fisikoa eta seme-alaben heziera) konbinatzeko izan duten jokabidea aztertzen.

1.990ean, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran Stockholm-eko umeengan gertatu zen hilkortasun izugarriaren jaitsierari buruzko ikerlan baten zuzendaritzan dihardu.

EMAKUNDE / Emakumearen Euskal Erakundeak 1.990ean (Gasteizen) egindako Ekintza Positiboari buruzko Batzarrean txosten bat aurkeztu zuen.

S

uedia biztanleri dentsitate txikia duen Ipar Europako herrialdea dugu, 8 milioi biztanle baino zerbait gehiago baino ez bait dira bertan bizi. Demografi joera berrien aintzindaritzat sarritan aipatua izan denetik, interesgarria gerta daiteke azken urteotan bertan izan diren garapen demografikoak aztertzea, demografi hazkunderari dagokionean, Europako beste tokiren batetan ere jarrai litezkeen ezaugarri nahiz jokabideak ikus genitzake eta.

Orain arte, Suedian, biztanleria edo populazioaren hazkundera positiboa izan da beti. Horrela bada, Europako beste herrialde batzutan ez bezala, Suedian ez da biztanleria benetan gutxitu deneko urterik ezagutu, nahiz eta 1982an eta 1983an muga horretatik hurbil izan ziren, urte horietan berezko hazkundera eta migrazio garbia hutsaren ondo ondoan agertu ziren eta. Ugalkortasuna, berriz, oso txikia suertatu zen 30. urte hamarkadan, gero gora egin zuen berrogeigarren hamarkadan eta nahiko egonkor agertu zen berrogeitamargarren hamarkadan eta hirurogeigarrenaren lehen urteetan zehar. 1964-1965 urteetan goia jo ondoren, ugalkortasuna asko jaitzi zen hirurogeigarren hamardaren azken urteetan eta hurrengo hamarkada osoan zehar, Europa Mendebaldeko gainontzeko herrialde gehienetan bezalaxe, hain zuzen. Hirurogeitamargarren hamarkadaren azken urteetan, ordea, beherazko joera hori aldatu egin zen eta 1983tik aurrera etengabeko hazkundera nabari da. Hazkunde eta beherakada hauek, nolana ere, badute zerikusirik ugalkortasun-adinaren eremuan gertatu diren aldaketekin. Demografoek ongi dakitenez, denborazko estatistika erlazioen fluktuazioak erabateko aldaketak erakusten dituzte, multzo baten arabera demografi batazbestekoak kalkulatzeko direnean baino askoz ere nabarmenagoak. Suedian, mende honetan multzo edo belaunaldi batek ere ez du bera ordeztuko bezainbat jaiotze sortarazi, nahiz eta hogeitamargarren hamarkadako emakumeak muga horretatik hurbil ibili ziren. Hortaz, suediar biztanleria etengabe hazi bada, etorkinei eta hilkortasunaren gutxitzeari esker izan da, batez ere. Etorkinek gaztetu egin dute biztanleria, etorkin gehienak gazteak bait dira. Berrogeitamargarren hamarkadaren hasieratik 1988. urtera bitartean izan den biztanleri hazkunderaren %8a etorkinei zor zaie.

Azken aurrikuspenetan adierazten denaren arabera, Suediako biztanleria etengabe haziko bide da 2025. urterarte, mende hasieran baino astiroago haziko bada ere. Aurrikuspen hauek, bestalde, ugalkortasunaren portzentaia handi samarrari (emakume bakoitzeko 1,9 seme-alaba) eutsiko zaiola eta migrazio garbia zerbait gutxitu arren positiboa izaten jarraituko dela, hau da, epealdi horretan zehar etorkinak erbesteratzen direnak baino gehiago izango direla kontutan harturik egin dira. Beraz, 2025. urtean 9 milioi biztanle izango lirake Suedian.

Gaur egun, mendebaldeko gizarte gehienetan ageri zaizkigun jaiotze-indizeak urriegiak dira biztanleriaren ordezen osoa bermatzeko. Ordezpen osoa edo ordezen ugalkortasuna esaten dutenean, gizaldi baten tokia betetzeko behar diren seme-alabei legokiekeen jaiotze-kopuruaz ari dira demografoak. Aditu gehienek uste dute ordezen-ugalkortasun negatiboak irauko duela hurrengo urteetan, emakume bakoitzeko bi seme-alaba baino gutxiago izango direla, alegia. Mendebaldeko gizarteetan ordezen-ugalkortasun negatiboa nagusi den garai hauetan, Suedian maila aski altuari eustea lortu dute, nahiz eta bestelakorik adieraz dezaketen faktoreak agerian izan -esaterako, elkarrekin bizi direnetako asko ezkongabeak dira eta emakumeek partaidetza handia dute lan merkatuan-. Hala eta guztiz ere, lehenago adierazi den bezala, suediarren jaiotze-indizea dexente gehitu da larogeigarren hamarkadaren hasieratik, Europako beste zenbait herrialdeetako joeren aurka. Herrialde hauetan ere, Espainian izan ezik, hirurogeitamargarren hamarkadako eta larogeigarrenaren lehen urteetako jaiotze-tasa urriak gehitzen hasten direla ematen du. Dena den, inon ere ez da Suedian bezalako gehikuntzarik antzematen. Horrela, 1988 eta 1989. urteetan, adibidez, Suediako guztizko ugalkortasun-tasak emakume bakoitzeko 2,0 seme-alaba jotzen zuen, eta Europako Ekonomia Elkarteko hamabi herrialdeei zegokienak 1,6 baino ez. 1990. urterako emakume bakoitzeko 2,1 seme-alaba aurrikusten dira Suediako ugalkortasun-tasari dagokionez, beraz, goranzko joerak dirau oraingoz.

Suedian, Espainian eta EEeko hamabi herrialdeetan izan diren guztizko ugalkortasun-tasaren joerak ezagutzen ditugu. EEeko hamabi herrialdeena mailaz maila jaisten da 1965etik aurrera, 1987an maila oso txikira iritsi arte, 1,55era, eta gero emeki-emeki 1,6ra igotzeko 1988an. Espainiak ez dio Europako ereduari erabat jarraitu, beherakada hamar urte beranduago hasi eta 1988an amai-

tzen bait da, aldaketarik antzematen ez delarik. Horrela, 1988rako 1,38ko zifra aurrikusi zen, Elkarteko hamabi herrialdeetako bigarrena behetik (Italian izan zen txikiena, 1,34). Suedian, ordea, ugalkortasun-tasa ez da sekula 1,6tik jaitsi, eta lehentxoago esan bezala, gaur egun ere hazten ari da. Ezin esan daiteke Suedia, Europako ugalkortasunari dagokion arazo honetan, aintzindaria ala kasu berezia den, baina inoiz ez du izan, orain arte, Europa Mendebaldeko ugalkortasun-tasarik handiena, Irlanda eta Islandia salbuetsita.

Lan merkatuaren ezaugarriei heltzen badiegu, herrialde industrializatuak aintzat harturik, Suedian emakumezko enplegu-indize handienetakoa ageri zaigu. 1988an emakumeen %82k lan egiten zuten etxetik kanpo, gizonetzkoen kasuan %88 ziren bitartean. Horrela bada, ekonomikoki aktibotzat jo zitezkeenak kontutan harturik, eskulanaren ia erdia osotzen zuten emakumeek. Larogeigarren hamarkadaren hasieran, enplegatutako bi emakumetako batek denbora partzialeko lana zuen -astean 35 ordu baino gutxiago, alegia-, gizonetzkoen artean, berriz, %7a baino ez zebilen horrela. Emakumezkoak ez bezala, 7 urtez beherako seme-alabak zituzten gizonetzkoen multzo osoari baino arbuigarriago iruditzen zitzairen denbora partzialeko lana. Halako lanetan aritzeko arrazoiei dagokienez ere, motibazio ezberdinak agertzen dira: 25-44 urte zituzten emakumeetako %85ek euren etxeko lanetaz arduratu beharra edo ez zutela lantsaio osoko lanik nahi adierazi zuten, adin berbereko gizonetzkoen kasuan, ordea, %30ek aipatu zituen arrazoi horiek. Beste alde batetik, gizonetako %40k ikasketak edo horrelako lanik ezin aurkitzea aipatu zuten denbora partzialeko lanean aritzearen arrazoi gisa, emakumeetako %12k bezalaxe. Azken urteetan, ordea, denbora partzialeko lana ez da hain arrunta (Sundström 1990), baina oraindik ere, seme-alabak dituzten bikoteen artean, gehienetan, senarra lantsaio osoko lanean ari izaten da eta emaztea denbora partzialeko lanetan. Ezkondutako edo bere gizonlagunarekin bizi diren emakumeetako %12 baino ez zen etxekoandre hutsa.

1979az geroztik, eskolaurreko umeak dituzten guraso guztiek dute denbora partzialean lan egiteko legezko eskubidea. Lehenago, ekonomiaren sektore publikoan ari zirenek baino ez zuten eskubide hau. Arlo pribatuan, aldiz, enpresariaren esku uzten zen lan-orduen gutxitzea emateko erabakia. Nolanahi ere, legezko eskubide bat izateak ez du eskubide hori berdintasunez eta orokorrean erabiliko dela bermatzen. Erditu ondoren lanera itzultzen ziren emakumeei buruzko azterlan batek erakusten duenez, Suedian ere, sarritan oztupo handiak aurkitzen zituzten legearen arabera zegozkien eskubide eta onurez baliatzeko.

Suediako lan merkatuan, bestalde, bereizketa nabarmena dago lan iraunkorra edo aldi baterakoa duten artean. 1974ean eman zen lege batean agintzen zenez, arau orokor bezala, jendeari kontratu iraunkorrak egin behar zitzaizkion eta lege hau ez zen indargabetuko langabezia bezalako "bidezko arrazoirik izan gabe". Honek esan nahi du lan iraunkorra duenak enplegu segurtasun osoa duela. Aldi baterako lanak, ordea, sei hilabetez, gehienez ere, luza daitezke, lanari uzteko baimena -amatasunagatiko baimena kasu- duen norbait ordezkatzen denean izan ezik, halakoetan lan hori ohizko langilea itzuli bitartean luzatzen bait da. Gauzak horrela, emakumeek lan segurtasun osoa dute erditzeari dagokionean, noski, inor ere ezin kalera daitekeelako haurdun izateagatik nahiz erditzearen ondorioz (ezkontza edo haurdunaldiaren ziozko kaleratzea 1939an debekatu zen). Amatasunagatiko baimenaren onurak ere ez daude lana finkoa edo aldi baterakoa izatearen menpean. Hau horrela izanik ere, aldi baterako lan batetik bestera ari diren emakume askok amatasunagatiko baimenaz gozatu ondoren itzuli ahal daitezten lan finko bat lortu arte atzeratuko dute erditzea.

S

uediako famili politikak hiru osagai nagusi ditu: lehenik, seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntza egokiak daude, garrantzizkoena ume-sorospena izaki. Bigarrenik, subentzio handiak jasotzen dituen seme-alabentzako arreta sistema zabala dago. Hirugarrenik, gurasoentzako onura sistema landu bat ere badago, lanetik irteteko baimena barne. Egia da, Europako herrialde guztietan ere badirela amatasunagatiko onura ezberdinak, baina Sue-

diakoak gainontzeko herrialde gehienetakoak baino trinkoagoak dira. Amatasunagatiko baimen ordaindua 1955az geroztik dago, orduan hiru hilabetez luzatzen zelarik. 1963an 6 hilabetez luzatu zen. Hirurogeitamargarren hamarkadaren azken erdian beste zenbait hobekuntza sartu zen. Berrikitan 15 hilabetez luzatua izan da. Amatasunagatiko baimen ordaindua, berriz, erditu aurretik 9 hilabetez, gutxienik, lan ordaindua egiten arituak ziren emakumeei baino ez zitzaien ematen. 1974az geroztik, ordea, emakume guztiek, aurretiko enplegua edozein izanik ere, amatasunagatiko gutxieneko onura batzutatuz gozatzeko eskubidea dute. Nolanahi ere, enplegatutako emakumeek beren lehengo soldataran %90a jasotzen dute baimenak dirauen artean. Ekonomi pizgarri garrantzizkoak daude, beraz, erditu aurretik enplegatua izateko eta hurrengo semea edo alaba aurrekoa izan eta 2 urte t'ardi igaro ondoren izateko, horrela, emakumeak amatasunagatiko onura-maila berberari eusten bait dio jaiotza bien artean lan egiten ez badu ere. 1979tik hona, berriz, gurasoek erditzearen ondorengo 18 hilabeteetan lanetik kanpo izateko baimena lortzeko eskubidea ere badute. Eskubide hau lehenagotik ere erabiltzen zen sektore publikoan. Sektore pribatuan, enpresariak bere "eskuzabaltasuna" erakutsi eta lanari uzteko baimena luza zezakeen, adibidez, emakume langile jakin bat lanera itzul zedin interesgarria zitzaionean. Emakume gehienak, tamalez, erraz ordezkari daitezkeen lanpostuetan ari dira.

Haatik, Suediako amatasunagatiko baimenari gurasoentzako baimena deitu beharko genioke. 1974az geroztik, dela ama dela aita goza daiteke baimenaz. Biok batera ere balia daitezke etxean egon eta gaixorik dagoen semea edo alaba zaintzeko, beti ere, urteko egun-kopuru mugatu batetan. Baimen hau, gaixotasunagatiko aseguru bezalaxe, ordaindua da, hots, diru-sarreraren arabera ordaintzen da. Horrez gainera, Suediako egoiliar orok mediku-zainketak hartzeko eskubidea du, haurdunaldiaren etendura eta antisorgailuei buruzko argibideak barne; era berean, zahartzarorako oinarritzko pentsioa eta familiarentzako laguntzak jasoko ditu, ordaindutako iharduerarik izan ez badu ere. Gizarte Segurantzaren onurak, hala nola, gaixotasunagatiko aseguru eta langabetuentzako sorospena norbanakoak lana baduen ala bazuen menpean daude, noski. Diru-sarrera gehigarrien pentsio bat ere badago, ekonomikoki iharduniko urteetan zehar metatu diren pentsio-puntuaren arabera kalkulatu dena. Denbora partzialeko lanetan aritzen direnak (gehienak emakumeak dira) pentsio urriagoak jasotzeko arriskua dute. Eta gainera, halako lana dutenek astean 17 orduz, gutxienik ere, lan egin behar dute, langabetuentzako onurak edo, enplegu-etendura balitz, sorospena jasotzeko.

Mendebaldeko beste zenbait herrialdetan bezalaxe, Suedian ere lan merkatu zatitua dago, hots, emakumezkoek eta gizonezkoek, orohar, lan ezberdinak izan ohi dituzte. Emakumezkoak, gehienetan, bulegariak, mekanografoak, takigrafoak, erizainak eta osasun arloko bestelako langileak, irakasleak eta seme-alaben zaindariak, gizarte laguntzaileak, etxeko langileak eta interinak, dendetako saltzaileak eta, manufaktur arloan, jostunaketa ehungintza sektoreko langileak dira. Hortaz, sexuen arteko berdintasuna bultzatzen duen politika ofizialaren gainetik, lanbide-zatiketarik oraindik badira ematen du.

Azkenik, emakumezkoek Suediako lan ihardueran duten partaidetza handiaren funtsezko arrazoia den seme-alaben zaintzari buruz zerbait esan behar da. Hirurogeitamargarren hamarkadatik zaintza publikoari eman zaio lehentasuna. Horrela, 1987an 1-6 urte bitarteko seme-alaben ia %70a era ezberdinetako zaintza publikoaz onuratzen zen. Eguneko arreta zentroak egun osoan daude zabalik eta lanean ari diren gurasoen 9 hilabete eta 6 urte bitarteko seme-alabak zaindu ez ezik, goimailako hezkuntza eskaintzen diete. Bada, bestalde, familiarentzako eguneroko arreta deritzana, udalerriek enplegatutako zainntzaileek emana, hauek hamabi urte arteko seme-alabak euren etxeetan jasotzen dituzte, bertan, gehienetan, beraien seme-alabekin batera izan daitezten. Eguneko arreta zentroetan tokirik ez duten 4-6 urte bitarteko seme-alabek, berriz, egunero 3 ordu eman ditzakete dohaineko hezkuntza iharduerak eskaintzen dituen denbora partzialeko aurrezkola-zentro batetan. 11 urtez beherakoentzat badira, halaber, eskola osteko etxeak direlakoak, lanean edo ikasten ari diren gurasoen seme-alabak zaintzen dituzte eskolaz kanpoko orduetan zein eskolaren jai egunetan. Seme-alaben zaintza pribatua ere bada, jakina, senideek, hezitzaile pribatuek eta eguneroko zaintzarako zentro pribatuek nahiz kooperatibek betetzen dutena, alegia.

Suediako ezaugarri hauek aurkeztu ondoren, emakumeen emantzipazioa eta seme-alaben zaintzaz

mintzatuko naiz ikuspegi orokorrago batetik. Emakumeak iragan mendearen amaieran botoa emateko eta bestelako eskubide zibil eta ekonomikoen alde burukatu zirenean, hain handiak ziren ugalkortasun indizeak ezen emakumeen emantzipazioaren ondoriozko ugalkortasunaren inhibizioa inortxok ere ez zuen erabiltzen aurkako argudiotzat. Orduan, alderantziz, ugalkortasuna gutxitzea gizarte-aurrerapentzat jo ohi zen. Hirurogeigarren hamarkadan, berriz, Hirugarren Munduko herrialdeen eztanda demografikoarekiko kezka zabaldu zen. Eta egoera horri aurre egiteko, emakumeen status-a goratzea ere aipatu zen, emakumeei hezkuntza eskaintzea seme-alabak munduratzeaz gainera, bestelako gaietan ere interesatuak izan daitezten, eta horrela, garapen-bidean zeuden herrialdeen biztaleri hazkundera geldiarazteko. Herrialderik garatuenetan ere ezagutu da halako argudiorik. Azken hamarkadan, izan ere, herrialde industrializatuetan izugarri jaitsi da ugalkortasuna, ordezen-maila negatiboetara iritsi arte, aldi berean, emakumeen lan merkaturatzea nabarmenki gehitu delarik. Gauzak honela, mendebaldeko emakumeen gehiegizko emantzipazioak jaitze-tasan izan lezakeen eragin negatiboari buruzko kezka agertzen hasi da.

**D**emografo amerikar ospetsu batek behin esandakoa aipatu behar dut: “nuestro pasado éxito en la reposición de la población, a través de toda la historia de la humanidad, ha estado condicionado al trato discriminatorio de las mujeres”. Hortaz, bereizkeria hori deuseztu edo erabat murriztuko balitz, nahitaez ordezen-ugalkortasun negatiboa izango genuke. Horrela bada, demografo askoren eta, gizonezkoak direnean, gehienek eritiziz, ez da posible sexuen arteko berdintasuna eta behar hainbateko ugalkortasuna aldi berean izatea. Eritzi horri erronka jo nahiko nioke nire aldetik.

Leku guztietan, gizartearen ordezen ia osoa familiaren baitan gertatzen da. “Familia” delakoak gizarte-motaren araberrako esannahi ugari hartzen badu ere, edozein familia unitatez kanpo ezkongabeek seme-alabak zaintzea gertakizun zeharo bitxia eta ez ohizkoa da. Eta hau Suedian ere hala da, nahiz eta, gaur egun, bi umetatik bat ezkongabeko gurasoak izanik munduratzen den. “Ez-legebidezko” seme-alaba hauetako gehienek gurasoak ezkontzaz kanpoko harremana duten gurasoengandik sortuak dira, nahiz eta horietako asko semea edo alaba jaio ondoren ezkondu. Izan ere, bakarrik bizi diren emakumeek zaintzen dituzten seme-alaben kopurua gutxitu egin bait da Suedian azken hamarkadetan.

Hortaz, ugalkortasun-ordezen negatiboaz mintzatzerakoan, bidezkoa deritzot garai hauetako familia bat aztertzeari. Ezkontzari dagozkion indizeek, orohar, behera egin badute ere, European behintzat, badirudi bikote harremanetan bizitzeko joerak nahiko egonkor dirauela. Ezkontza-indizirik txikiak dituzten herrialdeetan - Suedian eta Danimarkan, batez ere- ezkontzaren tokian ezkontzaz kanpoko harremanak aurki ditzakegu hein handi batez. Honek ez du esan nahi, ordea, bikote-harremanik gabe bizi direnek gutxi direnik. 2. taulan Suediako 1975, 1980 eta 1985 urteetako erroldak agertzen dira eta bertan ikus daitekeenez, 30 urtez gorako gizon eta emakumeen artean ere, %25etik 30era bikote-harremanaz kanpo bizi da eta portzentaiak zerbait gora egin dute, gainera. Dena den, dibortzioen indize handi samarrari erreparatuz gero (ezkontzaz kanpoko harremanen desegite-indizeak are handiagoak dira), bikote-harremanetan (ezkonduta nahiz ezkondu gabe) bizi diren 30 urtez gorako suediarren portzentaiak nahiko egonkorak direla ikusten da. Portzentaiak are handiagoak agertzen dira, elkarrekin bizi arren, datu-bilketa egin zen unean ezkondu gabe daudenen kasuan.

Ezkontzaz kanpoko bikote-harreman guztien portzentaiak gora egiteak, ugalkortasun indize orokorrean funtzezko eragina izan lezake, baldin eta ugaltze-kontuetan elkarbizitza eta ezkontza baliokideak ez badira. Suediako datuek erakusten dutenez, elkarbizitzari dagokion ugalkortasuna ezkontza barrukoa baino askoz txikiagoa da. Baina baliteke gertaera horren arrazoa hautabidezkoa izatea. Hau da, ugaltzeko asmo gutxiago duten bikote/emakumeek ezkontzaz kanpoko elkarbizitza

hautatzen dute legezko ezkontzaren aurretik, edo, Suediako gaurko egoeran, ez dute ezkontzaren bidez euren elkarbizitza legeztatzeko eragingarriak aurkitzen.

Suedia bezalako herrialde batetan, bestalde, semea nahiz alaba jaiotzerakoan ezkontuta izatea beharrezkotzat jotzen ez bada ere, ezin esan daiteke ugalkortasunaren eta egoera zibilaren arteko lotura desagertu egin denik. Suediako Ugalkortasunari buruzko 1981eko Txostenean adierazten denez, lehen semea edo alaba elkarbizitza egoeran izan zuten emakumeen %40ren hurrengo gertakizun demografikoa ezkontza izan zen, hots, bigarren semea edo alaba izan edota banandu baino lehen ezkontu egin ziren. Horrez gainera, argi geratu da haurdunaldia ezkontzari lotuta dagoela, euren bikotekidearekin bizi eta haurdun suertatzen diren emakumeek ezkontzeko lau bider ahalbide gehiago bait dituzte. Horrela bada, haurdunaldi edo jaiotza batek, sarritan, egoera zibilaren aldaketa dakar. Nolanahi ere, bikotea osotzen delako, gaur egun, ezin esan daiteke seme-alabak izateko asmoa dagoenik. Elkarrekin bizitzen hasten diren emakume eta gizonezko gazte gehienek seme-alabak izateko erabakirik hartu gabe abiatzen dira elkarbizitza horretara. Elkarbizitzak ez dakar berez jaiotzarik. Bikoteko harremana -gerora ezkontza bihur daitekeena ala ez- gauzatzea eta semea edo alaba izatea elkarloturarik ez duten erabakiak dira gaur egungo suediar gizartean.

**M**endealdeko beste herrialde batzutan bezalaxe, suediar familia aspaldian utzi zion produkzio unitatea izateari, aitzitik, kontsumo unitate bihurtu da. Alabaina, produkzioa ez da erabat desagertu. Lan aurrezkirako mekanismoak izan arren, eta lehen etxeetan egiten ziren hainbat gai dendetan eskuratzen badira ere, lan fisiko eta psikikoaren zati handi bat etxeetan egiten da oraindik ere. Etxeko lan (ordaindu gabea) hau emakumeek burutzen dute, gehien bat. Ohizko etxeko lan hauez gainera, emakumeek gero eta gehiago lan egiten dute etxetik kanpo ere. Eta horrenbestez, gizon langilea/etxekoandrea eredu ezaguna oinarritzat zuen famili sistema desagertu egin da eta haren ordez bi soldata-jasotzaile dituen familia dugu.

Emakumeak lan merkatuan gero eta gehiago agertzearen ondorioz izan al da aldaketarik familiaren sexu-roletan? Familiaren soziologoaren artean ideia bat nagusitu dela ematen du, hots, berdintasunean oinarritutako sexu-rolak eta sexu-rolaren konpartitzea bateraezinak direla familia ugarietara eta, agian, familia txikiekin ere bai. Horrela, berdintasunean oinarritutako bikoteek seme-alabarik gabe familia oso urriak izateko joera omen dute. Nire eritziz, ordea, berdintasunezko sexu-rolen eta jaiotze-eza nahiz murriztapenaren artean ez dago lotura zuzenik. Lotura bestelako ere izan liteke.

Suedian gero eta interes handiagoa nabari izan da senar eta aitek familiaren baitan erakusten duten jokabidea aztertzeko. Ikertzaile batek (Sandquist 1987) Suedian egin diren hainbat azterlanen emaitzak aipatuz, zera esaten du. "la conclusión de tales estudios normalmente destaca las desigualdades entre mujeres y hombres... pero el énfasis en las desigualdades que continúan puede oscurecer los importantes cambios que han tenido lugar". Ildo horretatik, Suedian denbora zertan ematen den aztertze oraintsu egin den azterlan batek erakutsi zuenez, "seme-alabak zaintzerako orduan, berdintsu aritzen dira gurasoak, baina etxeko lanei bagagozkio, sexu batek egin ohi ditu gehienetan". Suediako gizonezkoak sarritan baliatzen dira "aita izateagatik" dagozkien egunez -10 egun erditzea gertatzen denean; gurasoen %85ak eskatzen ditu egunok-, eta baita gurasoek seme-alabak aldi labur batez zaintzeko -semea edo alaba gaixorik dagoenean etxean gurasoetako bat egon dadin- eska dezaketen baimenaz ere, halako %45etan eskatzen bait dute berori; esan nahi bait da halakoetan amen antzera jokatzeko dutela. Gauzak honela, Suediako enpresa guztietan halako jokaera bat zabaltzen ari dela dirudi, hots, aita baten semea edo alabarenganako erantzukizuna haren lan erantzukizunaren gainetik dagoela. Harrigarria da, bestalde, gurasoen baimenen artean, rolen banaketa dakartenak oso erabiliak badira ere, ez dela gauza bera gertatzen rolen aldaketa edo inbertsioa dakartenekin. Gizonezkoek dagozkien egunen %5a besterik ez dute erabiltzen seme-alaba jaio on-

dorengo lehen bederatzi hilabetetan, orduan rolen aldaketa garbiagoa gertatzen bait da, hots, orduan aita gelditu beharko bait luke etxean amaren ordezkari jaio berria zaintzeko.

Familiako rolen banaketak edo aldaketak ugalkortasun tasekiko eraginik izango dutela uste izateko arrazoirik ba ote da? Zail da erantzuten, zeren eragina bi aldeekikoa izan bait liteke: batetik, emakumeek, esate baterako, 2 seme-alaba ez ezik 3 izan nahiko lukete, rolaren banaketak amatasuna eta lana bateratzeko aukera gehiago ematen du eta. Bestetik, gizonetakoek etxeko lanetan eta seme-alabak zaintzen denbora gehiago ematen duten neurrian seme-alabak (gehiago) izateko gogoia txikiagoa litzateke. Tamalez, gai honi buruzko esperientzia jakin gutxi ezagutzen ditugu. Hala eta guztiz ere, eta gizonetako suediarrek bai etxeko lanetan eta bai seme-alabak zaintzen ere beste herrialde batzuetakoek baino denbora gehiago ematen dutelako ustea aintzat harturik, Suedian nabari den jaiotze-indize handia ikusita, badirudi eragina positiboa dela.

Gaurko gizarte industrializatueta, orohar, ugalkortasunaren eta emakumeen lanaren arteko erlazioa negatiboa izan ohi da, baina ez dago horren argi zergatik gertatzen den. Argi dago, ordea, ugalkortasunak eragin negatiboa duela lan ihardueran parte hartzeari dagokionean, ama bihurtu berria den emakumeak berehala uzten bait dio lan iharduerari. Dena den, ondorio hau mugatua izan ohi da eta gero eta txikiagoa umea hazi ahala. Horrez gainera, enpleguak ugalkortasunean izan lezakeen eragina dela eta ez dela eztabaida askoz handiagoak izan dira. Orohar, etxetik kanpoko lan ordaindua erditzearekin eta seme-alaben hezierarekin bateratzeko ahaleginak hutsalak (edo ia hutsalak) suertatu ohi direnez, “beren lanbidean aurrera egiteko gogoia” duten emakumeek euren ugalkortasuna mugatzeko erabakia hartzen dute. Alabaina, denbora partzialeko lana eta seme-alabak zaintzeaz arduratzen diren zentro erakundetuak ugaritu direnetik, enpleguaren eta amatasunaren arteko bateraezintasun hori agian zertxobait arindu dela ematen du. Emakumezkoen ikuspegitik, berriz, lanaren eta amatasunaren arteko bateraezintasuna, funtsean, gizartean dauden egitura mugatzaileen eta horrenbestez ezkonduen arteko botere harremanen ondorio garbia dela esan genezake. Horrexegatik, egitura mugatzaileok aldaraz ditzaten herrialdeek ordezkari-mailara inguratu litekeen jaiotze-indizea lortzeko aukera gehiago izan lezaketela dirudi.

Lanbide-eskariak eta igurikapenak, oraindik ere, langilea etxea nahiz familiarekiko erantzunkizunik gabeko norbanakoa delako ustean oinarritzen dira. Hortaz, emakumeek/amek igurikapen hori betetzen ez dutenez gero, beren egoera egokitu beharrean aurkitzen dira. Denbora partzialez lan eginez, adibidez, edo familiaren neurria mugatuz, rol biak bateratu nahi izanez gero. Lan bizimoduaren baldintzak gizonetako langilearen erdurara eginak direnez gero, hots, famili erantzunkizunik gabeko (familia diruz hornitzea soilik) langile banakoaren erdurara, emakumeek ere, ekonomi produktioaren munduan sartuko badira, baldintza berberak bete behar dituzte. “Gizon bihurtzen badira”, etxeko lanak eta seme-alaben zaintza arintzeko gogoia izango dute haiek bezalaxe. Bestela, emakumeak ezin lehia daitezke. Gaur egungo lan merkatuan ez da ezkontza nahiz ugaltzearen bultzagarriarik, jakina. Horrexegatik, hain zuzen ere, ez da kasualitatea, salbuespen bitxitzat jo genezakeen Finlandiaren kasuan izan ezik, lan merkatuan emakumezko asko dituzten herrialde guztietan emakume horietako portzentaia handi bat denbora partzialeko lanetan ari izatea.

Soziologo amerikar batek, Suediako guraso langileengan 1968-81 aldian zehar nabaritako egoera-aldaketa aztertu zuenean, Suediako kultur inguruneak lana aitasuna/amatasunarekin bateratzen dutenei zirrarezko eta egiturazko euskarriak eskaintzen dizkiela antzeman zuen, eta euskarriok, egiturazkoak, batik bat, areagotuz joan dela gainera. Guzti honen ondorio izan liteke etxetik kanpo lan egiten duten amen artean nekakizun psikologikoa beherantz egitearen arazoia. Nolanahi ere, amek aitek baino nekadura, kantsakizuna eta tentsio psikologiko handiagoak ageri zaizkigu oraindik ere. Mendebal Europako jaiotzeen aldeko jokabideak direla eta arestian izan zen eztabaida batetan adierazienez, Suedian erditze-ondoko baimen zabal batez gozatzeko eskubidea (aitentzat ere baliagarria) sartu izana, aitasuna/amatasuna eta lanaren arteko konponezin hori arintzeko ahaleginetatik arrakasta izan duen bakarrenetakoa dugu. Hortaz, lan merkatuaren arloan gurasoentzat benetan onuragarria izan den politika bakarra Suediak moldatu duela esan daiteke.

Sexu-berdintasuna, sarritan, emakumeak gizonaren jokaerak bereganatzearekin parekatu da, ekonomikoki aktiboagoak izatearen aldetik, batez ere. Berdintasunezko sexu-roletan senarrek ha-

rrikoa gehiagotan egin edo seme-alabak sarriago zaindu ditzakete, baina aldetaren alderik iraultzaileena emazte eta ama diren emakumeek lan ihardueretan gero eta ugariago agertzen datza. Areago, emakumeak ekonomi arloan erabat integratu ez badira, gizartean alde aurretik egotzi izan zaien menpekotasuna gainditu beharregatik da. Sexuen arteko pitzadura itxi egin da emakumezkoek “gizonezkoen ohizko portaeraren” zenbait jokamolde bereganatu dituztenetik. Aitzitik, orohar, gizonezko rola, gaur egun agertzen den bezala, behinik behin, ez da baliagarria gizakiarentzat, ez bait ditu biltzen ez erditzea ez eta seme-alaben heziera. Ezin da orokortu, epe luzera populazioaren iraungipena ekarriko luke eta. Beraz, “sexuaren ziozko bereizkeriaren deuseztapenak” emakumezkoak gizonezkoak bezalaxe tratatzea baldin bada, norberaren kalterako estrategia bat daiteke populazioaren ugaltzeari begira. Mendebaldeko herrialdeen arazoa zera da, emakumezkoak gizonezkoen munduan sartu direla, baina alderantzizkoa ez dela gertatu, edo ez beharrezko neurrian, behintzat.

Ekonomilariak seme-alaben kostuei eta mozkinarti buruz eztabaidatzen dutenean, haiek zaintzen emandako denbora kostu gisa hartzen da, beste aukera batzu alde batera utzi behar bait dira, baina mozkinat ere har daiteke, zeren poztasun-bide oparoa ere izan daiteke eta. Beste modu batez esateko, seme-alabak izateak emandako atsegina, hein handi batez, haiekin emandako denborari zor zaio. Eta hau bai gizonezkoen eta bai emakumezkoen kasuan gertatzen dela ematen du. Hala ere, gaur egun gizarte mailan aitatasuna/amatasuna ulertzeko modua dela eta, gizonezko askok denbora gutxi ematen dute euren seme-alabekin. Suedian, agian ez da horrela gertatzen, edo mendebaldeko beste herrialde batzutan baino gutxiago, behintzat, baina, denbora partzialeko lana eskolaurreko seme-alabak dituzten emakumezkoen artean seme-alaba txikiak dituzten gizonezkoen artean baino de-xente gehiago hedatu dela kontutan harturik, Suedian ere, lehen gurasoa emakumea dela ematen du.

**L**abur esateko, Suedian abantail garbia izan da, hots, gobernuak onetsitako emantzipaziozko mugimendu iraunkorra. Eta berorren ondorioz, gizon eta emakumeen arteko nolabaiteko berdintasunaren ondoan ordezen-mailari inguratzen zaion jaiotze-indizea aurki dezakegu. Ez dago argi, baina, egungo inguruabarrak, osoko ugaltzea erdiesteko baliagarria gerta daitekeen ugalkortasun maila etengabe areagotzeko gauza izango diren. Jendea bere bizimodua ahalik eta hobereana izan dadin ahalegintzen da. Eta seme-alabak bizitza-kalitate hori lortzen laguntzen dutela esatea gustatuko litzaidake eta norbanakoaren eta taldearen interesen arteko gatazka gezurrezkoa dela ere bai. “Indarrean dauden inguruabarrak” nola aldatu?, galdera hau egin beharko genioke geure buruari, zeintzu diren inguruabarrok, norbanakoari seme-alabak ere, garrantziko osagai gisa, gainera, biltzen dituen bizimodu egokia erdiesteko eragozpenak ezartzen dizkien inguruabarrak, alegia.

Funtsezko alderdi bat, familiari egokitutako lan baldintza hobeak sortzeko beharrezkoan datza. Emakumezkoaren lanari dagokion rola ahul ageri zaigu familiaren eskakizunen aurrean. Senarren kasuan, alderantziz, lana eta familiaren tarteko muga iragankorra da: lanaren eskakizunak familiari zor zaion denboraren pentsura betetzen dira. Gizon eta emakumearen arteko osoko berdintasuna lortuko bada, rol biek simetrikoki iragazkorak izan beharko dituzte lanaren zein familiaren eskakizunei dagokienez. Eta hau jaiotze-indize hazkorrentzat ere mesedegarria suertatuko litzateke, egungo lehen mailako amatasuna eta bigarren mailako aitatasuna alboratuz, aitatasun/amatasun berdinagoa sortaraziko bait luke.

Zergatik da horren garrantzizkoa guzti hau? Jaiotze-indize urriei buruz eta horren aurrean egin daitekeenari buruz eztabaidatzen ari direnen artean, asko dira amatasunaren hobekuntza, aitatasun/amatasun arduratsua gizarte-mailan saritzatu beharra eta famili bizitza sendotu beharra aipatzen dituztenak. Nire eritziz, aitatasun aktiboa eta arduratsua sendotu beharra dago. Gizonezkoen seme-alabenganako ardura areagotuko balitz, emakumezkoentzat seme-alaben heziera eta lan ordaindua bateratzea errazagoa izateaz gainera, hurrengo belaunaldiko aiten joera psikiko positiboa ere sortu

liteke, amatasuna dela-eta emakumeen artean gaur egun antzeman daitekeenaren antzekoa, alegia. Holakorik gabe, seguruenik ez dugu ordezen-ugalkortasuna erdiesteko aukerarik izango. Gehienik ere, beherakada handiagoak geldiaraztea geratuko zaigu, Suediako egoeraren antzera. Amatasuna eta aitatasunari dagozkien gizarte erakundeen berregituraketa batek, Suedian burutzen ari dena bezalako lan baldintzen eraldaketarekin batera, gizon eta emakumezkoen arteko berdintasuna eta ordezen-ugalkortasuna aldi berean izateko aukera eskaini lezake. Nire ustez, Suedia bide onetik doa eta gainontzeko herrialdeek haren urratsei jarraitu beharko liekete.

## 1. TAULA. Ugalkortasuna eta Lan Ihardueretan parte hartzea Suedian

JAIOTZE URTEA	UGALKORTASUN	EMAKUMEEN PARTAIDETZA LAN			GIZONEZK.	EMAKUMEZKOEN - GIZONEZKOEN RATIOA (%)
	OROKORRAREN	MERKATUAN				
	TASAK	Guztira	Ezkonduak	Hurrekin		
1963	2,33	54,5	47,0		89,9	
1964	2,47	54,0			89,6	
1965	2,41	53,8	47,2		89,3	
1966	2,37	55,1	49,3		89,0	
1967	2,28	54,9	49,8		88,1	
1968	2,09	56,4	51,8		88,0	
1969	1,94	57,6	53,4		87,5	
1970	1,94	59,3	56,1	57,6	87,0	
1971	1,98	60,9	58,2	60,2	86,9	
1972	1,93	62,0	59,8	61,5	86,6	
1973	1,88	62,7	61,2	62,4	86,8	71,5
1974	1,89	65,2	63,6	65,5	87,5	74,0
1975	1,78	67,9	66,2	69,0	88,3	77,2
1976	1,69	69,1	67,7	70,4	88,6	79,7
1977	1,65	70,6	69,8	73,1	8,0	81,2
1978	1,60	72,1	71,8	75,5	87,6	79,6
1979	1,66	73,8	73,8	78,0	87,8	80,7
1980	1,68	75,1	75,6	80,5	87,7	81,5
1981	1,63	76,3	77,7	83,1	86,6	78,8
1982	1,62	76,9	78,9	83,9	86,3	78,1
1983	1,61	77,6	80,0	81,8	86,0	78,2
1984	1,65	78,2	80,9	82,9	85,6	80,0
1985	1,73	79,2	82,0	84,0	86,0	N.a.
1986	1,79	80,0	82,9	85,6	85,9	N.a.
1987	1,84	81,1	N.a.	85,0	85,7	N.a.
1988	1,96	81,8	N.a.	85,8	86,2	N.a.
1989	2,00					

**2. TAULA.** Bikotekako harremanez (ezkonduta nahiz ezkondu gabe) bizi den populazioaren portzentaia eta ezkontzaz kanpoko harremanetan portzentaia harreman guztiekiko, adinaren eta sexuaren arabera. Suedia, 1975, 1980 eta 1985. Erroldaren datuak

### GIZONEZKOAK

ADIN TARTEAK	EZKONTZA-HARREMANEN ETA EZKONTZAZ KANPOKOEN %			EZKONTZAZ KANPOKOEN % BIKOTEKO HARREMAN GUZTIEKIKO		
	1975	1980	1985	1975	1980	1985
20-24	26,9	23,3	21,3	70,8	80,5	86,2
25-29	61,6	55,4	50,5	35,5	50,7	61,4
30-34	75,0	71,9	66,6	14,6	25,8	36,6
35-39	79,0	76,9	74,0	7,6	13,9	22,3
40-44	79,8	78,0	76,5	5,5	8,9	14,6
45-49	78,9	78,1	77,0	4,6	6,8	10,8

### EMAKUMEZKOAK

ADIN TARTEAK	EZKONTZA-HARREMANEN ETA EZKONTZAZ KANPOKOEN %			EZKONTZAZ KANPOKOEN % BIKOTEKO HARREMAN GUZTIEKIKO		
	1975	1980	1985	1975	1980	1985
20-24	50,5	45,8	40,3	56,8	69,3	77,9
25-29	74,9	70,7	65,3	22,7	36,9	48,1
30-34	76,9	79,2	75,7	9,5	18,0	25,2
35-39	81,1	80,5	78,2	5,6	10,2	17,1
40-44	82,6	80,4	77,9	4,4	7,3	9,4
45-49	81,7	80,1	77,6	3,9	5,9	9,2

## **BIBLIOGRAFIA**

BERNHARDT, Eva (1988a). The choice of part-time work among Swedish one-child mothers. «European Journal of Population.» 4. lib. 2 zk., 117-144.

BERNHARDT, Eva (1988b). Fertility and Employment. Populazioaren Aldaketa eta Europar Gizarteari buruzko Simposium-erako idatzitako txostena, European University Institute, Florentzia, Italia, abenduak 7-10-.

BERNHARDT, Eva (1990). Women's emancipation and childbearing. Emakumeentzako Ekintza Positiborako Nazioarteko Batzarrean aurkeztutako txostena, Vitoria-Gasteiz, 1990eko ekaina.

GUSTAFSSON, Siv eta T. MEISAARI-POLSA (1990). Why does fertility in Sweden increase? Erentzako txostena, Arbetslivscentrum, Stockholm, 1990eko ekaina (ziriborroa).

HOEM, J.M. eta Brita HOEM (1990). Sweden's remarkable fertility increase. Demografia Saila. Stockholmeko Unibertsitatea, 1990eko abuztua (ziriborroa).

SANDQUIST, Karin (1986). Swedish Family Policy and Attempts to Change Paternal Roles. C. Lewis eta M. O'Brien (argit.) «Reassessing Fatherhood». Sage Publications, London.

SUNDSTRÖM, Marianne (1990). Parenting policies for young families in Sweden. Kalm eta Karmnerman (argit.) prestatzen: «New Developments in Parenting Policies», Columbia-ko Unibertsitatea.

# **EMAKUMEA, LANA ETA BIZTANLERIA AKTIBOA ESPAINIAN**

Montserrat Solsona Pairó

## Montserrat Solsona Pairó

Bartzelonako Unibertsitatean Ekonomi Zientzietan, Soziologia adarrean hain zuzen ere, lizentziatu ondoren, Txileko Santiagon dagoen Nazio Batuen Centro Latinoamericano de Demografía delakora joan zen Biztanleriari buruzko Gizarte Zientzien Maisutza burutu asmoz. Bartzelonara itzulitakoan, 1986ko irailean, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan kontratatu zuten sortu berria zen Facultat de Ciències Polítiques i Sociologian Demografiako irakasle laguntzaile bezala aritzeko. Harrez gero, Unibertsitate bereko Centre d'Estudis Demogràfics delakoaren ikerlari laguntzaile ere bada. Interesgarrienak suertatzen zaizkien gaiak hauexek dira: Herrialdeko demografi dinamika, ezkontzako jokaeren bilakaerak eta familiaren eraketa eta emakumearen ekonomi iharduera. Orain, "emakumea, lana eta herrialdeak espainiar estatuan" gaiari buruzko doktoretzako tesia egiten ari da. Izan ere, bere hitzaldia tesis de-ritzan ikerlan honen lehen emaitzetan oinarritzen da.

## HITZAURREA

H

itzaldi honetan zehar, ekonomi iharduera orokorrean emakumeari dagokion partaidetza azalduko da eta, hain zuzen ere, Espainiar Estatuko biztan-

leria aktiboari buruzko estatistika-iturriek neurtutakoa aipatuko dut. Lehenengo eta behin, ordea, iturriok neurtzen dutena zehaztu asmoz, estatistika ofizialetan biztanleria aktiboa mugatzeko erreferentziako paradigma osotzen duten erizpideak azalduko ditut labor-labor, erizpideok emakumezkoen ekonomi iharduera biltzerakoan duten eragina ere aipatuz.

Horren ostean, berriz, Espainiar Estatu osoan 1970etik hona emakumezkoen biztanleria aktiboak izan duen bilakaeraz mintzatuko naiz, famili zikloaren eta emakumearen lan-historiaren arteko erlazioan gertatu diren aldaketak, batez ere, aintzat harturik. Puntu honetan, Ugalkortasunari buruzko 1985eko Inkestaren ustiapen edo esplotazio bat - inkestaren zinta magnetikoak eskura izatearen ondorioz egin ahal izan dena- eta biztanleriaren ekonomi iharduerari buruzko azterlanetan gehien erabiltzen diren beste zenbait informazio-iturri hartu dira oinarritzat —Biztanle Zentsuak, Udalen Biztanle Erroldak eta Biztanleria Aktiboari buruzko Inkesta (BAI)—.

Azkenik, emakumezkoei lan ihardueran dagokien partaidetzaren bilakaerari buruzko probintziaz probintziako azterketatik abiatuta, emakumezkoen iharduera aztertzerakoan espazio-dimentsioa ere sartu beharraz mintzatuko naiz, zeren estatuko batazbestekoek erakusten dutenak lurraldeen arteko ezberdintasun itzelak ezkututzen bait ditu. Eta ildo honetatik, agian komenigarria litzateke zera aipatzea, Espainian lan merkatua aztertzeko iturri nagusitzat jotzen den Biztanleria Aktiboari buruzko Inkesta tresna erabilgaitz bihurtzen dela emakumezkoen iharduera lurraldeka aztertzeko, zeren probintziako tabulazioetan, 1976an hasi zirenak, emakumezkoen egoera zibila ere ez bait da jasotzen. Hirugarren atal honetako informazio-ekarpena, beraz, biztanle zentsuetatik eta udalen biztanle erroldetatik eratorri da. Ugalkortasunari buruzko Inkestari dagokionez, Komunitate Autonomoak ordez litzatekeen lagin baten bidez zertu zen, baina oraingoz ezin eskaini dezake lurraldekako emaitzarik, Rosario Galdosek aurkezpenean esan duen bezala, gaur azalduko bait ditut egiten ari den doktoretza-tesia deritzaion ikerketa baten lehen emaitzak.

## ERREFERENTZIAKO PARADIGMA ETA ESTATISTIKA-ITURRIAK

E

spainiar Estatuko eskualde ezberdinetan emakumezkoei lan ihardueran dagokien partaidetza alderatu nahi badu, delako azterketa halabeharrez joko du biztanleria

aktiboari buruz egin diren estatistika ofizialetara; nahiz eta biztanleria iharduera-kondizioaren arabera sailkatzerakoan erabilitako definizioak emakumeak gure gizartean burutzen duen lana behar bezala jasotzeko akatsez beterik dauden.

Ekonomi ihardueraren kontzeptu zabala aintzat hartuz gero -gizakien beharrezanean aurre egiteko behar diren ondasun eta zerbitzuen produkzio gisa ulertuz gero-, emakumearen produkzio-iharduera ez ezik, ugaltze-iharduera ere kontutan hartu beharko litzateke. Aitzitik, biztanleria aktiboa zenbartzeko erabiltzen den erreferentziako lan-eredua, gizonezko helduen ohizkoena izaten da, hots, nolabaiteko egonkortasuna duena eta etxetik kanpo, lansai osoz eta indarrean dagoen legeriaren araberrako soldata baten truke egiten dena. Horrela bada, biztanleria aktiboari buruzko estatistika ofizialetan ez da emakumezkoek egindako lanaren zati handi bat agertzen, Nazio Produktu Gordina delakoan ere haien lanaren emaitza jasotzen ez den bezalaxe.

Dauden estatistiketan, beraz, ezin jaso daiteke emakumeak ugaltze-arloan egiten duen lanaren zenbatespenik, beste arrazoi batzuren artean, etxeko lanaren izaera ekonomikoa ukatu egiten delako, nahiz eta , mikrosoziologiako hainbat azterlanek erakutsi duten bezala, familia askori ezinbestekoa zaion etxeoandreek egindako lan eskerga beren bizimoduari eusteko. Izan ere, dagoeneko eskuartean ditugu etxeko lanak produkzioan duen eragina neurtzeko egin diren zenbait ikerlan (Ruesga,

1988; Carrasco et al., 1990). Carrasco eta beste egile batzuren ikerlana Bartzelonan egin zen familiaren diru-sarreraren ikuspegitik, eta bere ondorioztapenetan zera azpimarratzen da, klase apalaren alokairuaren erdia, 400.000 pta.tan ezarri zena, etxeko lanari dagokiola, eta gainontzekoa diru-errentetatik (%30) eta zerbitzutan jasotako gizarte-alokairutik (%20) datorrela (Carrasco et al., 1988).

Famili laguntza gisa egindako lana, hau da, ordainketarik gabekoa, partzialki baino ez da jasotzen biztanleria aktiboari buruzko estatistika ofizialetan. Sarritan emakumezkoek eta helduek ez beste gizonezkoek, hots, umeek eta agureek egin ohi duten lan mota hau bigarren mailakotzat jo ohi da, familia barruan egiten direlako eta lanaz kanpoko harremanetan oinarritzen direlako; alokairupeko langileari, ordea, bere lanaren ordainez alokairu bat jasotzen duenetik gizarte-status bat aitortzen zaio. Familiari laguntzearen lan egiten dutenei, alderantziz, ez zaie halakorik aitortzen, eta gainera, biztanle aktiboak izango badira, asteko 15 ordu edo ohizko lan ihardunaldiaren heren bat, gutxienik, eman beharko dute bestelako lanetan, gainontzeko langileek horrelako beharkizunik ez izan arren.

Alokairupeko lanari dagokionez, bestalde, ez da kontutan hartzen emakumezkoek lan merkatuarekin duten lotura berezia eta, batez ere, ezkonduetako emakumearen kasuan, honek, etxeko mantenua gizonari leporatzen dion sexuaren arabera banaketa dela medio, rol bikoitzari erantzun behar bait dio, langile gisa eta ama eta emazte gisa, horrenbestez, lan merkatuarekiko lokarri ahulagoa duelarik. Eta guzti honen ondorioz, emakumeari egonkortasun gutxiko lanak, aldizkakoak, aldi baterakoak edo denbora partzialekoak eskaintzen zaizkio, eta bereziki ezkutuko ekonomiari dagozkionak.

Orain arte esandako guztia hala izanik ere, Estatistikako Nazio Erakundeak azken urteotan bai Biztanle Zentsuetan eta bai Biztanleria Aktiboari buruzko Inkestan sartu dituen aldaketak ikusirik, baikor samar ager gaitezke etorkizunari dagokionean (Solsona, 1989). Aurrerapen hauek badute zerikusirik nazioarteko forumetako eztabaidekin eta dagozkien erakundeek hartutako erabakiekin. Izan ere, Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LNE) 1982an emandako gomendioetan, besteak beste, adierazten da biziraupenerako lanari alokairupeko lanari bezalako begirunea zor zaiola eta hartan diharduten langileak dagokion herrialdearen biztanleria aktiboan sartu behar direla. Nazio Batuek, bestalde, Emakumearen hamarkada zela eta, 1985ean Nairobin egindako Konferentzian, herrialdeek beren Nazio Kontuetan etxeko lana sar zezaten ahaleginak egiteko konpromisua hartu zuten.

## **EMAKUMEZKOEN LAN IHARDUERAREN INTENTSITATEA**

**E**

makumezkoen iharduera baino ez dut aipatuko, zeren, gizonezkoen ihardueran ere aldaketak nabari badaitezke ere, aldaketa hauek lan merkatuarekiko loturaren

egutegiari dagozkio, gehien bat, eta ez gizonezkoen lan ihardueraren intentsitateari. Intentsitatea demografiari lotzen diot, hau da, aktiboa litekeen biztanleria osotzen duten gizonezkoak, dela lanean, dela lan bila, lan merkatuari lotzen zaizkioneko sarrera adierazi nahi dut intentsitatea diodanean. Egia da gizonezkoen iharduera-tasa orokorrak gutxitu egin zirela aztertutako aldian zehar; hortaz, 1970etik 1986ra bitartean, zentsuko datuen arabera, 16 urte edo gehiago zuten gizonezko guztien %81 aktibo izatetik, adin tarte bereberko gizonezkoen %70 aktibo izatera pasa zen. Baina gutxitze horren arrazoa zera da, ikasketak iraupen handiagoa izanik, lan iharduerari beranduago ekiten zaiolako eta jubilazioa aurreratzearen ondorioz, iharduera horri lehenago uzten zaiolako, bizitza aktiboa ere laburtu egin dela. Dena den, urte horien buruan, esan dezakegu gizonezkoen lan ihardueraren intentsitatea ez dela aldatu. Edo beste modu batez adierazteko, gizonezkoek ez dute etxeko lanen eta enplegu bat bilatzeko haleginen artean hautatzeko beharrik izaten, zeren, etxearen mantenua gizonari egozten dion lan arloko sexu-banaketak, tamalez, indarrean bait dirau gure gizartean. Alderantziz, baina, denok dakigun bezala, emazte batek etxetik kanpo lan egitea deliberatuz gero, gehienetan ihardunaldi bikoitza jasan behar izaten du.


Familiaren zikloari dagokionez, batzutan, etxean ume txikiak eta atso-agureak elkarrekin bizi direnean, hain zuzen, arreta eta zaintza berezia eskaini beharra dago eta emakumeen ihardunaldi edo lansaioko bikoitza oso nekoso izan daiteke. Horrexegatik, premiarik ez badago, behinik behin, emakumeak uko egiten dio etxetik kanpoko lanari. Eta uko egite hau klase apalenetan sarriago gertatzen da, bi arrazoiengatik, funtsean. Batetik, halako familiek etxeko lanaren ordezkari merkatuan ondasun eta zerbitzuak erosteko aukera gutxi izaten dutelako. Eta bestetik, giza-talde hauetako emakumeak ez direlako lanbide-motibazio batez lanean hasten, krisialdian familiaren kontsumo-mailari eusteko baizik; eta honek ere erakusten digu emakume hauek beren lekua etxean dagoela uste dutela. Nolanahi ere, gurasoek baino ikasketa-maila handiagoa duten belaunaldi berriek badute emakumearen egoera dela-eta gertatzen ari diren aldaketan berri, eta aldaketa hauen artean, etxetik kanpoko lana nabarmentzen da, jakina.

Atariko adierazpen hauek egin ondoren, emakumezkoen ekonomi ihardueraren intentsitateari buruzko zenbatespenak gutxienezko bat bezala hartu behar direla esan behar da, bai zentsuetan erabilitako lan definizioen mugapenengatik eta bai emakumezkoek beraiek nahiz haien senar edo lagunek lan horri ematen dioten balio eskasarengatik. Sarritan, emakumearen lana, familia barruan egindako lana denean, batez ere, familiaburuari ematen zaion "laguntza" gisa hartzen da eta ez gizonak egindako lanaren parekoa bait litzan. Horrexegatik, elkarriketaz gaitzesle egina denetik, Biztanleria Aktiboari buruzko Inkestatik ateratako zenbatespenak zentsuetakoak baino zertxobait handiagoak izatea espero daiteke, zentsuetan erroldaketa metodoa erabiltzen bait dute, hots, norberak sailkatu behar du bere burua aktibo edo ez-aktibo gisa.

Azken 20 urteetan garrantzizko aldaketa bat suertatu da emakumearen lan jokabidean, eta horrek zera adierazten du, familiaren zikloari lotzen zaizkion aldian aldiko erabakiak hartzerakoan (ezkontza, umeen jaiotzak...), emakumearen ekonomi menpekotasun-eza bermatu eta bere lanbide-arrakasta bultzatzera zuzenduak nagusituz doazela. Aldaketa hau 1970eko Biztanle Zentsuko eta Udalaren 1986ko Biztanle Erroldako zenbatespenak ikusita antzeman daiteke, hots, 1970etik 1986ra bitartean emakumezkoen iharduera tasa ia ehuneko berrogeitamar bat hazi dela erakusten bait dute: 16 eta 64 urte bitarteko emakume aktiboen eta adin horietako emakume guztien arteko zatidura ehuneko 20,2koa zen 1970ean eta ehuneko 33,74koa 1986ko hasieran.

Espainiar Estatu osoari dagokionez, 1970etik 1986ra bitartean emakumezkoen iharduera-tasan nabari den gehikuntza, emakumezkoen belaunaldi gazteenak lan egiteko joera handiagoa agertu dutelako gertatu da. Eta aldaketarik nabarmenena emakume ezkonduen, bananduen eta dibortziatuen artean ageri da, ezkondu gabeko emakumeen artean baino nabariago. Adinaren arabera iharduera-tasak aztertuz gero, lehenago lan iharduerari uzten zitzaioneko adinetan, eta sarritan behin betiko utzi ere, hau da, amatasunari dagokion adinaren erdiko urteetan izan dela aldaketarik sakonena ikus daiteke (ikus 1. irudia). Gauzak honela, emakume askok enpleguaren paradigma bereizle edo baztertzailea, hots, emakumeek famili bizitza ala lanbide bizitza hautatu beharra, gaitzeslearen aldeko erronka jo duela antzematen da.

**1. IRUDIA.** Espainia: Emakumezkoen iharduera tasak adinaren eta egoera zibilaren arabera. 1970/81/86




*Iturria:* Txostengileak berak egindakoa zentsu eta erroldetako datuetan oinarriturik.

Argibide gisa, har dezagun 25 eta 29 urte bitarteko emakumeen lan ihardueraren sarriera 1970ean eta 1986an, ezkonduena eta ezkondu gabekoena, hain zuzen. Lehengo datako zentsu-xehetasunek erakusten dutenez, ezkondu gabeko emakume guztien erdiak baino gehiago (%55 hain zuzen) aktibo bezala erregistratu ziren; 1986an, aldiz, talde honen hiru laurdenak. Ezkonduetako emakumeei dagokienez, berriz, hasieran %8 baino ez, 1986an, ordea, %40 inguru nola edo hala sartuta zeuden lan merkatuan. Eta 1986an, baita ere, lehenengoz, adin hauek emakume ezkonduen iharduerak 20 eta 24 urte bitartekoena bezalakoa ez ezik, goranzko kurba erakusten zuen bestearen aldean. Ugalkortasunaren beherakada dela eta, emakume hauek, ezkonduak izan arren, ama izateko erabakia geroratu egin dutela ere pentsa genezake, eta egia da, izan ere, azken urteotan nabari izan dela halako geroratze txiki bat amatasunaren batazbesteko adinari dagokionean, hala ere, Ugalkortasunari buruzko Inkestaren emaitzak ikusiz gero, lehen adierazitakoa ageri zaigu, hots, emakumeak ama iharduera eta lan iharduera batera burutzeko gero eta asmo sendoagoa duela.


Ugalkortasunari buruzko 1985eko Inkesta Espainian egin den halako bigarrena da. Lehena 1977an burutu zen ugalkortasunari buruzko ikerketa Egitarauaren barne, hainbat organismoen lankidetzaz (Nazio Batuak, Estatistikako Nazioarteko Erakunde eta Biztanleriaren Ikerketa Zientifikorako Nazioarteko Elkarte) Ugalkortasunari buruzko Munduko Inkesta burutu zelarik. Zortzi urte geroago, INE (Estatistikako Nazio Erakunde) delakoak adin ugalkorra zuten emakumeen erantzunak, ezkonduen nahiz batutakoen zein ezkongabeenak, biltzen zituen Ugalkortasunari buruzko Inkesta berria egin zuen. Galdeketa oso zabala erabili zen ugalkortasuna zein ezkontzak aztertze informazioa jaso eta, era berean, aurikuspenak egiteko eta aztergai berbera darabilten nazioarteko erakundeei datu zehatzak eskaintzeko. Inkestaren atal batetan, halaber, elkarrizketatutako emakumeen lanbide-gorabeherak eta inkesta egin zeneko unean zuten lan egoera ere biltzen dira. Familiaren zikloa eta lanbide-gorabeheren arteko lotura aztertzerakoan, hain zuzen ere, hurrengo galderak egin dira: 1.- Izan al duzu lanik lehenengo ezkontza edo batzea egin aurretik? (602. galdera), 2.- Lehenengoz ezkondu edo batu zinenetik lehen seme edo alaba izan bitartean lan egin al zenuen? (605. galdera), 3.- Lehen semea edo alaba jaio ondoren lan egin al zenuen? (606. galdera). Behin gutxienez ezkondu edo batu diren eta semea edo alabaren bat izan duten emakumezkoen egindako hiru galdera hauen bidez, zortzi bizi-ibilbide ezberdin mugatu ahal izan ditut familiaren zikloko une ezberdinetan lan egin den ala ez kontutan hartu eta konbinazioak eginez (ikus 2. irudia eta 3. irudia).

**2. IRUDIA.** Adinez ugalkorrek diren eta seme-alabak dituzten emakume ezkondu nahiz batuen lanbide-historia eta famili zikloa lotzen dituzten ibilbideak lortzeko erabilitako galderak. Espainia 1985



*Iturria:* Txostengileak berak egindakoa, Ugalkortasunari buruzko 1985eko Inkestan Lanbide-Historiari eskeinitako 6. Atala oinarritzat harturik.

**3. IRUDIA.** Adinez ugalkorrek diren eta seme-alabak dituzten emakume ezkondu nahiz batuen lanbide-historia eta famili zikloa lotzen dituen ibilbideak. Espainia 1985



*Iturria:* Txostengileak berak egindakoa, Ugalkortasunari buruzko 1985eko Inkestan Lanbide-Historiari eskainitako 6. Atala oinarritzat harturik.

3. irudian agertzen denez, familiaren osakerari dagokion lehen fasearen etapa ezberdinetan -ezkondu aurretik, ezkondu ondoren lehen semea edo alaba izan bitartean eta lehen semea edo alaba izan ondoren- emakumearen lan ihardueraren araberako zortzi ibilbideak ahalbide-multzo bat osotzen dute, beti lan egin duten emakumeengandik hasi (1. ibilbidea) eta inoiz lan egin ez dutenengan (8. ibilbidea) amaitu arte. Gehienak lan-ibilbide iraunkorrak dira, hots, behin lan iharduerari utzi ondoren, emakumeak ez dira birlaneratzen, ez familiaren zikloko fase honetan zehar, behinik behin. Iraungabeko ibilbideetan, ordea, iharduerari uzteari berrekitea dagokio gerora, hauxe litzateke, esaterako, ezkongabe den bitartean lan egin duelarik, ezkondukoan enpleguari utzi eta lehen semea edo alaba izan ondoren birlaneratzen den emakumearen kasua (ikus 3. ibilbidea).

Prozedura honen bidez erdietsitako emaitzak oso interesgarriak direla uste dut. Batetik, zeintzu diren ibilbide nagusiak eta zeintzu horren garrantzizkoak ez direnak mugatzeko beta ematen du. Bestetik, zinta magnetikoarekin zuzenean lan eginez, informazioaren ustiapen edo esplotazioa, emakumearen egoerari ikutzen dizkioten arlo honetako aldaketa berriak jasotzeko, edo beste modu batez esanda, belaunaldi ezberdinek nola bateratu duten ugaltze-lana eta etxetik kanpoko lana antzemateko gauza izateko moduan atondu da. Ikus ditzagun zifrak eta atera daitezkeen ondoriozta-penak (ikus 1. taula).

**1. TAULA.** Ezkonduak nahiz batuak izanik seme-alabak dituzten emakumezkoen banaketa, beren lanbide-ibilbidearen arabera (%tan). Aukeratutako belaunaldiak

BELAUNALDIA	1940-44	1955-59	1935-66
1985eko ADINA	40-44	25-29	18-49
<b>IBILBIDEA</b>			
1	23,0*	38,2*	28,8*
2	3,6	7,7	4,7
3	7,4	4,6	6,6
4	33,0*	25,0*	30,0*
5	1,7	1,0	1,6
6	0,0	0,6	0,2
7	3,5	2,6	3,2
8	27,8*	20,3*	24,9*
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

\* Ibilbide nagusiak

*Iturria:* Leticia Suárezek, Montserrat Solsonak eta Rocío Treviñok osotutako Centre d'Estudis Demogràfics deritzanaren lantaldeak. Ugalkortasunari buruzko 1985eko Inkestaren zinta magnetofonikoa oinarritzat harturik, emakumezkoen iharduerari buruz egindako azterlana.

1. taulako hirugarren zutabearen, aztertu den emakume-taldeari dagozkion lagineko emakume guztien, hau da, noizbait ezkondu edo batu eta seme-alabaren bat izan dituzten eta laginaren ehuneko 60a jotzen duten emakume horien lanbide-ibilbideak agertzen dira sailkatutik. Emakume-talde honetan 5.390 emakume sartzen dira, adin ugalkorreko emakumea guztiak, hots 18 eta 49 urte bitartekoak 8.782 diren bitartean, guzti hauei egin zitzaielarik Ugalkortasunari buruzko 1985eko Inkesta; gainontzeko emakumeak, beraz, ezkongabeak ziren edo noizbait ezkondu nahiz batuak izanik ere, elkarrizketa egin zen unean ez zeukaten seme-alabarik. 1. taulan, halaber, aztertutako emakume-

talde horretakoak izanik, gerrate-ondoan jaiotako (1940-44 belaunaldiko) emakumeen lanbide-ibilbideen banaketa eta hirurogeigarren hamarkadako jaiotze-berpizte eta ugaritzea hasi aurretik, hain justu, hau da, 1950etik 1955era bitartean jaiotako emakumeena agertzen dira (1. taula: lehen zutabea eta bigarrena, hurrenez hurren). Belaunaldi bion jaiotzaren arteko denbora, aski da, hirurogeigarren hamarkadaren amaieran sortu eta hirurogeitamargarren hamarkadan, hau da, belaunaldi gazteeneko emakumeak lanean hasteko eta handik lasterrera ezkondu eta familia osotzeko gertu zeuden garaian, mugimendu feministek bultzaturik, Espainian emakumearen egoera sozial eta familiartekoa nola eta zenbateraino aldatu den neurtzeko.

Aztertutako belaunaldi guztiak harturik nahiz aukeratutako bi belaunaldiak harturik, ibilbiderik arruntena 4gna, 1goa eta 8gna direla ikus daiteke, alabaina, garrantzi ezberdina dute kasu bakoitzaren arabera. Belaunaldi guztiak kontutan hartuz gero (ikus 1. taulako hirugarren zutabea), emakume guztien ehuneko 30 (1.615 emakume) 4. ibilbideari atxeki zitzaizkiola ikusten da, ezkondu aurretik lan egin zuten eta ezkondukoan lanari utzi zioten emakumeak, alegia. Lan iharduera iraunkorra adierazten duen 1. ibilbidea, bestalde, aurrekoari erabat hurbiltzen zaio, aztertutako taldeko emakumeen ehuneko 29 biltzen bait ditu (laginaren 1.549 emakume). 8. ibilbidea aurrekoaren aurkakoa da, aztertu ziren familiaren zikloko etapetako batetan ere ez zutela lanik egin adierazi zuten emakumeak biltzen bait ditu. Emakume hauek, beren burua etxekoandretzat dutenak, aztertu den taldeko emakumeen laurden bat (1.344 emakume) biltzen dute belaunaldi guztiak kontutan harturik.

Gerrate-ondoan jaiotako emakumeen nondik-norakorik arruntena 4. ibilbidean isladatzen da: lanean ihardun zuten ezkondu arte, eta gero behin-betiko utzi zioten lanari. Bigarren tokian lanbidez etxekoandreak direnak ditugu, eta hirugarrenean lanean etenik gabe ihardutakoak (1. ibilbidea). Berrogeitamargarren hamarkadaren bigarren erdiko belaunaldiak egoera arras ezberdinaz ageri zaigu: ehun emakumetatik ia 40 lanari utzi gabe ezkondu eta erditzen dira. Laurden batek, berriz, ezkongabeak zirela baino ez zuen lanik egin, eta bosten batek sasoi horretan ere ez zuen etxetik kanpoko lanik izan. Belaunaldien arteko diferentziak, beraz, nabarmenak dira.

Ondorioak ateratzerakoan, zera aipatu behar da: 1) Bizitza osorako etxekoandrea delako eredu inoiz ez dela orokorra izan, 2) ezkondu aurretik lan egin ez duten emakumeek gerora lan egiteko posibilitate gutxi dituztela. Aztertutako emakume-taldearen erantzunen arabera, horietako %5 besterik ez dira aukera hori izan dutenak, eta 3) ezkondu aurretik lan ihardueraren bat izanik, ezkontzeagatik nahiz seme-alabak jaiotzeagatik lanari uzteko joera handiagoa nabari zaie gerrate-ondoan jaiotako belaunaldikoei 1955-59 urteetan jaiotakoei baino (%65 eta %49, hurrenez hurren). Hortaz, 1950az geroztik jaiotako emakumeek, 1955etik 1960ra bitartean jaiotakoek hain zuzen, 5, 10 edo 15 urte lehenago jaio zirenek baino askoz ere sarriagotan garatu dute lanbide osoko eta etenik gabekoa familia osotzen ari ziren bitartean. Horrela bada, berrogeitamargarren hamarkadako belaunaldia nabarmentzen zaigu aldaketaren belaunaldi gisa. Esan daiteke, hala ere, belaunaldi honetako emakumeek zenbait aurrerapenez baliatzeko aukera ere izan dutela, etxeko lanetan eman beharreko denbora asko laburtu duten aurrerapen teknikoez, esate baterako; aldi berean, goimailako hezkuntzari heltzeko aukera gehiago ere izan dute, eta demokraziaren garaian hirugarren sektorea eta, bereziki, sektore publikoa hedatu direnetik, emakumezkoen eskulanari zuzendutako eskaria ere gehitu egin da.

## **NON ETA NOLA LAN EGITEN DUTE EMAKUMEAK?**

**E**

makumeak ekonomiaren erazko sektorearen lan ihardueran, hau da, estatistika ofizialetan jasotzen den lanari gutxi gorabehera dagokion lan ihardueran gero eta

sartuago daudenez gero, bidezkoa da galdetzea zernolako baldintzez laneratzen diren emakumeek. Emakumezkoen dagokien biztanleria aktiboaren egituran izandako aldaketei buruzko hainbat az-

terlanek erakusten dutenez, gero eta handiago den lan merkaturatze honen ondoan ez da sexua-  
rengatiko lan bereizkeriaren deuseztapen edo murrizketarik antzematen (Casas, 1988; De Miguel,  
1988).

Edozein adinetakoak izanik ere, gizonetzkoek emakumezkoek baino tasa handiagoak zituzten bai  
1970ean eta baita 1986an ere, eta ezberdintasun hori are nabarmenagoa da gizon eta emakume  
ezkonduen artean ezkongabeen artean baino. Ikasketa-mailan gora egiten dugun neurrian gizonetz-  
koen eta emakumezkoen lanerako joerak parekatuz doaz, baina gizonetzkoak, beti ere, enplegua  
lortzeko askoz ere aukera gehiago ditu. Ikasketa-maila guztietan, halaber, emakumezkoen langabezi  
tasa gizonetzkoena baino handiagoa da, beheengo mailetan izan ezik, halako emakumeek "etsitako  
langabezia" deritzana osotzen bait dute, eta etxeoandre gisa agertu eta ez langabetu edo lan bila ari  
direnak bezala. Biztanleria landuna sexuaren eta produkzio-sektoreen arabera aztertuz gero, erabat  
bereizitako lan merkaturatua agertzen zaigu: lana duten emakumeak zerbitzuen sektorera biltzen dira,  
sektore honetan, gainontzekoetan ez bezala, bi langiletako bat, ia ia, emakumezkoa delarik. Gai-  
nontzeko sektoreetan, ordea, gizonetzkoak baino askoz ere gutxiago dira emakumeak. Hortaz, in-  
dustriari, adibidez, emakumezkoak adar jakin batzutara biltzen dira, hots, elikagaien industriari eta  
ehungintza, larru, oinetako eta jantzigintzara, hain zuzen. Lanbideok etxean egiten duten lanaren  
islada izan ohi dira. Emakumeak, erizain, sukaldari, zerbitzari, neskame, irakasle, administrari eta  
antzeko lanbideetan aritzeko kontratatzen dituzte. Gaur goizean, adi-adi entzun diot Eva M. Bern-  
hardt-i Suedian ere hala gertatzen dela adierazi digunean. Kezkagarria deritzot, herrialde horretan  
aspaldidanik gizarte berdintsuagoa lortzeko ahaleginak egiten dihardutela aintzat harturik.

Lan-bereizketa hori lanbide-kategoriari eta jasotako soladatei erreparatuta ere nabari daiteke.  
Lanbide batzutan izan da aurrerapenik, profesionarien eta teknikarien artean kasu, hauen artean  
emakumeen presentzia gero eta handiagoa antzematen bait da, alabaina, hori gizarte klaseen halako  
birmoldatze bati esker gertatu dela esan genezake, eta ez emakumea lanbide-egituran hobeto kokatu  
edo lekutu delako. Izan ere, biztanleria aktiboaren ikasketa-mailan izandako gorakada eta, batez ere,  
lan harremanetan eragindako aldaketak direla medio, larogeigarren hamarkadan zehar gizartearen  
egitura aldatu denetik, alokairu edo soldatapeko langile finko gutxiago dago eta, aldi berean, hala  
aldi baterako soldatapekoak, autonomoak eta kooperatibakideak, nola profesionariak eta teknikariak  
ugaritu egin dira. Dena den, prestakuntza berbera izanez gero, emakumezkoak gizonetzkoak baino  
beheragoko lan kategoriaz lan merkaturatzen dira. Zuzenbide Fakultatean, esate baterako, ikasle  
guztien ehuneko 51 emakumeak dira, epaileen artean, aldiz, emakumeak ehuneko 35 besterik ez dira.  
Beste alde batetik, emakumeek gizonetzkoek baino soldata urriagoak jasotzen dituzte lan berbera egin  
arren.

Legeak sexuarengatiko bereizkeria debekatu ondoren, 1980an, sexua delako aldagaia Alokairuei  
buruzko Inkestatik atera eta, horrenbestez, arazo honi buruzko estatistika ofizialik ez daukagun arren,  
denok dakigu bereizkeria horrek bizirik dirauela. Eta ez zeharkako bereizkeria soilik, hau da, ema-  
kumeak soldatarik urriena jasotzen dituzten lanbideetara egokitzen dituen; zuzeneko bereizkeria  
ere, hots, emakumei gizonetzkoek egindako lan berbera egitearren haiei baino gutxiago ordaintzean  
datzan bereizkeria nonnahi ikus bait daiteke. Eta adibide ezagun bat azaltzekotan, gogora dezagun  
Fiat multinazionalak Barberà del Vallés-en duen Jaeger enpresan lan egiten ari ziren ehun emaku-  
meek, joan den urteko maiatzean, euren lan kategoria berbera zuten 309 gizonetzkoen aldean jasaten  
zuten bereizkeria deuseztu asmoz egindako greba, hauek hileroko 9.000 pta. gehiago kobratzen bait  
zituzten "jarraikotasun-plus" gisa. Gogora dezagun, halaber, azken finean enpresak gizon eta  
emakumezkoen soldata-parekidetasuna onartu behar izan zuela. Eta atal honi amaiera emateko,  
Biztanleria Aktiboari buruzko Inkestak etengabe eskaintzen dituen datuek erakusten dutenez, den-  
bora partzialeko lanei eta aldi baterako kontratuei bagagozkie ere, emakumezko biztanleria landu-  
naren artean gizonetzkoenaren artean baino eragin handiagoa dute, luzaroko langabeziarekin ger-  
tatzen den bezalaxe.

## **EMAKUMEZKOEN LANA ESPAINIAKO ESKUALDE EZBERDINETAN. MAILAK ETA JOERAK**

# E

makumezkoen lan ihardueran eskualdez eskualde somatzen diren diferentziak aztertzerakoan, Komunitate Autonomoen informazioa erabili beharrean, probintzie-

tzietako datuetara jo dut, zeren sarritan, Komunitate Autonomo berberekoak izan arren, probintzietan jokaera bereziak antzematen bait dira.

1970ean, emakumezkoen iharduera-maila arras ezberdinak ageri ziren probintzien arabera. Hirurogeitamargarren hamarkadaren amaieran argitaratu zen Lourdes Beneriaren azterlan batetan azpimarratzen zenez, hamarkada horren hasieran, nekazaritza eta industria arloko probintzien artean, edo hiri eta baserrien artean ez ezik, multzo berbereko probintzien artean ere ezberdintasunak ageri dira, eta ezberdintasunok hala ordaindutako produkzioari, nola emakumezkoek egindako lan-motari dagozkio. Emakumeak nekazaritzan duen partaidetzari dagozkion diferentzia nabarmenak, lurraren jabetza-sistemari, habitat delakoa bildua edo sakabanatua izateari eta eremu jakin batetan nagusi den lantze-motari lotzen zaizkiela ematen du. Errentarik handiena edota industria gehien duten eskualdeetan, bestalde, ordaindutako produkzioan emakumezkoek dagozkien partaidetza ere ezberdina da probintzien arabera, nahiz eta ezberdintasun hori nekazal zonaldeetako baina txikiagoa izan. Zerbitzuen sektorea eta, bereziki, turismoa ustiatzen dituzten probintzietan, berriz, Mallorkan eta Gironan, adibidez, partaidetza-tasa handiak ageri dira emakumezkoen artean. Zonalde industrializatuenei dagokienez, bestalde, Katalunian Euskal Herrian baino tasa handiagoak daude, Kataluniako industria arinek, ehungintza kasu, Euskal Herrian nagusi den industria astunak baino emakume gehiago enplegatzeke joera bait dute (Beneria, L., 1977, 48-54 orr.).


Probintziakako iharduera tasei dagokienez 1970ean zeuden ezberdintasunak 1. mapan agertzen dira. Mapa horretan ikus daitekeenez, sasoi hartan, probintzia gehienetan, 16 eta 64 urte bitarteko ehun emakumetatik hogeitau gutxiago zuten aktibotzat euren burua. Madrilan, Mediterraneo aldeko bost probintzietan (Bartzelona, Girona, Castelló, Valentzia eta Balear Irlak), eta Penintsularen Iparraldeko zortzi probintzietan (Nafarroa, Araba, Gipuzkoa, Cantabria, Leon, A Coruña, Lugo eta Pontevedra) ageri ziren ehuneko hogeitik gorako tasak, hots, estatuaren batzbestekoa baino handiagoak. Kasurik nabarmenena Lugo probintziarena litzateke, adin aktiboa zuten ehun emakumetako berrogeitamar baino gehiagok aktiboak zirela adierazi bait zuten. Egoera honek gizonezkoen emigrazio-tasa handiekin eta habitat sakabanatuarekin zerikusia du, baina, batez ere, nekazaritzako famili ustiapenei lotzen zaie, horiek iraungo badute, emakumearen lana ezinbestekoa bait da. Lugo alde batera utzirik eta gehieneko tasa erakusten duten probintziei erreparatuz gero, Pontevedra eta Bartzelonako tasa (%28) gutxienezkoa duen Ciudad Realekoa (%9) baino hiru bider handiagoa dela ikus daiteke. Hamabost urte beranduago ere, 20 puntutako ezberdintasuna ageri da gehieneko tasaren, orain Gironakoa (%40), eta gutxienezkoaren artean, Cuencakoa (%19); baina, 1986an, lehena bi bider bigarrena baino ez da (ikus 2. mapa). Beraz, 1970etik 1986ra bitartean lurraldeen arteko diferentziak gutxitu egin direla esan dezakegu. Bitarte horretan zehar, halaber, Lugon izan ezik, gainontzeko probintzia guztietan hazi zen emakumezkoen iharduera-tasa. Eta Lugon, zergatik ez? 1970ean erdietsitako mailatik gora joatea ezinezkoa ote zaio? Ez, Lugoko tasaren bilakaera nekazaritzan diharduen emakumezkoen biztanleria aktiboaren egitura zahartuari zor zaio. Denboraren poderioz, belaunaldi gazteenak nagusien tokia bete eta nekazaritzan lan egiteari uko egiten dioten neurrian, emakumezkoen biztanleria aktiboa urrituz doa.

Emakumezkoen iharduera tasak (16-24 urte). Probintziakako datuak. 1970 eta 1986

1. Mapa 1970



2. Mapa 1986




*Iturria:* Txostengileak berak egindakoa zentsu eta erroldetako datuetan oinarriturik.

1986ko mapan ikus daitekeenez, lau probintzia (Badajoz, Jaen, Ciudad Real eta Cuenca) baino ez dira ehuneko hogeitik beherako tasekin agertzen, azkena Cuenca delarik (ikus 2. mapa). Probintzia gehienetan, ordea, adin aktiboa zuten ehun emakumetarik hogeitik hogeitamarrera adierazi zuten aktiboak zirela. Beste alde batetik, 1986an ehuneko hirurogeitamarretik gorako tasak erakusten zituzten eskualdeak 1970ean ere ongien zeuden berberak dira, gutxi gorabehera; dena den, aldaketa eta ez-agertze batzu aipatu behar dira. Lehen postuetan, dagoeneko, ez dira Leon, Ourense eta Pontevedra agertzen, hein batez Lugon ere gertatutakoagatik. Orain iharduera-tasarik handienak erakusten dituzten eskualdeak Galiziako iparraldean, Balear Irlatan eta Madrilen kokatzen dira, Mediterraneo aldean, Gironatik Alacanteraino eta Ebro ibaiaren inguruan, Euskal Herritik Tarragonaraino (ikus 2. mapan ilunen agertzen diren probintziak). Hortaz, Lleida, Tarragona, Alacant eta Zaragozaren agerpena aipatu beharra dago. Badago, beraz, halako koerlazio bat emakumezkoen ihardueraren 1986ko maparen eta biztanle bakoitzeko Barne Produktu Gordina edo BPGren hazkunde tasa bezalako aldagai makroekonomiko batetik abiatu eta 1986aren inguruan molda litekeen eskualdeen ekonomi garapenari buruzko maparen artean; azken honetan, Kantauri itsasertzeko eskualdeen ekonomi beherakadaz gainera, espainiar ekonomiaren ardatza Ekialderantz desplazatu dela eta penintsularen barrualdean, Madrilen izan ezik, beheranzko joera etengabea nabari dela ikusenezakeelarik (ikus Papeles de Economía 34, 1988 delakoaren hitzaurrea).

Emakumezkoen iharduerari dagokionez, probintzia bakoitzean nabari den bilakaera eta joera zehazkiago agertarazteko 4. irudia prestatu dut, berorretan probintzia bakoitzaren iharduera erakusten da Espainiako batzbestekoaren arabera eta gainontzeko probintzietako ihardueraren arabera, aztertutako aldiaren hasieran eta amaieran, eta baita probintzia bakoitzeko tasak 1970etik 1986ra izandako hazkunderen zenbaterainokoa. Hortaz, 1970etik 1986ra bitarteko emakumezkoen iharduerari buruzko batzbesteko tasen araberrako diagraman Espainiari dagokion kokapena mugatzen duten koordenatuek lau koadrantetan banatzen dituzte probintziak. Aipatutako bi data horietan Espainiarena baino tasa handiagoak zituzten probintziak I. koadrantean agertzen dira, hau da: Lugo, Girona, Bartzelona, Valentzia, Castelló, Balear Irlak, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Madril. II. koadrantean, berriz, Pontevedra, Leon, Santander eta Castelló ageri zaizkigu, hots, 1970ean lehen postuetan zeuden arren, 1986an estatuko batzbestekoaren azpitik aurkitzen zirenak. Gainontzeko koadranteetan, III eta IV.ean alegia, 1970ean ehuneko hogeitik beherako tasak eta estatuko batzbestekoaren azpitik zeudenak agertzen dira. Hauetako gehienek, 1986an ere, Espainiako batzbesteko tasa baino tasa txikiagoak zituzten (ikus III.koadrantea), baina badira hamabost urte hauetan zehar euren egoera hobetu duten zenbait probintzia. Probintzia hauek, Lleida, Tarragona, Alacant eta Zaragoza, alegia, IV. koadrantean agertzen dira eta lehenago aipatu dugun bezala, 1986an emakumezkoen eta lan merkatuaren arteko lotura sendoagoa erakusten dute, I. koadranteako eskualdeek bezala, alegia. Hala eta guztiz ere, ez da ahanzi behar emakumezko aktiboak, emakumezko landunak ez ezik, lanik gabe izanik lanean iharduteko gertu daudenak ere badirela. Horrela bada, aztertzen ari garen iharduera tasak, lan merkatuarekiko lokarria baino gehiago, lanarekiko jarrera bat erakusten duela iruditzen zait. Esan nahi bait dut, emakumezkoen iharduera aztertzerakoan, ezinbestekoa dela haren bi osagaiak kontutan hartzea, hots: lan iharduna eta langabezia, azken honi arreta berezia eskainiz.

**4. IRUDIA.** Emakumezkoen iharduera tasen bilakaera 1970-1986.  
 Probintziakako datuak (16-64 urte, %kotan)



1 = ARABA	11 = CADIZ	21 = HUELVA	31 = NAFARROA	41 = SEVILLA
2 = ALBACETE	12 = CASTELLON	22 = HUESCA	32 = ORENSE	42 = SORIA
3 = ALACANT	13 = CIUDAD REAL	23 = JAEN	33 = ASTURIAS	43 = TARRAGONA
4 = ALMERIA	14 = CORDOBA	24 = LEON	34 = PALENTZIA	44 = TERUEL
5 = AVILA	15 = A CORUÑA	25 = LLEIDA	35 = LAS PALMAS	45 = TOLEDO
6 = BADAJOZ	16 = CUENCA	26 = ERRIOXA	36 = PONTEVEDRA	46 = VALENTZIA
7 = BALEAREAK	17 = GERONA	27 = LUGO	37 = SALAMANCA	47 = VALLADOLID
8 = BARTZELONA	18 = GRANADA	28 = MADRIL	38 = TENERIFE	48 = BIZKAIA
9 = BURGOS	19 = GUADALAJARA	29 = MALAGA	39 = KANTABRIA	49 = ZAMORA
10 = CACERES	20 = GIPUZKOA	30 = MURTZIA	40 = SEGOVIA	50 = ZARAGOZA

Oharra: Probintziak autoen matrikula-ikurren bidez adierazten dira.

*Iturria:* 2. taula.

**2. TAULA.** Emakumezkoen iharduera tasa Egoera Zibilaren arabera (16-64 urte).  
Probintziakako datuak. (1970 / 75 / 81 / 86)

	1970			1975			1981			1986		
	Gutzira	Ezkong.	Ezkond.	Gutzira	Ezkong.	Ezkond.	Gutzira	Ezkong.	Ezkond.	Gutzira	Ezkong.	Ezkond.
ARABA	21,29	58,00	4,97	24,18	63,04	8,80	28,95	60,17	16,69	35,41	57,56	25,00
ALBACETE	10,93	31,06	2,51	11,98	32,89	3,41	20,49	49,77	8,40	23,13	49,23	11,21
ALACANT	19,43	55,65	6,30	21,02	60,13	7,61	26,72	61,65	14,74	32,27	59,80	21,68
ALMERIA	10,03	22,70	4,22	16,22	29,81	10,31	20,53	37,45	14,51	29,88	51,05	21,67
AVILA	13,91	31,69	4,43	13,99	35,06	3,55	17,36	39,55	6,59	20,93	41,00	10,82
BADAJOS	11,56	27,89	3,08	10,75	26,53	3,08	16,07	36,64	6,71	19,28	39,44	9,82
BALEAREAK	22,34	51,31	11,59	26,27	57,75	15,41	33,37	59,98	24,38	37,74	56,39	29,91
BARTZELONA	28,29	72,19	11,44	35,45	73,66	22,38	33,87	65,79	23,02	38,65	59,15	30,09
BURGOS	17,37	42,69	3,68	19,26	46,12	6,00	24,45	48,97	12,11	29,05	46,82	19,87
CACERES	11,99	29,40	3,07	12,96	30,75	3,90	20,40	43,90	9,75	21,84	41,88	12,73
CADIZ	11,16	28,72	1,96	12,80	33,38	3,30	17,89	41,71	7,68	23,18	46,60	12,01
CASTELLON	24,49	54,45	13,27	23,21	55,82	12,23	26,60	56,57	16,96	30,21	52,60	22,11
CIUDAD REAL	9,24	23,76	2,25	9,71	25,23	2,69	15,78	38,12	5,85	19,22	43,07	8,13
CORDOBA	15,16	34,80	5,32	15,75	33,32	7,17	21,78	45,27	10,82	28,92	50,00	19,05
A CORUÑA	27,14	45,56	16,59	26,08	45,23	16,76	31,78	46,77	25,54	32,84	43,95	28,03
CUENCA	11,47	28,39	4,05	10,73	27,83	3,36	17,04	38,99	7,72	18,78	38,45	9,76
GIRONA	27,46	61,82	15,51	29,37	62,24	18,82	33,49	60,30	25,78	40,21	57,24	34,42
GRANADA	12,12	27,73	4,28	13,77	30,52	5,79	20,75	40,61	11,30	27,34	44,37	19,05
GUADALAJARA	12,08	31,23	2,80	16,27	41,35	4,44	21,09	46,47	9,81	25,32	49,09	14,33
GIPUZKOA	23,42	59,18	4,94	24,87	61,72	9,00	30,17	59,73	17,19	36,06	57,42	24,85
HUELVA	11,46	28,08	3,58	11,48	29,70	3,81	16,55	39,97	7,72	22,90	46,21	13,13
HUESCA	13,24	35,05	4,16	15,51	41,01	5,63	21,09	46,13	11,41	24,80	44,66	16,38
JAEN	10,28	23,67	4,35	11,76	26,98	4,46	16,17	36,40	7,46	19,23	38,91	10,27
LEON	23,76	37,95	16,17	24,44	37,10	17,85	26,32	40,58	20,01	27,47	40,27	21,67
LLEIDA	16,22	45,71	5,91	19,13	49,63	8,87	25,85	51,62	17,16	31,53	49,28	24,99
ERRIOXA	19,39	49,75	4,99	20,52	53,22	6,74	27,49	57,61	15,58	30,31	52,92	20,51
LUGO	51,36	59,12	47,54	42,05	47,37	39,16	39,73	45,30	37,68	40,09	42,49	39,28
MADRIL	25,19	63,98	5,24	26,60	64,42	9,29	31,57	62,71	16,89	34,37	56,93	21,72
MALAGA	15,05	38,21	3,84	17,53	45,47	5,50	23,88	52,99	11,73	27,07	50,86	15,89
MURTZIA	14,71	39,30	4,83	15,21	42,49	5,06	21,67	48,96	11,73	24,87	45,24	16,37
NAFARROA	20,70	48,82	3,83	22,81	53,88	6,74	28,14	55,76	14,32	35,21	56,28	23,72
OURENSE	17,34	29,72	10,61	38,14	46,45	33,96	28,68	40,23	23,53	30,01	36,78	27,16
ASTURIAS	14,84	32,67	6,52	16,54	34,31	9,03	23,43	43,48	15,71	29,12	47,22	21,91
PALENTZIA	15,77	34,85	3,78	16,64	35,38	5,18	21,11	42,94	9,72	24,88	43,42	14,77
LAS PALMAS	17,16	40,30	6,42	19,52	44,52	9,34	24,28	42,90	16,00	29,82	45,12	21,64
PONTEVEDRA	28,35	48,86	16,95	36,00	54,82	27,17	35,56	53,01	28,89	29,52	42,79	23,82
SALAMANCA	14,71	34,47	3,25	16,57	36,73	5,22	20,73	40,55	9,92	23,51	40,15	13,92
TENERIFE	17,71	38,77	7,63	16,93	37,97	8,09	23,78	43,18	15,17	27,11	42,04	19,33
KANTABRIA	23,87	40,98	14,67	21,29	40,71	11,51	26,04	48,08	16,50	29,79	46,42	20,43
SEGOVIA	17,13	35,09	9,15	14,02	33,35	5,08	18,28	37,31	8,93	21,62	37,85	13,11
SEVILLA	18,13	43,66	4,93	19,18	48,24	6,41	22,87	51,63	10,50	29,41	53,99	17,77
SORIA	16,44	34,38	5,62	18,28	40,14	6,16	23,00	43,33	11,39	27,37	44,02	18,02
TARRAGONA	18,86	51,24	7,39	21,20	57,43	9,65	26,16	59,86	16,08	32,85	54,92	25,17
TERUEL	11,88	31,48	4,22	13,76	34,10	5,88	18,83	41,23	10,09	22,40	41,12	15,33
TOLEDO	10,83	29,64	2,20	14,12	39,32	3,69	19,80	49,42	7,43	22,98	51,56	10,75
VALENTZIA	21,33	55,71	7,33	22,15	59,34	8,29	27,08	60,56	14,81	32,07	55,64	22,11
VALLADOLID	16,15	41,00	3,01	17,80	45,89	4,58	22,50	48,62	10,58	26,25	47,54	15,19
BIZKAIA	19,33	56,05	3,79	21,20	57,48	6,70	25,69	55,65	13,37	30,65	53,09	19,70
ZAMORA	18,24	32,43	9,83	19,43	33,30	11,84	25,19	39,60	18,39	24,96	39,62	18,30
ZARAGOZA	18,24	50,10	3,67	19,65	54,81	5,39	25,65	56,60	12,68	31,03	55,80	19,84
ESPAINIA	20,25	47,54	7,60	22,71	50,47	11,06	26,78	52,88	16,10	30,77	51,14	21,39

*Iturria:* Zentsu eta Erroldatik hartutako datuekin osaturiko taula.

Espainiako emakumezkoen iharduerari dagokion geografi bilakaerari buruzko azalpenari amaiera emateko zera aipatu nahi dut, 4. irudian marraztutako q, r eta s ardatzen bidez, hobe ikus daitekeela 1970etik 1986ra bitartean probintzia bakoitzak urratutako bidea. Hortaz, q ardatza diagramaren erdikariari dagokio. Erdikariaren azpian dauden probintzietan, emakumezkoen iharduera tasak behera egin du aztertutako aldiaren zehar (Lugo soilik), erdikariarekin bat datozenek, ordea, tasa iraunkorra erakusten dute (ez dago bat ere, Pontevedra oso hurbil den arren) eta erdikariaren edo q ardatzaren gainetik dauden probintzietan iharduera tasak gora egin du 1970etik 1986ra bitartean. Probintzia gehienak hala aurkitzen direnez gero, hiru egoera bereizi nahi izan ditut eskualdekako joeren azterketa zehatzagoa gerta dadin.

Hau da, q eta r ardatzen arteko azaleran, hazkunderik txikienekin, 1970ean tasarik handienak zituzten probintziak ageri zaizkigu, hots, Galizia eta Leon aldekoak (A Coruña, Pontevedra, Zamora eta Leon) eta Kantabria, Kataluniakoak (Girona eta Bartzelona, ekialdekoa (Castelló eta, gainera, Segovia eta Madril. Zertan datza hazkunde ahul honen gakoa? Bada, arrazoi ezberdinak aurkitzen ditu eskualde bakoitzean. Penintsularen iparmendebaldeko eskualdeetan, Galizia, Leon eta Kantabrian, esaterako, 1970eko iharduera tasa oso handia zen emakumezkoen lanak garrantzi handia zuelako famili motako nekazaritzan. Hainbat azterlanetan azpimarratu denez, nekazaritzan diharduen emakumearen lana are garrantzizkoagoa da nekazal ustiapen txikiak, merkataritzarekin erlazio txikia dutenak nagusi diren eskualdeetan (García Ramón, M D et alri, 1990). Baina, emakume gazteenak, ikasketa-maila handiagoa dutenak, euren gurasoen nahiekin gutxitan bat etortzen diren lanbide-igurikapenak izan ohi dituzte eta nekazaritzari uzteko gogoaz agertu ohi dira. Hirietan joatera, lan merkaturako sarbidean hainbat oztupo aurkitzen dituzte zerbitzuen sektorea gutxi garatu delako, batez ere. Guzti honi, landalurretako biztanle aktiboen zahartzeari generatzen badiogu, argi dago, aztertu den aldiaren, emakumezkoen iharduera gai absolutuetan jasotzen duen probintziakako sailkapenaren lehen postuetan ageri diren arren, eskualde hauetako emakumezkoen biztanleria aktiboa zergatik hazi den estatuko beste edozein tokitan baino gutxiago; zenbait kasutan, Lugon adibidez, murriztu ere egin delarik.

Katalunian, 1970ean, emakumezkoek tasa nahiko handiak zituzten, ehungintza arloko ohizko industria duten Bartzelonan eta Gironan, batez ere; Levante aldean ere bai, oinetako eta larrukien industriaren garrantziari esker eta turismoari lotutako hirugarren mailako zerbitzuengatik. Industriaren krisialdiaren eragina nabarmenagoa izan da fabriketan emakume gehiago izan ohi direneko eskualdeetan, Katalunian esate baterako, non zifra ofizilen arabera, emakumezkoen iharduerak behera egin zuen 1975etik 1983ra bitartean, azken urte horretatik aurrera halako berpizte bat antzeman daitekeelarik (Alabart, A. 1987). Alabaina, aldi berean, arauzko sektoreko zenbait manufaktura iharduerak, neurri handi batez, ezkutuko ekonomiara igaro direla dirudi. Hirurogeitamarren hamarkadaren amaieran zenbait herritan egin ziren aztelanen arabera, hipotesi hori egiazkoa litzaiteke. Hortaz, Muriel Casals-ek Sabadellen kasua aztertu zuen, eta etxeko eta industrietako energia kontsumoaren bilakaera oinarritzat harturik, urte haietako ehungintzaren herena ezkutuan egiten zela iradoki zuen (Casals, M. 1986). Valentziako Komunitate Autonomari dagokionez, etxeko lanari eta ezkutuko ekonomiari buruzko hainbat azterlan egin dira, eta hauen artean Enric Sanchis-ek egingandakoak aipatu behar dira, azterlan hauetan argi eta garbi erakusten zaigu eskualde honetako ekonomiaren funtsezko euskarrietako bat emakumeen lana dela. Beraz, lasai asko esan daiteke, eskualde honetan, emakumearen lana estatistika ofizialetan jasotzen dena baino askoz handiagoa dela. Dena den, 1986ko errolda-zifrek, krisialdiaren aurretiko egoeraren aldean, emakumezkoen iharduera tasen goranzko joera iraunkorra erakusten dute, hau da, zenbait ekonomi iharduera agerian geldituta ere, ekonomiaren arauzko sektorean ere lanpostu sorkuntza garbia suertatu dela esan liteke.

Beste alde batetik, r eta s ardatzen artean bost probintzietatik hiru aurkitzen dira. Iharduera-tasen hazkundera aurreko kasuan baino handiagoa da, baina 1986ko tasak ez du 1970ekoak bikoizten, hori s ardatzaren ezker aldean isladatzen bait da. Hemen agertzen diren probintzietan, 1970ean ere estatuko batazbestekoa baino tasa handiagoak zeuden, Mallorkako Palman, adibidez, edo Euskal Herriko lau lurraldeetan (Gipuzkoa, Araba, Bizkaia eta Nafarroa). Hementxe ditugu, halaber, Lleida, Tarragona, Alacant eta Zaragoza, IV. koadrantean kokatzen diren bakarrak, alegia, eta Valladolid

eta Sevilla bezalako beste probintzia batzu, nahiko urbanizatuak izateaz gainera, dinamismo demografiko eta sozioekonomiko sendoa erakutsi dutenak eta, aurrekoen antzera, aztertutako aldiaren hasieran emakumezkoen iharduera-tasa oso urriak zituztelako harrigarriak suertatzen zirenak. Azken hamabost urteetan, ordea, hirugarren sektoretik eta, bereziki, sektore publikotik eratorritako lan eskaria dela medio, emakumezkoen belaunaldi gazteenak astiro-astiro lan merkaturatzen ari direla ematen du.

Penintsula barneko nekazal probintziak, hots, Extremadurakoak, Gaztela-Mantxakoak eta Gaztela-Leongo nahiz Andaluziako gehienak ere r eta s ardatzen artean aurkitzen ditugu, baina emakumezkoen iharduera tasa oso urria dute 1986an ere. Horrela bada, Barne-eskualde hauetako emakumeek ez dute etxetik kanpoko lanik oraindik ere, ezkondu gabeko emakume gazteek izan ezik, hauek beste dinamika bati ekin diote eta. Eskualde hauetako emakumearen zeregin nagusia ugaltze arloan burutu da betidanik, nekazaritzan ere ezer gutxi aritu da, Ipar-mesetan eremu handietako zitu-nekazaritza izan delako nagusi eta Hego-mesetan (Gaztela-Mantxa, Andaluzia eta Extremaduran) jabetza latifundista delako. Andaluzian, aitzitik, halabeharrez jornalari bihurtzen zen emakumea noiz ezkonduko zain zegoen "lanetik aske" suertatzeko. Gaur egun, eskualde horietan, emakumeak enplegu-aukera gutxi ditu, gizonak bezalaxe, arauzko sektorean, batik bat. Hala eta guztiz ere, zenbait azterlan berezien arabera, eskualde hauetako landalur-eremuak lehentasunezko zonalde bihurtu daitezke eskulanaren erabilera intentsiboan eta produkzio-prozezuen mailakaketan oinarritutako produkzioa duten tokiko edo nazio askotako enpresentzat. Lantegiak landalur-aldeetan kokatzea eta, ikasketa-maila txikiak gainera, lan nahiz sindikal esperientziarik ez duten emakumeak kontratatzea nahiago izateak, lana delako faktorearen kostuak ahalik eta gehien merketzeko estrategia erakusten dute. Eta hala gertatzen da, izan ere, kontratazio sistemak kili-kolozkoak izaten bait dira eta lanari eusteko aukerak oso urriak (Sabaté, A. 1989). Horrez gainera, kanporako etxean egindako lanak ez du etxe barruko lanaren sexu-zatiketa eztabaidatzeko arrazoirik ematen. Berriro ere, emakumezkoek toki bereberetan burutzen dituzte bai produkzioa eta bai erreprodukzioa edo ugaltze-lana.

Azkenik, s ardatzaren ezker aldean kokatzen diren probintzietan ageri dira aldaketarik handienak 1970etik 1986ra bitarteko iharduera-tasei dagokienez. Almeria probintziaren kasua nabarmentzen da, batez ere, 1986ko tasa hiru bider 1970ekoa bait da (%30 eta %10 hurrenez hurren). Zer dela eta halako aldaketa nabarmena? Almeria Andaluzian dago, eta oraintsu esan dudana bezala, eskualde horretan emakumezkoek ez zuten etxetik kanpo lan egiten, eta emakumearen lekua etxean delako ustea oso errotua zegoela ere aipatu da. Ustegabeko aldaketa hau, emakumeari gizartean dagokion rolari buruzko ohizko baloreak hankaz gora jarri dituen aldaketa hau, kapital inbertsio oso txikia eginik ere eskulan intentsiboari esker lehen mailako produktuak ustiatu eta merkaturatzeko posibilitatea antzeman eta aukera hori aurrera eraman delako gertatu da, batez ere, azken urteetan. Gauzak horrela, sarritan famili ustiapenetatik abiatuta, toldopeko nekazaritza deritzana garatu da, atzerrira begira erabat lehiakorra izanik, ortuarien esportazio sektore bat kontrolatzen duena. Estatistiketan agertzen denez, adin guztietako emakumeak, ezkonduak nahiz ezkongabeak, biztanle aktibo bihurtu dira. Andaluziako beste probintzia batzutan ere, Cadiz, Huelva eta Granadan, hain zuzen, Almerian bezala, iharduera-tasak nabarmen gora egin dute, seguruenik turismo sektorearen hedapenari esker. Beste alde batetik, Gaztela-Mantxako Toledo, Ciudad Real, Guadalajara eta Albacete probintziak ere, nolabait Madrilen eragin-eremuan kokatzen direlako edo, s ardatzaren ezker aldean aurkitzen dira. Toledo eta Ciudad Real probintzien kasuan, behinik behin, ez du ematen hazkunde hori bertan enpleguak sortu direlako gertatu denik, baizik eta, egunero 40 kilometro egin eta hiriburura lanera joaten diren emakumeei zor zaiela.

Finean, arrapaladan izan bada ere, emakumearen lan ihardueraren maparen 1970eko eta 1986ko irudiak azaldu dizkizuedalakoan nago. Ez da erraza espainiar estatuaren batzbestekoari baliagarria suerta lekioketena geografikoki erakustea, aitzitik, estatu bereberetan bi gizarte errealitate oso ezberdinak elkarren ondoan bizi direla ematen du, ezaugarri amankomun batez, hala ere: belaunaldi gazteen artean nabari den iharduera tasen hazkundera, alegia, eta faktore hau aintzat harturik, etorkizunean eskualdeen arteko ezberdintasunak txikiagoak izan daitezkeela dirudi. Dena den, emaku-

mezkoen artean askotariko joerak ageri zaizkigu etxetik kanpo lan egiteari dagokionez, eta joera ezberdinak izatearen arrazoia, batetik testuinguru ekonomikoari, hau da, propio eskatzen den eskulanaren nolakotasunari lotzen zaio, eta bestetik, gizonezko eta emakumezkoen arteko harremanak gizartearen eratzeko direneko testuinguru sozialari. Ekoizpen edo produkzioaren eskualde egiturak hein handi batez baldintzapetzen ditu emakumeak laneratzeko izan ditzakeen ahalbideak. Familia mailako nekazaritza nagusi denean, emakumeak bete-betean lan egiten du; industria astuna den aldeetan, ostera, emakumeentzako lanpostu gutxi sortzen dira; eta manufaktur industriak (ehungintza, jantzigintza, oinetakogintza, jostailugintza,...) nahiz elikagaien industriak emakumeak, gehien bat, eskatzen ditu. Zerbitzuak, hau da, administrazio-mailakoak, norberak emandakoak, etab..., oso hedaturik daudenean, emakume asko ari dira lanean. Gizartearen baloreek ekonomi beharrezanetara egokitzeko gaitasun handia dute, nire ustez. Hala eta guztiz ere, haien bitartekotza baztertua ere ez da komenigarria, zeren, kasu honetan hain zuzen ere, lan egiteko gertutasunari baino gehiago emakumezkoak produkzio-ihardueretara egokitzeko erari bait dagozkio. Azkenik, emakumezkoen iharduera agertzen duen mapa beste mapa batzurekin, hots, emakumearen iharduerari lotu ohi zaizkion ugalkortasun maila edo familiaren egitura bezalako aldagai soziodemografikoak isladatzen dituzten mapekin alderatuz gero, beraien arteko korrespondentziarik eza nabari dela azpimarratu nahi dut. Ugalkortasun mailarik handiena duten eskualdeek ez dira, halaber, iharduera-tasarik ahulena erakusten dituztenak, familia ugaria ere ez da nagusi emakumeak etxetik kanpo gehien lan egiten duen tokietan.

## AZKEN GOGOETAK



A maitzerakoan, emakumearen arazoak ta lan arloa direla-eta sortzen zaizkidan kezka adierazi nahi ditut. Alde batetik, emakumea etxetik kanpoko lanetan gero

eta gehiago aritzea positibotzat jo beharko genukeela uste dut, ezkonduko emakumeen kasuan, batez ere, horrek zera erakusten bait du: emakumea famili zikloa eta bere lanbidea elkarri egokitzeko ahaleginak egiteko gertu dagoela, bi eskubide horietaz batera gozatzeko; inork aurkakorik adierazi gabe gizonezkoek egin ohi duten bezalaxe. Arlo honetan bada, iharduketa publikoek jokabide jakin bat izan behar dute, hots, emakumezkoek familia bizitzaz eta lanbide bizitzaz aldi berean gozatzeko aukera izan dezaten laguntzak eskaini eta, areago, bermatzera zuzendutako jokabidea, alegia. Arlo zabal jorratu beharra dago, ordea. Haurtzaindegia, esaterako, oso gutxi izateaz gainera, oso garestiak bait dira.

Beste alde batetik, laneratzeko emakumeari gizonezkoari ez bezalako baldintzak eskatzeak kezkatzen nau. Zergatik egokitu ohi zaio emakumeari bigarren mailako zeregina lan merkatuan? Galdera hau funtsezkoa da. Ekonomilari batzuk lan eskaintza aipatu dute galdera honi erantzuterakoan, emakumeak oso gutxi inbertitzen dutela euren trebakuntzan eta, gainera, balio gutxi ematen zaien edo gaizki ordainduta dauden lanbideak aukeratzen dituztela esanez. Baliteke guzti hau egia izatea, baina ez egia osoa, noski. Enpresetan, adibidez, emakumezkoak bazterturik aurkitzen dira, gehiengoan izan ohi duten ehungintza bezalako sektoreetan ere, berrikuntza teknologikoak sartu beharra suertatu eta hobeto odaindutako lanpostuak sortzen direnean, emakumei lanpostu horietara heltzeko aukera eragozten zaie, gizonezkoak hartzen dute haien tokia, lan kualifikatua egiteko gaitasun handiagoa omen dutelako.

Familiaren eguneroko jokabidean, semearen lanbide heziketari lehenetasuna ematen zaio alabarena baztertu behar bada ere. Gerora, alaba ama bihurtutakoan, bere lehen zeregina etxeko lanez arduratzea izango da, eta seme-alabarik ez badu ere, ugaltze-lanaz bera bakarrik arduratu beharko da, hala nola familiako zaharrak eta gaixok zaintzeaz. Eta hau da, hain zuzen ere, emakumea ekoizpen arloan bazterturik izatearen arrazoi nagusia. Harik eta indarrean dagoen gizarte-eredua aldatu arte, hau da, gizona familiaren mantenuaren erantzule nagusia izateari eusten dion bitartean

eta emakumea, aldi berean ugaltze-lanaren erantzule bakarra den bitartean, emakumeak bigarren mailako papera izango du lan merkatuan.

Eredu hau ez den beste hautabide bati jarraitzea, gaur egun behinik behin, oso nekoso suertatzen zaio emakumeari. Gizonezkoen baldintza berberetan lan egiteko hautabidea badu, baina, beti ere, ohizko famili bizimoduari uko eginda, jakina. Gizonezkoen antzera lan egin eta, aldi berean, etxeko lanei erantzuten ahalegin daiteke, baina horrela ihardunaldi bikoitzaren arazoak etorriko zaizkio, noski. Edo bestela, lan gutxi egin dezakete, denbora partzialeko lana, aldian aldikoa, baina orduan, gizonezkoen lan ereduaren arabera antolatutako mundu honetan, lan interesgarri bat lortu eta lanbide-arrakasta lortzeko aukerak oso urriak dira. Ni, noski, erredu hau zalantzan jarri behar dela uste dutenetakoa nauzue, lan merkatua malgutu behar dela uste dutenetakoa, horrela gizaki guztiak, gizonak zein emakumeak, aldaketa horretaz onuratu ahal izan gaitezen, etxeko lanak eta etxetik kanpoko konpartituz. Badakit eta denon onerako izango dena.

## BIBLIOGRAFIA

ALABART, Anna eta SOLSONA, Montserrat (1988): «De l'activitat de la dona a Catalunya, desde 1970 a 1987», CIRIT delakoarentzat eginiko lan argitaragabekoa, Bartzelona.

BENERIA, Lourdes (1977): «Mujer, economía y patriarcado durante la España franquista», Bartzelona, Anagrama Argitaletxea.

BERNHARDT, Eva (1988): «Fertility and employment» Florentzia, Symposium on Population Change and European Society.

CASAS, José Ignacio (1988): «La participación laboral de la mujer en España», Madril, Emakumearen Erakundea.

CASALS, Muriel (1986): «La economía sumergida en Sabadell Problemas estadísticos de la economía sumergida» delakoan, Madril, Estatistikako Nazio Erakundea.

DE MIGUEL, Carmen (1988): «La participación femenina en la actividad económica. Estructura y tendencias». Martxoko Información Comercial Española delakoan.

DURÁN, M. Angeles (1972): «El trabajo de la mujer en España. Un estudio sociológico», Madril, Tecnos Argitaletxea.

GARCÍA RAMÓN, M. Dolors, SOLSONA, Montserrat eta VALDOVINOS, Nuria(1990): «The Changing Role of Women in Spanish Agriculture: Analysis from the Agricultural Censuses, 1962-1982», Urtarrilak 1eko Journal of Women and Gender Studies delakoan.

KEMPENEERS, Marianne eta LELIEVRE, Eva (1989): «L'analyse du travail féminin en demographie: Avantatges et limites de l'approche biographique, New Delhi, XXI Congres General de Population.

RUESGA, Santos M. (1988): «La mujer en la economía sumergida», martxoko Información Comercial Española delakoan.

SABATE, Ana et altri. : «División del trabajo según género y reestructuración económica: La industria de la confección en zonas rurales (C.A. de Madrid)», Iberian Studies delakoan, prentsan.

SANCHIS, Enric (1984): «El trabajo a domicilio en el País Valenciano», Madril, Emakumearen Erakundea.

SOLSONA, Montserrat (1989): «El problema de la medición del trabajo de la mujer», Documents D'anàlisi Geografica delakoan, 14.

V.V.A.A. (1988): «Evolución general de las disparidades regionales en la CEE y en España», Papeles de Economía Española delakoan, 34.

# **NAFARROA: HAZKUNDE HUTSA**

Andrés Valentín

## Andrés Valentín González

1975az geroztik Nafarroako Gobernuko Estatistika Departamentuan ari da lanean. Ordutik hona demografi estatistikako eragiketa ezberdinetan lan egin du, gai honi buruzko hainbat argitarapen egin direlarik bere ardurapean.

Hainbat azterlanetan esku hartu du laguntzaile gisa, alderdi sozioekonomikoez edo erabat demografikoez arduratuz.

Gai sozioekonomikoei buruzko hainbat lan eta artikulu egin ditu, baita Nafarroako biztanleriari buruzkoak ere.

Gaur egun, Nafarroako Gobernuko Estatistika Sekzioaren menpeko Nafarroako Informazio eta Dokumentazio Zentruko Buru da.

## SARRERA

# H

itzaldi honen izenburutzat hartu den “Nafarroa: hazkunde hutsa” delakoaren aurrean, bidezkoa deritzot gure populazioak orain arte izandako bilakaerari gainbegiratu bat emanez abiatzeari, izan ere, gizarte-mailako gertaera edo fenomenoak, eta bereziki demografiari dagozkionak, iraganetik bait datozkigu erabat.

1960ko zentsuaren erreferentzia izan arte, Nafarroako biztanleria estatukoa baino gutxiago hazten da urteetan zehar. Hirurogeigarren hamarkadan, ordea, Nafarroako biztanleriaren hazkundeak %15,7a jotzen du, estatuko batzbestekoaren gainetik, alegia. 1970etik aurrera, Nafarroako biztanleriak, berriz ere, estatuko batzbestekoak baino hazkunde txikiagoaz ageri zaigu. Laster ikusiko dugun bezala, ezberdintasun hauek, migrazio-saldoak aztertuz ere nabari dira. Hortaz, Nafarroako biztanleriaren mende honetako bilakaeran hiru aldi bereiz ditzakegu.

### 1. TAULA. Nafarroako eta Espainia biztanleriaren bilakaera

Urtea	N A F A R R O A				E S P A I N I A	
	Egitatezko biztanleak	Indizeak	Zentsuarte-ko aldakuntza	Egitatezko biztanleak	Indizeak	Zentsuarte-ko aldakuntza
1900	307.669	100,0	-	18.617.956	100,0	-
1910	312.235	101,5	1,5	19.992.451	107,4	7,4
1920	329.875	107,2	5,7	21.508.135	114,6	7,6
1930	345.883	112,4	4,9	23.844.796	126,7	10,9
1940	369.618	120,1	6,9	26.187.899	139,2	9,8
1950	382.932	124,5	3,6	28.368.642	150,5	8,3
1960	402.042	130,7	5,0	30.903.137	163,7	8,9
1970	464.867	151,1	15,7	34.132.801	181,9	10,1
1975	483.867	157,3	4,1*	36.026.319	193,5	5,9*
1981	507.367	164,9	9,1	37.746.260	202,3	10,5
1986	512.676	166,6	1,0*	38.891.313	208,9	3,0*

\* Biztanleriaren aldakuntzak, Udalen Biztanle Errolden arabera eta dagokion aurreko Zentsuaren aldean.

Aipatu beharra dago, halaber, aldi hauen denborazko erreferentziek joera-aldakuntzak adierazten dituzten zentsu-eragiketekin zerikusia dutela eta ez aldakuntza horien hasierarekin.

Nafarroaren demografi hazkundera ageri den erritmo-aldakuntza, bestalde, gure komunitatearen ekonomi egituretan izandako aldaketei erabat loturik dago.

Gogora dezagun, Estatuan 1981ean mende hasierako biztanleria bikoiztu egin zela. Aitzitik, Nafarroari dagozkion azken zifra ezagunak erakusten dutenez, ezin jakin daiteke noiz bikoiztu den Nafarroan 1900ean zegoen biztanle-kopurua.

Nafarroan dagoeneko Km<sup>2</sup>-ko 50 biztanle omen dago, Estatu osoko batzbestekoa baino dentsitate txikiagoa, beraz, eta Euskal Autonomia Elkartekoa baino askoz ere txikiagoa, noski. Gauzak horrela, guztizko nahiz konparaziozko zenbatekoz, populazio gutxiko eskualdea dugu.

**NAFARROAREN BILAKAERA  
DEMOGRAFIKOA  
LUZAROKO MIGRAZIO-SALDO  
NEGATIBOA**



afarroan, 1960. urterarte, nekazaritzan oinarritutako ohizko eredu ekonomikoa izan zen nagusi, industria oso urria zelarrik. Urte horietan eskualde joankoi gisa

agertzen zaigu, estatuko eskualde garatuagoetara, eta atzerrikoetara ere, bertako biztanleak bidaltzen zituen: hamarkada bakoitzean, 18.000 nafar inguru joaten ziren.

**2. TAULA. Migrazio-saldoen bilakaera**

URTEAK	MIGRAZIO-SALDOAK
1901-1910	-25.959
1911-1920	-14.485
1921-1930	-21.182
1931-1940	-10.300
1941-1950	-16.836
1951-1960	-20.499

Nolanahi ere, berezko hazkundera aski izan zen galera horiek estali eta biztanleriaren nolabaiteko gehikuntzari eusteko, nahiz eta, lehenago aipatu bezala, gehikuntza hori, beti ere, Estatu osokoa baino txikiagoa izan. Gehikuntza xume hauek, Araban, Errioxan edo Aragoan izandakoen antzekoak, industrializazio mailan aurreraturik zeuden Bizkaian eta Gipuzkoan gertatutako bilakaeraren alderantzizkoak ditugu.

Aldi horretan, jaiotzeen tasa gordinak ere behera egiten du, mende hasierako 1.000ko 31tik 1956-1960 bitarteko 1.000ko 20ra, hain zuzen. Tasa hau, Nafarroan, estatuko batazbestekoa baino pixkat txikiagoa izan ohi da sistematikoki.

Hilkortasunaren tasa gordinak ere behera egiten du, hortaz, mende honetako lehen bosturtekoan 1.000ko 21,6koa zen eta aldi honetako azkenengoan, berriz, %9,3koa; estatuko batazbestekoa baino zertxobait txikiagoa 1950erarte, baina, gure biztanleriaren zahartze konparatiboa dela medio, azken hamarkadan hura baino handiagoa da.

Aipatutako jaiotzeen eta hilkortasunaren jokaeren ondorioz, 1.000ko 9 inguruko berezko hazkundera ageri zaigu, 1950. urterarte, behintzat, estatukoa baino zertxobait handiagoa, alegia.

Aldi honetantxe, halaber, populazioak halako kontzentrazio-prozesu bati ekin dio, baina ezin daiteke hiritze-prozesutzat jo oraindik: 1960an probintzia osoko 100 biztanletatik 28,4 besterik ez ziren 10.000 biztanle baino gehiago zeuzkaten udalerrietan (Iruñea eta Tuteran) bizi.

**INDUSTRIAREN BULTZADA**

1960tik 1975era bitartean, Nafarroako biztanleria 92.598 biztanlez gehitzen da. Hamabost urte horietan, aurreko hirurogei urteetan bezainbateko hazkundera nabari da.

Jaiotzeen tasa gordinak 1000ko 20 ingurukoa da orain ere, eta hilkortasunarena 1000ko 9koa, lehenagokoa bezalakoa, beraz; hau da, berezko hazkunderaren tasa egonkorra eta estatukoa baino txikiagoa.

Alabaina, Nafarroaren jokaera demografikoan joera-aldakuntza garbia nabarmentzen da, estatukoa baino hazkunde handiagoa erakusten duena, alegia, eta hori migrazioari zor zaio. Izan ere, Nafarroan, lehenago ez bezala, migrazio-saldo positiboak daude, eta horretantxe datza, hain zuzen ere, urte hauetan gertatu den populazioaren hazkunde itzelaren arrazoia.

### 3. TAULA. Migrazio-saldoen bilakaera 1961etik 1975era bitartean

URTEAK	MIGRAZIO-SALDOAK
1961-1970	+ 18.510
1971-1975	+ 8.319

Nafarroan urte horietan suertatzen den industrializazio nabarmenari zor zaio migrazio-saldoen joeraren aldakuntza, baina, baita hiritze-prozesu itzela ere, erdialde eta iparraldeko nekazarien populazioa nabariki murrizten duena eta, aldi berean, biztanleriaren erdia baino gehiago 10.000 biztanletik gora duten udalerrietara biltzen duena.

Hau horrela izanik ere, prozesu guzti hauek agudo motelduko dira, izan ere, hirurogeitamargarren hamarkadako lehen bosturtekoan, Nafarroaren hazkunde demografikoa estatuko batzbestekoa baino txikiagoa da eta. Ondorengo urteetan zehar, laster aipatuko dugun biztanleriaren gelditzea sortarazten duten joerak agertzen dira. Batetik, migrazio-saldoa nabarmen gutxitzen da eta, bestetik, 1976an jaiotzeen bapateko beherakada nabari da, eta urte horretan 8.663 jaiotze izan baziren ere hamar urte beranduago 4.829 baino ez dira.

#### AZKEN URTEOTAKO GERALDIA

Azken hamabost urteetan garbi asko ikusten da demografia ezer gutxi aldatu dela. Jaiotzeen tasaren beherakada

izugarriak, hilkortasunaren tasa egonkortuarekin batera, populazioaren berezko hazkunde ia hutsa ekarri digu. Beste alde batetik, migrazio-saldoak ere, oraindik positiboak izan arren, gero eta urriagoak dira. Hortaz, gure izenburura hurbiltzen gara: "Nafarroa: hazkunde hutsa". Alabaina, honetaz luzeago mintzatu beharra dago.

Azken hiru edo lau urteetan zehar, jaiotze-kopurua egonkortu egin da, eta halako berpizte antzeko bat ere antzeman daiteke; ugalkortasun-tasa, bestalde, behe-beheko mailan ageri da eta ez dirudi beherago joango denik. Baina jaiotzeak ez zaizkio ugalkortasunari soilik lotzen, adin ugalkorreko biztanleriaren adin-osakerarekin ere zerikusia bait du, eta ondoren ikusiko dugun bezala, ez dirudi kausa honengatik ere, epe laburrera nahiz ertainera, jaiotze-kopuruaren murrizketak iraugo duenik. Hipotesi hauek eta hilkortasunaren egonkortasuna aintzat hartuz gero, biztanleriaren hazkunde ahula izango omen da.

Migrazioen jokaera, funtsean, lan merkatuen enplegu tentsioari lotzen zaio. Geroago ikusiko dugunez, ez dirudi etorkizunean Nafarroa enplegu-eskatzaille garbia izango denik. Hala ere, inguruko eskualdeen langabezia eta lan merkatuetan soma daitekeen egoera orokorra kontutan harturik, gure komunitateko eskulan soberakina erakar lezakeen gunerik sortuko den ere ez du ematen.

Eta aurrera egin baino lehen, gure gizartean planteatu ohi diren eztabaida jakin batzuri buruzko gogoeta egin nahiko nuke. Hazkunde demografikoa "per se" berezko ondasun bat ote da? Hau da: gure populazioa gehitu ezik, zer gertatzen da? Jaiotzeen aldeko ikuspuntutik arrisku hau dela-ta mehatxu egiten dutenek galdera hauei erantzun diezaieten espero dut.

**BIZTANLERIAREN EGUNGO  
EGITURA  
BIZTANLERIAREN PIRAMIDEAREN  
AZTERKETA**

**B**

iztanleriaren egitura aztertuz gero, iragane-ko gertaerak gure piramidean izan du-ten eragina ikus dezakegu, hala nola, “18ko gripea” deituarena edo gerrate zi-

bilean zehar nabarmendu zen gizonezkoen hilkortasunaren gehitzearena. Argi asko antzematen da, halaber, aipatu gerratean jaiotzeak ere gutxitu egin zirela.


Baina, aipatutakoaz gainera, gertaera edo fenomeno demografiko horien eragina agertzen zaigu: hirurogeigarren hamarkadako hedapen demografikoa, ondorengo gelditzea eta, batez ere, azken urteotako jaiotzeen beherakada.

Nafarroako biztanleriaren zahartzea, berriz, 65 urtez gorako biztanleen gehikuntzatik ondorioz-tatzen da, baina, baita jaiotzeen gutxizetik ere. Zahartze honek, 64 urtez gorakoei multzo osoan dagokien portzentaiaz neurtzen dena, hurrengo urteetan ere iraun egingo du.

Zahartze demografiko honek, bestalde, aktiboa ez den biztanle-multzo honi dagozkion gizarte-kostuen areagotzea dakar. Baina, behin eta berriz entzuten dugun argudio honen aurrean, zahartze hau gure biztanleriaren biziraupen-itxaropena dexente gehitu delako gertatu dela esan beharra dago. Izan ere, gero eta gehiago izango bait dira (edo izan beharko bait dira) gure zaharrentzako aurre-kontu-partidak, baina oso gutxi izango dira 65 urte izan aurretik jubilatu eta 80 urte bete arte bizi ahal izatea zama astuna bait litzan hartuko dutenak.

Beste alde batetik, adin ugalkorreko biztanleriaren hazkundeak iraun egingo du oraindik ere urte batzutan eta etorkizuneko beherakada ez da horren laster nabarituko, ugaltze-adina gero eta han-diagoa bait da.

**1. IRUDIA. Nafarroako biztanleriaren piramidea. 86-4-1ean**



**NAFAR BIZTANLERIAREN AHALMEN  
EKONOMIKOA**

Gure demografi aleak egonkor izan arren, nafar biztanleek ekonomikoan iharduteko duten ahalmena areagotuz joan daiteke

ondorengo urteetan zehar, eta areagotze hau migrazio-saldo hutsa izanik ere litekeena da:

- 16 urte edo gehiago dituzten biztanleen kopurua gehitu egin da orain arte eta, dirudienez, joera berbera izango omen du datozen urteetan ere.
- 25 eta 54 urte bitarteko biztanleak, hau da, iharduera tasarik handienak dagozkien adinak dituztenen batzbesteko bolumena gehitu egingo da aktiboa izan daitekeen biztanleria osoaren barruan.
- Emakumeak lan merkatuan duen partaidetza oraindik aski urria denez, erabili gabeko emakumezkoen eskulana oso garrantzizkotzat jo daiteke.

Dena den, 16 urte edo gehiago dituzten biztanleen kopurua gehitu eginagatik, biztanleria aktiboa (lanean ari direnak gehi lan bila ari direnak) ez da 1985erarte hazten, arrazoiak hauexek direlarik: jubilatzeke adina lanik gehienetan aurreratzen dela, 16 urte baino gehiago dituztenek eskolatze-tasa handiago izanik, lan merkaturatzea berandutzen dela eta ekonomiaren egoerak halako etsipen orokorra sortarazten duela.

Data horretatik aurrera, ordea, biztanleria aktiboa ia %20an gehitu da, bai jubilatzeke adina egonkortu egin delako eta bai etsitako biztanle horiek, emakumeak batez ere, nabarmen lan merkatuarekin direlako. Halaber, 20 urte baino gutxiago dituztenen iharduera tasaren gutxitzeak bere hartan dirau: 16 urte edo gehiago dituzten ikasleen kopurua 27.500etik 37.000ra igaro da 1987tik 1990era bitartean.

Biztanleria aktiboaren hazkundera ertsiko zaiola ematen du, alabaina, hazkunde hori motelagoa daiteke, batez ere, abagadune ekonomikoaren norabidean aldakuntza nabarmena suertatuko balitz. Azken urteetan ageri izan den joeraren arabera, hazkundera emakumezkoengandik eratorriko da, beraien hazkundera %50ekoa izan baita 1984az geroztik.

Nafarroako biztanleria aktiboak 1984ean jo zuen behea, urte horretan, industriako enpleguan, batez ere, izandako murrizketa itzelaren poderioz, 150.000 besterik ez ziren pertsona aktiboak. Harrez gero, biztanle landunak areagotuz joan dira.

**4. TAULA. Biztanleria ekonomi iharduerarekiko loturaren arabera (urteko batzbestekoak milakotan)**

Urtea	16 URTE EDO GEHIAGOKO															
	BIZTANLERIA				AKTIBOAK				LANDUNAK				LANGABETUAK			
	Gizonez.		Emaku.		Gizonez.		Emaku.		Gizonez.		Emaku.		Gizonez.		Emaku.	
1981	180,7	192,3	372,9	133,8	51,5	185,3	119,4	41,6	161,0	14,4	9,8	24,2				
1982	182,3	193,4	375,7	133,2	51,8	185,0	117,5	42,0	159,5	15,7	9,8	25,5				
1983	185,8	195,3	381,1	133,5	52,3	185,8	115,4	41,1	156,5	18,2	11,2	29,4				
1984	191,2	196,2	387,3	130,7	50,8	181,5	113,1	39,2	152,3	17,6	11,7	29,2				
1985	193,2	200,1	393,3	136,3	56,0	192,3	115,6	40,1	155,7	20,7	15,9	36,6				
1986	195,5	202,6	398,0	138,2	56,8	195,0	117,9	40,3	158,2	20,2	16,5	36,8				
1987 <sup>(1)</sup>	197,3	204,6	401,9	134,0	63,5	197,5	119,1	47,7	166,8	14,9	15,8	30,7				
1988	197,8	208,3	406,1	131,5	65,1	196,6	118,8	49,1	167,9	12,7	16,0	28,8				
1989	197,5	213,4	410,9	133,5	69,1	202,6	123,6	53,1	176,8	9,9	16,0	25,8				
1990	199,2	214,5	413,7	131,7	71,1	202,8	122,9	56,1	179,0	8,8	15,0	23,8				

<sup>(1)</sup> BAIren metodologia berriari ekin zitzaioneko azken hiruhilabetekoaren batzbestekoa.  
Iturria: Estatistika Nazio Erakundearen Biztanleria Aktiboari buruzko Inkesta (BAI).

Epe ertainera, behinik behin, Lehen Sektorean lan egiten duen biztanleriaren gutxitzeak iraun egingo du. Eraikuntzan, bestalde, ez dirudi gaur egun ageri den lanaren zenbatekoa askorik gehi daitekeenik eta, nolana ere, ez litzateke bolumen eraginkorra gertatuko. Industrian lan egiten duen biztanleria, ekonomiaren atzerakadaren ondoren zer? galderari nola erantzungo dago. Zerbitzuen Sektorea, azkenik, areagotu arren, ez dirudi gainontzeko sektoreetako soberakinak bereganatzeko gauza denik. Hortaz, labur esanda, eta hipotesi gisa, biztanleria landuna egonkortu egingo dela esan genezake.

## 5. TAULA. Biztanleria landuna ekonomi sektoreka (urteko batazbestekoak milakotan)

Urtea	LEHEN SEKTOREA			INDUSTRIA			ERAIKUNTZA			ZERBITZUAK		
	Gizonez.	Emakum.	Guztira	Gizonez.	Emakum.	Guztira	Gizonez.	Emakum.	Guztira	Gizonez.	Emakum.	Guztira
1987 <sup>(1)</sup>	18,9	1,2	20,1	45,2	13,1	58,3	10,3	0,2	10,5	44,9	33,3	78,2
1988	17,2	1,0	18,2	43,7	11,2	54,9	11,8	0,3	12,1	46,1	36,5	82,6
1989	17,1	1,0	18,1	46,7	12,0	58,7	14,1	0,4	14,5	45,7	39,7	85,4
1990	14,2	1,0	15,2	45,5	13,1	58,6	15,4	0,4	15,8	47,9	41,7	89,6

<sup>(1)</sup> BAIren metodologia berriari ekin zitzaioneko azken hiru ilabeteko batazbestekoa.

*Iturria:* Estatistika Nazio Erakundearen Biztanleria Aktiboari buruzko Inkesta (BAI).

Nafarroan, langabeziaren adierazleak Estatuan baino beheragoko mailetan agertzen zaizkigu. Alabaina, BEG delakoaren gehikuntza Nafarroan estatuko batazbestekoa baino handiagoa izan bada ere, biztanleria landunaren aldakuntza-tasa txikiagoa izan da.

1984az geroztik, biztanleria landunak gora egiten badu ere, hazkunde horrek ezin du langabeziaren gehitzea geldiarazi 1986. urterarte. Harrez gero, aitzitik, gizonezkoen langabezia erdira murrizten da, baina emakumezkoena egonkor agertzen da.

Azken urte, bestalde, lanik gabeko biztanleria erabat aldatu da: lehen, inoiz lan egin gabeko gazteak, enpleguaren murrizketak ikurik luzaroan langabeturik zeudenak eta lan merkatura sartzerik ere ez zeukaten etsitakoak (emakumeak, gehien bat) ziren nagusi; orain, ordea, egoera nahasiagoa dakusagu, baina, biztanleria aktiboaren herena eta bi emakumezko aktibotik bat langabezia dago, eta nahasmendu horretan, langabeziarekin batera, prekarioko enplegu ugaria (soldatapekoa zein autonomoa) ageri zaigu, bai ezkutuko ekonomiaren baitan, bai bestelako jantziekin.

Azken urteetako biztanleria aktibo berria aldi baterako kontratazio-mota ezberdinei loturik dago; eta horrenbestez, ekonomi zikloaren beheraldiari datxekion ezaugarrien arabera, biztanleria landuna larriki murriztua gerta daiteke. Ez da gauza berbera enpresak ixtea nahiz langile finkoak kaleratzea, edo aldi baterako kontratuak amaitu arte itxaron gero ez luzatzeko.

## ETORKIZUNERA BEGIRA



hardunaldi hauek atontzen ari ginelarik, antolatzaileek epe ertain eta luzerako (2030 edo 2040. urtera arteko) aurrikuspen demografikoak aztertzeak merezi ote zuen iradoki zuten.

Nik uste, gutxienezko argudio zientifikoetan oinarriturik, behinik behin, ezinezkoa dela epe luzerako aurrikuspen demografikoak egitea. Aipatu dudan bezala, aldagi demografikoak egoera ekonomi-

koari lotzen zaizkio, azken finean. Epe laburrerako aurrikuspen ekonomikoa oso makala da; adituak bat datoz ekonomi etorkizunaren noraeza aipatzerakoan. Horrela bada, epe luzerako aurrikuspen ekonomikoa aztikeria hutsa dugu.

Hau esan ondoren, aurrikuspen hauen baitan dagoen eztabaidari ekin ahal diogu. Epe ertainera ba al da “arazo demografikorik”? Nolakoa?

Lehenengo eta behin esan behar da Nafarroak ezer gutxi erantsiko diola munduko hedapen demografikoari, berau bait da gure planetaren benetako “arazo demografikoa”.

Era berean esan daiteke, nafar gizartean ugalkortasunak erakutsitako joeraren ondorioz, epe jakin batetara, behintzat, ez dela populazioaren iraupenari eusteko arriskurik antzematen.

Jaiotzeen aldeko jokabide erasokorrenetako batzuk argudio erlijioso erabat atzerakoiak (atzerakoiak ez erlijiosoak izateagatik, erlijioaz jantzitako argudi atzerakoiak baizik), matxistak ( emakumea animalien ohizko ugaltze-eginkizunera zokoratzen bait da) eta zeharo arrazistak erabiltzen dituzte. Kritika hau gogorregia iruditzen zaionari “Aldizkari Berria” deritzanaren 1990eko ekaineko alean Pierre Chàunu-k argitaratutako “Entropia demografikoaren arriskuak” izenburuko artikulua irakur dezan gomendatzen diot, aipatu berri ditudan bezalako hainbat adibide aurkitu bait ditut bertan.

Zer esan nahi du guzti honek? Populazioaren egoerari eta perspektibe dagozkien arazorik ez dela esan nahi al du? Ez da pentsatu ere.

Lehenago azaldutako jaiotze-kopuruaren murrizketak egitura demografikoaren makaltzea dakar, eta horrenbestez, egitura horrek, epe luzera, egungo tamainia demografikoei eta, bereziki, lan merkatuarenari eutsi nahi izanez gero, etorkinen beharra izan lezake. Epe luzera esan dugu, zeren epe ertainera nahiz laburrera, biztanle aktibo gutxiegi izatetik baino gehiegi izatetik erator bait daitezke arazoak.

Biztanleriari dagozkion zifretan nabari den beste arazo bat emakumearenganako bereizkeria dugu.

Azken urte hauetan nabarmenki gehitu da emakumezko aktiboen kopurua, %50 1984etik hona, hain zuzen. Aldi berean, estatistiketan “bere eginkizunak” delako atalean agertzen diren emakumeen kopurua nabarmen gutxitu da. Azken urteotan bada, emakumezkoen biztanleria aktiboaren hazkundera gizonezkoena baino askoz ere nabarmenagoa izan bada ere, lan merkatuan sartzen diren emakumezkoak 16 urte edo gehiago dituzten emakumezko guztien herena baino ez dira; hau da, hiru emakumetako bat bakarrik sailkatzen da aktiboen artean. Era berean, biztanle aktibo guztien %35 besterik ez dagokie emakumeei.

Gizonezkoen kasuan ez bezala, emakumezkoen biztanleria landuna biztanleria aktiboa baino gutxiago gehitu da; eta horrexegatik, hain zuzen ere, gizonezkoen langabetu-kopurua erdira jaitsi den bitartean, emakumezko langabetu-kopurua egonkortu egin da eta, ondorioz, 1990eko langabetu guztien %60 emakumezkoak dira.

Hortaz, biztanleria landunari bagagozkio, hamar pertsonatarik hiru emakumeak dira, baina, biztanleria langabetuari bagagozkio, hamarretik sei; %63, dira emakumeak.

Amaitu orduko, esan dezakegu emakume izatearen ezaugarriek beste arazo orokorrago batzurekin ere zerikusia dutela: gaur egungo sistema ekonomikoak lanik gabeko biztanleria baztertze joera duelarik.

Nolanahi ere, eta eztabaidaren abiapuntu gisa, beste galdera bat egin beharko genuela uste dut, hau da, aipatu ditudan arazoak, arazo demografiko hutsak edo gizartearen arazoen adierazle konkretuak ote dira?

# **EUSKAL AUTONOMI ELKARTEAREN BILAKAERA DEMOGRAFIKOA**

Enrique Morán Alaez

## Enrique Morán Alaez

Palacios de Ruedan jaioa, Leongo probintzian. Madrileko Unibertsitate Complutensean Soziologian lizentziatu ondoren, Demografian espezializatzeko ikasketak burutu zituen Pariseko Institut de Démographie delakoan - Demografia Orokorrari eta Demografo Adituari dagozkion diplomak - eta hiri bereko Institut d'Etudes Politiques delakoan - Ekonomi Demografiako D.E.A.-.

1981etik Eusko Jaurlaritzaren EUSTATEko Biztanleriari buruzko Estatistiken Arloaren arduraduna da.

Demografia eta enplegu gaiei buruzko hainbat artikulu eta azterlan argitaratu ditu, Euskal Herriari buruzkoak, bereziki, eta gai horien inguruko Mintegi nahiz Hitzaldietan esku hartu du txostengile gisa.

## HITZAURREA




rri hauetan zehar, Euskal Autonomi Elkartean (EAE) gaur egun nabari den egoera demografikoa eta egoera honetara heldu arte izan diren arestiko jokabideak

erakutsiko zaizkizue labur-labur.

Hala nola, biztanleriaren bilakaerari eta egiturari erreparatuko diegu eta, bereziki, zahartze gero eta handiagoari; era berean, jokaera demografikoak deitu ditugunak ere aztertuz, hau da, ugalkortasuna, ezkontzak, hilkortasuna eta migrazioa, aipatu bilakaeran eragina duten fenomenoak bait dira.

Azkenik, bilakaera honen ondorioetako zenbait aztertuko ditugu, dagoeneko antzeman daitezkeenak edo hurrengo urteetan ageriko zaizkigunak, batik bat, kontutan izanik, hau da, hezkuntza sistema eta lan merkatua.

## AURREKINAK



asteko, euskal biztanleriaren historiara inguratu eta 1986ko errolda berrian bildu zen 2.135.000 pertsonatako zifarra heldu arte izandako ibilbideari erre-

paratu beharko genioke.

Bi mende lehenagokoak dira lehenengo estatistika fidagarri eta zehatzak, Floridablancaren 1787ko Biztanle Errolda alegia, eta berorretan azaltzen denez, sasoi hartan 308.200 biztanle inguru ziren Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko probintzietan.

XIX. mendean zehar, berriz, biztanle arabarren, gipuzkoarren eta bizkaitarren bilakaera oso ezberdina suertatu zen: arabarren gutxitze ia etengabearen aldean, gipuzkoar nahiz bizkaitarrak gero eta gehiago ziren, eta ondorioz, biztanleria osoa ere gehitu egin zen. Horrela bada, 300.000 biztanle haiek 600.000 bilakatu dira 1.900ean.

### 1. TAULA. Euskal A.E.ko eta Espainiako egitatezko biztanleriaren eta zentsuarterteko hazkundetasen (ZHT) bilakaera 1787tik 1986ra bitartean

Urtea	EUSKADIKO K. A.		ESPAINIA	
	Biztanleria	ZHT %	Biztanleria	ZHT %
1787	308,2		10268,2	
1860	429,1	0,45	15645,1	0,58
1877	450,7	0,29	16622,1	0,36
1887	510,4	1,25	17549,6	0,54
1900	603,6	1,30	18616,6	0,46
1910	673,8	1,11	19990,9	0,71
1920	766,8	1,30	21388,6	0,68
1930	891,7	1,52	23677,1	1,02
1940	955,8	0,70	26014,3	0,95
1950	1061,2	1,05	28117,9	0,78
1960	1371,7	2,60	30582,9	0,84
1970	1878,6	3,20	33956,4	1,05
1975	2072,4	1,98	36026,3	1,19
1981	2135,0	0,58	37674,6	0,87
1986	2135,1	0,00	38891,3	0,63

Bizkaiko demografiak iragan mendeko larogeigarren hamarkadaren erditik aurrera erakusten duen bilakaera ere azpimarragarria da, izan ere, urte haietako industri zabalkundeari esker, Bizkaikoa ez ezik, euskal biztanleria osoa ere %1,25ean gehitu bait zen mendearen amaierara bitartean. Orduko baldintzak aintzat harturik, halako gehitze edo hazkunde tasak izateko, kanpotar askoren etorrera gertatu beharra zegoen, bestela, oraindik handia zen hilkortasunaren poderioz, biztanleriaren bezko hazkundera ez bait zen aski horrelako tasak suertatzeko.

Mende honetako lehen 75 urteetan zehar ere hazkunde demografikoak dirau, urteak igaro ahala EEA osora hedatzen dena eta 1950etik 1975era bitartean, batez ere, nabarmentzen dena, urte horietan, gerrate-ondoko hamarkadaren ondorengo zuzpertzeko ekonomikoak bultzaturik, etorkin-samalda berria Euskadiratzen bait da.

Etorkinak hain ugariak izan ziren, ezen biztaleriaren hazkunderaren ia %50a migrazio-saldoaren ondorioz sortzen den; eta gainontzeko %50a, honez gero jaiotzeak heriotzeak baino gehiago zirelako.

Beste alde batetik, bada urte horietako jaiotze-kopuru handian eragina duen beste faktore garrantzitsu bat, hots, etorkinetako asko bikote gazteak direla, seme-alabak munduratzeko gai zirenak, alegia.

## AZKEN URTEAK



Lehenago ere “krisialdi demografikoa” aipatu dugu 1976an hasi eta gaur egun bitarteko aldia izendatzerakoan. Krisialdi honen eta, funtsean, hilkortasun izugarri

baten ondorio latza ziren erregimen zaharreko krisialdi demografikoen arteko erkaketa alde batera utzita, izendura horrek iraganekiko haustura garbia adierazten digu, etorkizun ezberdina erakusten digu, batzutan, migrazioak kasu, lehenagokoen alderantzizko jokaera demografiko berrietan oinarritzen den etorkizuna, alegia.

**2. TAULA.** Ezkontza-tasaren (ET), jaiotze-tasaren (JT), hilkortasun-tasaren (HT) eta umeen hilkortasun-tasaren (UHT) bilakaera

URTEA	ET	JT	HT	UHT
1976	7,8	19,8	7,0	17,1
1977	7,6	18,3	6,9	16,6
1978	7,0	16,5	6,6	17,5
1979	6,2	14,5	6,5	16,0
1980	5,8	13,5	6,7	14,7
1981	5,0	13,0	6,8	13,0
1982	4,2	11,9	6,4	10,7
1983	3,4	10,8	6,7	11,6
1984	4,8	10,4	6,9	11,2
1985	4,4	10,1	7,2	9,8
1986	4,4	9,5	7,1	9,8
1987	4,4	8,7	7,0	10,0
1988	4,4	8,5	7,4	9,4
1989	4,5	8,0	7,3	7,5
▲ %	-42,3	-59,6	+4,3	-56,1

Euskal biztanleriak bi ezaugarri nagusi erakusten ditu, bere oraina eta etorkizuna baldintzatzen dituzten ezaugarriak:

- Lehenik, jaiotzeen beherakada eta, gehitzeko joerarekin izan bada ere, hilkortasunaren mantentzea ageri izan diren hamarkada baten ondoren, berezko hazkundera oso agudo abiatzen ari dela hutsa izatera.
- Eta bigarrenik, migrazio-saldoa zifra negatibotan egonkortzen ari dela, zifra absolutuetan oso handiak ez badira ere, gero eta garrantzizkoagoak direnak biztanleria osoaren gutxitzea ekar dezaketelako.

Faktore biok, askotan ugalkortasunaren eta emigrazioaren gutxitze gisa agertzen direnak, kezkarazteko modukoak ditugu 1990era heldutakoan ere. Lehenengoari dagokionez, jaiotze-tasa gordinetan ezagunak diren muga guztiak hautsi direnetik, egonkortze bat eta halako zuzpertz txiki bat ere espero daiteke epe laburrera.

Jaiotzeen ondoan, halaber, krisialdi demografikoaren beste seinale argi bat aurki dezakegu, hau da, zahartzea edo, beste modu batez adierazi nahi bada, adintsuek biztanle-kopuruan duten eragin nabarmena. Egitura demografikoan txertaturik dagoen joera honek garrantzi handiko ondorio sozioekonomikoak sortarazten ditu osasun arloan, hezkuntzan, enpleguan, etab..., geroago aztertuko dugun bezala.

## HILKORTASUNA

Hilkortasunaren, edo egokiago esateko, biziraupenaren egoera asko hobetu da azken urteetan, nahiz eta aspaldiko demo-

grafo zein medikuek, sasoi hartako osasun maila handiaz liluraturik edo, arlo honetan ezin aurrera zitekeela uste zuten.

Nolanahi ere, eta biztanleriaren zahartzea dela medio, gaur egungo hilkortasunaren tasa gordinak halako goranzko joera batez ageri zaizkigun arren, bestelako indize zehatzagoei erreparatuz gero, hobekuntza nabarmenak ikus daitezke.

1976ko HTG, hilkortasunaren tasa gordina, %7,0koa bazen, 1982an %6,4ekoa zen eta 1989an %7,3koa, aipatu dugun joera erakutsiz; hala ere, umeen hilkortasun tasa, hau da, bizirik jaiotzen diren 1000 umetarik urtebete baino lehenago zenbat hiltzen diren, etengabe gutxituz doa data bi horien bitartean, %56,1ean gutxitzen delarik, 1976ko %17,1etik 1989ko %7,5era alegia.

Umeen biziraupenaren bilakaera positibo honek gero eta nabarmenagoa den egitate bat baieztatzen du, hots, Euskal Herrian gaur egun dagoen osasun sistemari esker, bertako jaio berri ia guztiak gainditzen dituztela euren bizitzaren hasierako eragozpenak, eta hau zuzpertz demografikoaren mesederako dela.

Hilkortasunaren indize orokor bati, hau da, bizitzeko itxaropena jaiotzean delakoari helduta ere, baikor izan gaitezke. Hortaz, 1975-76 aldirako kalkulaturiko hilkortasun taulen arabera, indize horri 69,6 zen gizonezkoentzat eta 76,6 emakumeentzat; 1980-81ean, berriz, 71,1 eta 78,6 urtetako batzbesteko biziraupena, hurrenez hurren, erdietsia zen.

1986an ere bazirauen egoeraren hobekuntzak, aurreko urteetakoan antzeko erritmoaz gainera, eta horrenbestez, gizonezkoek 72,9 urtetako batzbesteko biziraupena erdietsia zuten eta emakumeek 80,6koa, 80 urtetako muga ere gainditurik.

Gauzak honela, hamarkada bat bakarrik igarota, gizonezkoak ia hiru urte t'erdi gehiago bizi dira batzbeste eta emakumeak lau urte gehiago. Beste ikuspegi batetik begiratuta, urtebete igarotzen den bakoitzean, gizonezkoek hiruhilabete eta hogeitahiru egun gehiago bizitzeko itxaropena dute eta emakumezkoek lau hilabete eta hamazazpi egun gehiago.

Xehetasun hauek ikusirik, beste ondorio bat ere atera daiteke, hau da, gizon eta emakumezkoen hilkortasun taseen arteko diferentzia gehitu egin dela gizonezkoen kaltetan. Hortaz, 1975ean emakumeek gizonezkoek baino zazpi urte gehiago bizitzeko itxaropena bazuten, 1986an zazpi urte t'erdi gehiago bizitzeko itxaropenaz jaiotzen dira.

## EZKONTZAK

Ezkontzetan nabari izan da, bereziki, 1976az geroztiko krisialdi demografiakoaren eragina. Ezkontza-kopurua erdira

baino gehiagora jaitsi da hamarkada bat igaro ondoren, eta ezkontza-tasak ere bai; hortaz, 1976an 1.000 biztanleko 8 ezkontza izaten baziren, 1983an behea jo zen 1.000 biztanleko 3,4 ezkontzarekin.

Harrez gero, halako gehitze txiki bat antzeman badaiteke ere, ez da joera argi bat bereizten. Beste alde batetik, urte hauetan izan dira, halaber, Erregistro Zibiletan agertzen ez diren hainbat ezkontza, estatistika ondoreetarako zenbatu gabekoak, baina talde jakinetan ematen direnez -pentsiodun agure eta atsoen artean, batez ere- kopuruaren aldetik ez dirudi horren garrantzizkoak direnik eta ugalkortasunari dagokionez ez dute inolako eraginik, noski.

Hel diezaiogun, beraz, biztanleriaren ezkontza-joerari dagokion adierazle zehatzago bati, ezkontzen indize sintetikoari alegia, beronek ulertaraziko bait digu aztertzen ari garen aldian suertatutako bilakaera.

Ezkontzen indize sintetikoak oraingo belaunaldiek urte jakin batetan izandako jokaera agertzen du. Xehetasunak alde batera utzirik, 60 urte edo gutxiago dutenen artean zenbat ezkondu diren, berorien portzentaia, hain zuzen, ematen digu, adin horretatik gora izaten diren lehen ezkontzak oso bakanak bait dira.


1975-76an emakumeen EIS delakoa 1 ari inguratzen zaio, 0,97koa zen hain zuzen, horrek esan nahi du 100 emakumetarik 3 besterik ez direla ezkondu barik geratzen. 1980-81ean indize hori 0,68koa baino ez zen eta 1986-87an 0,54koa. Azken zifra honek agertzen duenez, emakume guztien erdiak baino pixkat gehiago baino ez dira ezkontzen.

### 3. TAULA. Ezkondu gabeko emakumeen ezkontzeko probalitateak (1.000kotan) adinaren arabera 1975etik 1987ra bitarteko urteetan

ADIN ZEHATZA	1975-76	1980-81	1986-87
15	112,2	82,8	36,7
20	655,8	409,1	232,9
25	739,8	303,3	285,5
30	403,7	96,5	86,3
35	184,0	37,7	23,8
40	113,6	16,3	10,1
45	63,9	10,2	4,1
50	39,5	8,1	3,6
55	21,0	4,0	1,9
EIS	0,97	0,68	0,54
BATAZB. ADINA	23,6	24,4	25,7

Era berean, adin gehiagorik ezkontzeko joera ere antzeman daiteke, eta honek beheranzko ondoreak dakartzat EISari dagokionean, hots, baliteke atzeratutako zenbait ezkontza gertatzea eta, horren bestez, beherakada txikiagoa izatea, baina, nolana ere, murrizketa nabarmen handia suertatu da.

**1. IRUDIA.** Ezkondu gabeko emakumeen ezkontzeko probabilitateak adinaren arabera (1.000kotan)



Alde honetatik, 1980-81 eta 1986-87 bitartean, probabilitate gehien dituztenak 25 eta 35 urte bitartekoak direla ikus dezakegu, aurreko urteetan atzeratutako ezkontzak gauzatzeko joeraren erakusle izan daitekeena nolabait.

Ezkontza atzeratzearen atzeratzeaz, azkenean ezkondu gabe geratzen dira hainbat eta hainbat, dela astirik ez dutelako, dela behin adin batetara heldutakoan ezkontzeko gogorik ez dutelako. Eta hauek hainbatek, legeztatu gabeko bestelako elkarbizimoduetara jo dutela ere pentsa genezake.

Hala ere, ez dirudi Euskal Herrian hala gertatu denik. 1986ko Biztanleen Udal Erroldan eta beste zenbait inkestetan bildutako zifren arabera, urte horretan elkarrekin bizi ziren ezkongabeak 8.000 baino gehiago eta 10.000 baino gutxiago ziren. Bikoteak, aintzat hartuz gero, guztira 4.500 dirateke, kopuru urria, beraz, 1976. urtean bakarrak izan ziren 16.000 ezkontzaren aldean; alabaina, 1989an 9.500 ezkontza baino ez ziren izan.

Erroldatzerakoan eta gainontzeko inkestetan -zailago bada ere- halako elkarbizimoduak ez airtortzea ere gerta daitekeen arren, argi dago elkarbizitza-era hauek, orain arte behinik behin, kopuru urriz ageri zaizkigula eta ez dutela inondik ere legezko ezkontza ordeztu.

Aurreko azalpena laburbilduz, bai legezko elkartzeak eta bai bestelakoak, arrazoi ezberdinengatik, gero eta urriagoak direla edo beste herrialde batzutan baino geldoago ageri direla esan genezake, gauzak horrela, seme-alabak espero baino luzaroago gelditzen direlarik gurasoen etxetik alde egin gabe, duela urte batzu nagusi zen laster alde egiteko joeraren alderantziz.

Ezkontzara gero eta gutxiago jotzearen arrazoi jakin batzu -krisialdi ekonomikoa, gazteen lan-gabezia, lan ez-iraunkorra, etab.- izan daitezke, baita ere, 1981eko legeztaketaren ondoren izandako dibortzio eta banantzeen zio, elkarren adostasunezko batzeen gehikuntza ere moteldu duten bezalaxe.

Fenomeno hauei buruz oso zifra gutxi ezagutzen diren arren, gutxi horiek erakusten dutenez, urtero 400 dibortzio gutxi gorabehera izaten dira, hau da, ezkontza garaikideen %4 edo 5, 1000 biztanleko 0,2 alegia. Legezko banantzeen egitatezkoak generatuz gero, kopurua bikoiztu egiten da,

baina zifra hau galbahetik iragan eta 1986an zegoen milioi erdiko ezkontza-stockarekin alderatu beharra dago.

Azken urteotan, berriz, legezko banantze eta dibortzioak gehitzeko joera garbia agertzen ari da, epai-iturrietatik etorritako azken datuei erreparatuz gero ikus daitekeenez.

### UGALKORTASUNA

Jaiotzerik gehienak ezkonduen artean gertatzen direneko gizarte batetan, hau da, hitz "zaharkituak" erabiliz, legezko jaiotzeak nagusi direneko gizarte batetan, ezkontzen bilakaera funtsezkoa gertatzen da biztanleriaren eta, azken finean, emakumeen ugalkortasuna mugatzerakoan.

Lehentxoago ikusi dugun bezala, ezkontzen joera oso negatiboa izan da azken urteotan eta joera horrek eragin nabarmena izan du jaiotzeetan, nahiz eta beronen beherakada ekarri duten beste zenbait faktore ere badiren.

Jaiotzeen tasa gordinei dagokienez, %50etik gorako beherakada izan da, izan ere, 1976a 1000 biztanleko 20 jaiotze suertatzen ziren eta 1989an 8 besterik ez, azken bolada honetan maila urri horretan egonkortzeko joera antzeman daitekeelarik.

Jaiotzerik gehienak ezkonduen artean gertatzen direneko gizarte batetan, hau da, hitz "zaharkituak" erabiliz, legezko jaiotzeak nagusi direneko gizarte batetan, ezkontzen bilakaera funtsezkoa gertatzen da biztanleriaren eta, azken finean, emakumeen ugalkortasuna mugatzerakoan.


### UGALKORTASUN OROKORRA

B

ilakaerazko joeren balorazio egokia egiteko, 1975-76an, oraindik, euskal emakumeek seme-alaba ugari izateko jokabideei jarraitzen zirela eta ama nahiko gaz-

terik bihurtzen zirela gainera kontutan hartu beharra dago. Emakume bakoitzeko 2,7 seme-alaba izan ohi ziren batzbeste eta horietako gehienak 35 urte bete aurretik munduratzten ziren, nahiz eta 15 urte gehiago izan seme-alaba gehiago erditzeko.

### 2. IRUDIA. Ugalkortasun orokorraren tasak (1.000kotan)



Hirurogeitamargarren hamarkadaren amaieran suertatzen den bapateko gutxitzeaz, ugalkortasuna Europako mailetara inguratzen da, herrialde gehienetan bilakaera berdintsuagoa izan bada ere. 1980-81ean adierazle sintetikoak 1,8 seme-alaba izateraino jaisten da, hau da, gizaldiak ordezteko mugatik behera, muga hori, gaur egungo hilkortasun baldintzetan, 2,1ean bait dago.

**4. TAULA.** Ugalkortasun orokorraren tasak (1.00kotan) 1975etik 1987ra bitarteko urteetan

ADINA	1975-76	1980-81	1986-87
15 - 19	17,1	14,9	7,4
20 - 24	131,9	82,1	36,5
25 - 29	190,1	131,9	93,5
30 - 34	119,6	82,4	68,6
35 - 39	56,4	36,5	23,4
40 - 44	19,2	10,3	4,9
45 - 49	1,8	0,9	0,3
UTO	77,8	52,7	35,8
UIS	2,68	1,79	1,17
BATAZB. ADINA	28,7	28,6	29,2

Harrez geroztik, ugalkortasunak zenbateko oso urriak erakutsi ohi ditu, 1986-87an behea jotzen delarik 1,2az. Bitartean, gero eta beranduago erabakitzen da seme-alabak izatea eta amatasunaren batzbesteko adina 29 urtez gorakoa da berriro ere. Ezkontzen kasuan azaldutakoaren antzeko ondorea dela medio, ugalkortasunaren egutegia zahartzen den neurrian, ugalkortasuna bera indargetuz doa, eta horrenbestez, baliteke adierazle sintetikoak emakumeek azkenean izango dituzten seme-alaben kopurua gutxiatea, alabaina, kopuru hori 1975a baino lehenagokoa baino askoz ere txikiagoa izango da nolana ere.

**LEGEBIDEZKO  
UGALKORTASUNA**



egebidezko ugalkortasuna esaten dugunean, legez ezkontutakoaren artean suertatzen dena ulertzen dugu; beraz, berau aztertze biderik egokiena, legebidezko

ugalkortasun tasak ezkontzen iraupenaren arabera kalkulatzeko datza. Hala lortutako xehetasunak azaltzen dira ondoko taulan eta arretaz erabili behar dira, izan ere, iraupenaren arabera ezkontzen zifrak 1981ean bakarrik bait dira nahiko zehatzak, Biztanleen Erroldatik ateratakoak, alegia.

**5. TAULA.** Legebidezko ugalkortasun tasak (1.000kotan) ezkontzaren iraupenaren arabera 1975etik 1986ra bitarteko urteetan

IRAUPENA	1975-76	1980-81	1986-87
0	411,12	309,85	273,07
1	453,74	287,83	225,97
2	282,10	229,82	201,27
3	254,85	193,88	169,79
4	221,22	168,62	144,33
5	182,62	144,55	126,75
6	147,44	112,83	114,19
7	123,87	85,65	88,65
8	103,97	65,05	68,28
9	85,67	52,77	49,69
10	69,88	42,34	36,69
11	56,75	35,27	24,66
12	45,82	28,17	20,03
13	39,50	23,33	15,19
14	31,08	20,07	11,64
15	27,42	16,85	8,35
16	20,18	12,25	6,03
17	16,37	9,03	4,81
18	12,64	6,73	3,28
19	8,13	4,90	2,17
20	6,08	3,87	1,44
21	4,14	2,48	0,95
22	3,52	1,31	0,63
23	1,92	0,65	0,42
24	0,86	0,45	0,28
25	0,48	0,32	0,18
<b>EUIS</b>	<b>2611,37</b>	<b>1858,87</b>	<b>1596,74</b>


Irudian garbi asko ikus daitekeenez, ezkontza-ugalkortasunaren tasek joera berbera erakusten dute hiru urteetan, 1 iraupenean 1975-76 serieak agertzen duen gehitze bitxia izan ezik. Bitxikeria hau, berriz, oinarritzko datuetako errakuntzaren bati leporatu dakioketela pentsa genezake, 2 iraupenean ere antzeman litekeena; hortaz, zifra sinesgarrienak hauek dirateke: %o 380,0 urte 1eko iraupenerako eta %o 303,4 2 urtetako iraupenerako.

Oztopo hau gainditu ondoren, kurben ordenamendu zuzena ageri zaigu: lehenik 1975-76koarena, ondoren 1980-81ekoarena eta honen ondo-ondoan 1986-87koarena. Tasarik handienak, betiere, ezkontzaren lehen 6 urteetan zehar antzematen dira eta ordenamendua erabatekoa da.

Dena den, beherakada nabarmena da. 1975-76tik 1980-81era bitartean %40an gutxitzen da; adierazle orokorra, hau da, ezkontza-ugalkortasunaren indize sintetikoa (EUIS), ezkontza bakoitzeko 2,6 seme-alaba izatetik 1,86 izatera igarotzen delarik. Lehen 7 iraupenak soilik aintzat harturik, 1,95 seme-alaba izatetik 1,45 izatera jaisten da (%34,5 gutxiagoko beherakada alegia).

Horrela bada, bilakaera honek eragin nabarmena du bosturteko honetako ugalkortasun orokorrean. Beherakadaren %90a edo egotzi lekiokie legebidezko ugalkortasunaren gutxitzeari, baina, nolana ere, ez-legebidezko jaiotzeak oso gutxi direla (%1,5 1975ean eta %3,4 1980an) kontutan izanik. Era berean, bosturteko honetan antzeman daitekeen ezkontza-kopuruaren murrizketa gero eta handiagoaren oinarrian zifra benetan handiak direla kontsideratu beharra dago, eta 1980-81ean 0tik 5era bitarteko iraupeneko ezkontzei baino ez dagokiela, ugalkorrenak direnei hain zuzen.

### 3. IRUDIA. Ezkontza ugalkortasunaren tasak (1.000kotan)




Aztertu den garaiaren azkenaldian, berriz, ezkontza-ugalkortasunaren beherakada askoz ere txikiagoa da, izan ere, zenbait iraupenetan (6 eta 10 urte bitartekoak) tasa ia berdina agertzen bait zaizkigu 1980-81ean nahiz 1986-87an. Dena den, ezkontza-ugalkortasunaren indize sintetikoa bikote bakoitzeko 1,6 seme-alaba izateraino jaitsi da, 10 urte lehenago baino 1 gutxiago, beraz. Ezkondu ondorengo lehen 7 urteetan 1,26 seme-alaba baino ez dira izaten gaur egun, alabaina, 1986-87ko baldintzak aintzat harturik espero zitekeena baino zerbait gehiago bada, nolana ere.

Ikus daitekeenez, etapa honetan ezkontza-ugalkortasuna orokorra baino gutxiago murriztu da, azken hori maldan behera bait doa oraindik ere. Argi dago, beraz, ezkontza-kopuruaren urritzearen ondorioak dagoeneko azaldu direla, beherakadaren %50a gutxi gorabehera sortaraziz.

Kasu honetan ere, ez-legebidezko jaiotzeak ez dira horren garrantzizkotzat jotzen, 1986-87an %6 baino ez bait dira horrelakoak. Hala ere, azken urteetan berorien eragina nahiz kopurua dexente gehitu da.

## UGALKORTASUNA ORDENAREN ARABERA



ugalkortasuna ordenaren arabera aztertzea, seme edo alaba bakoitzaren etorrera banan-banan aztertzea esan nahi du, banan-banan eta emakume baten erdi-


tzeen ordenaren arabera hain zuzen. Horregatik, jaiotze-ordena guztien eransketa guztizko ugalkortasunaren baliokide da, noski. 6. taulan 1986-87 aldiari buruzko zenbait datu eskaintzen dira eta 4. irudian datuok grafikoki erakusten dira.

**6. TAULA.** Ugalkortasunaren tasak (1.000kotan) ordenaren eta adinaren arabera (1986-87)

ADINA	1975-76	1980-81	1986-87
15 - 19	6,88	0,54	0,02
20 - 24	28,28	7,34	0,74
25 - 29	54,19	33,93	4,38
30 - 34	21,03	36,04	9,09
35 - 39	4,55	8,71	6,74
40 - 44	1,18	1,49	1,72
45 - 49	0,04	0,04	0,08
UISo	580,75	440,45	113,85

Aurrena zifra hauen ahulezia azpimarratu behar da, krisialdiaren aurretiko mailatik behera oso bait daude. Ikus daitekeenaren arabera, gezurrezko edo itxurazko belaunaldi bateko emakumeek, 1986-87ko tasen arabera jokabideari jarraituz gero, batazbeste 0,6 lehen seme edo alaba izango lukete, hau da, 100 emakumetako 40k ez luke seme-alabarik izango, bigarren seme edo alabari bagazozkio, 0,4 baino ez lirateke eta hirugarrenaren kasuan, berriz, 0,1 besterik ez, eta 3.aren gaitetikoak agertu ere ez dira egiten, denak batera seme-alaba guztien %2 baino ez dira eta.


**4. IRUDIA.** Ugalkortasunaren tasak jaiotze-ordenaren arabera (1986-87) (1.000kotan)



Espero zitekeen bezala, 1. ordenari dagozkion ugalkortasun tasak gainontzekoenak baino handiagoak dira 30 urteetara iritsi arte; ondoren, ordea, 2. ordenari inguratzen zaio, baina hau, bigarrena oso maila txikian agertzen delako gertatzen da. Azkenik, 3. ordena gainontzeko biak baino askoz beherago ageri zaigu, jaiotze guztien %10a soilik bait dagokio.

Tasa hauen urritasuna berez nahiko argigarria izan daitekeen arren, are argigarriagoa gertatzen da aldez aurretiko bilkaerara begiratuz gero. Horretarako 1975-76ko datuak erabiliko ditugu, hots, 5. irudian agertzen direnak.

## 5. IRUDIA. Ugalkortasunaren tasak jaiotze-ordenaren arabera (1975-76)



Lehen datu azpimarragarria zera da, lehenengo eta bigarren seme-alabari dagozkien kurbak oso antzekoak direla 1975-76an eta 1986-87an, nahiz eta azken honetakoak beherago egon, jakina. Baina, hirugarren seme-alabari dagokionean, eskala hanpatu honetan ere, tasa-saldoa askoz hurbi-lago ageri zaigu 1975-76an 1986-87an baino.

Honek bigarren gogoeta bat dakarkigu, hau da, ugalkortasunaren beherakada ezberdina izan dela jaiotze-ordenaren arabera. Beherakada orokorra %53koa izan den bitartean, 1. jaiotze-ordenari dagokion ugalkortasun indize sintetikoa (1UIS) %38an baino ez da jaitzi, 2UIS delakoa %45ean eta 3UIS delakoa %75ean. Ondorengoak ia desagertu egin dira, noski.

Horrela bada, gaurko egoera aurkitzen dugu, 1976az geroztik azkartzen den bilakaeraren ondore garbia. Lehen bi jaiotzeen eragina nabarmen handiagoa da ugalkortasun makalaren baitan, lehen 13 puntuz gehitzen da -%37tik %50era- eta bigarrena 6 puntuz -%32tik %38ra-. Hirugarren edo ondorengo seme-alaben portzentaia, berriz, gutxitu egin da: 7 puntuz hirugarrenena -%17tik %10era- ondorengoak ia desagertu egin direlarik -%14etik %2ra-.

Beste herrialde batzutan bezalaxe, gaur egungo emakumeen ondorengo lehen hiru jaiotze-ordenetara biltzen dira eta, batez ere, lehen eta bigarrenean, 3.aren ondoko seme-alabak ia desagertzeko joeraz azaltzen direlarik. Batazbesteko ondorengo txikia bada, baita bariantza ere, banaketaren eskuinaldean ageri ohi ziren luzapenak -familia ugariak- erabat murriztu ondoren.

## MIGRAZIOAK

he in handi batez, bertan gertatutako hazkunde demografikoa. Baina egoera honek 1976ra arte baino

Mende honetan eta aurrekoaren azkenaldian zehar Euskal Herria inmigratio-lurraldea izan da. Etorkinei zor zaie,

ez dirau, urte horretako da, hain zuzen ere, azken saldo positiboa, INE delakoak argitaratutako zifren arabera saldo urria zen, dirudienez, benetan saldo negatiboa izan zitekeena, jadanik.

1976tik 1985era bitarteko hamarkadan, kanpoarekiko elkartrukearen ondorioz 60.000 biztanle gutxiago ditugu, milioi laurden bat etorri izan baziren, 300.000 bizilagun herraldatu ziren. Ondorengo urteetan zehar ere, joera berbera ageri da eta, horrenbestez, 22.500 biztanle gutxiago gara.

EHKAAan barreneko herraldaketak alde batera utzirik, urtero batz bestea joaten direnak 15.000 lirarekin, etortzen direnak, aldiz, 8.000; kopuru biak garrantzizkoak suertatzen dira jaiotze eta heriotze-kopuruarekin alderatuz gero, horrela orekatu bait da azken urteotako bilakaera demografikoa, biztanle-galera txikiak erakusten duen bilakaera, alegia.


### 7. TAULA. Emigrazioa eta inmigrazioa 1976tik 1988ra bitartean

URTEA	EMIGRAZIOA	INMIGRAZIOA	SALDOA
1976	18419	18432	+ 13
1977	32664	31970	- 694
1978	30833	24100	- 6733
1979	35116	24858	-10258
1980	33826	22989	-10837
1981	15690	10453	- 5237
1982	27551	21116	- 6435
1983	29645	24461	- 5184
1984	31133	25291	- 5842
1985	33211	27860	- 5351
1986	17929	14140	- 3789
1987	31196	22590	- 8608
1988	36038	25886	-10152

Euskal Herriari dagokionez, Araban besterik ez da antzematen halako migrazio-saldo positibo txikia, baina, orohar eragin ahula izanik, gipuzkoarren nahiz bizkaitarren emigrazioa orekatzeko oso eskasa suertatzen da.

### 6. IRUDIA. Emigrazioa eta inmigrazioa 1976tik 1988ra bitartean

Milakakoak



Baliteke migraziozko mugimendu hauen norabidean antzematen den aldaketa ere, lehenago, ezkontzen eta ugalkortasunaren krisialdia azaltzeko aipatu diren faktore berberen ondorio izatea. Langabeziak eta ekonomi abagadune latzak, seguraski, gainontzeko fenomeno demografikoekiko baino eragin handiagoa izango bait zuten mugimenduoi dagokienean, bestelako inguruabar pertsionalak edo familia nahiz gizarte mailakoak salbuetsi gabe, noski.

## ETORKIZUNA



Aipatu berri duguna horrela izanik, euskal biztanleria zahartze-bidean barrena abiatu dela esan daiteke, eta abiatze horrek garrantzizko ondorioak dakartza, bai

ekonomikoak eta bai gizarte mailakoak. Askorik sakondu gabe, ondorio nabarmenenak azaltzeari ekingo diogu orain.

Emeki bada ere aldats behera doan eta, egoera errotik aldatzen ez den bitartean, hurrengo urteotan ere horrelaxe jarraituko bide duen guztizko biztanleriaren bilakaera aztertu gabe, berorren adinen araberako egiturari erreparatuko diogu une batez.

1981ean ere, oraingoz, euskal biztanleria gaztetzat jo genezakeen, bere zahartze-tasa %10etik beherakoa izanik, 20 urte baino gutxiago zutenak biztanle guztien herena bait ziren. Alabaina, egoera hau agudo aldatzen ari dela ematen du.


Gure kalkuluen arabera, 1995ean 100 biztanletako 14 agure-atsoak izango dira eta gazteak 21 besterik ez. Gauzak honela, laster zifra biak parekatuko direla dirudi.

### 8. TAULA. Biztanleriaren egituraren bilakera adin talde zabalaren arabera (portzentaiak)

URTEA	0 - 19	20 - 64	65 +
1960	35,1	57,2	7,7
1970	36,1	55,6	8,3
1975	36,0	55,2	8,8
1981	34,4	56,5	9,1
1986	30,4	59,7	9,9
1990	25,7	62,3	12,0
1995	21,3	64,5	14,2
▲ %	-39,3	+ 12,8	+ 84,4

Joera demografikoek sortarazitako ondorio bat agertu da jadanik Euskal Herrian, hau da, eskola-ume gutxiago dago. Gutxitze hau oinarritzko hezkuntzatik abiatu eta erdimailakora nahiz Unibertsitatera ere helduko da eta, horrenbestez, irakasle bakoitzeko ikasle gutxiago izan ahalko dira edota irakasle gutxiago behar izango dira, beti ere, eskolatze-tasak gehitu ezik, baina hau, OHOri dagokionez behintzat, ezinezkoa da dagoeneko %100ean bait daude.

**7. IRUDIA.** Egitura demografikoaren bilakaera



Bilakaera demografikoak biztanle-multzo honengan izan dezakeen eragina eta sor litezkeen ondoreak erakutsi asmoz, hilkortasuna eta eskolatzetarako 1986ko mailan aldatu gabe gelditzen direla susposatu dugu, horrek esan nahi du adin hauek hilkortasun oso txikia antzematen dela eta, aldi berean, %100eko eskolatzetarako 6 urtekoentzat, %85ekoak 14ekoentzat eta %55ekoak 18 urte dituztenentzat.

**9. TAULA.** Belaunaldien tamainu zenbatetsia eskola-zikloko adinik garrantzizkoenetan, eskolatzetarako kontutan izanik

BELAUNALDIA	6 URTE	14 URTE	18 URTE
1965	37762	32032	20683
1970	37734	32024	20667
1975	38734	32857	21215
1976	40155	34062	21993
1978	34837	29551	19081
1980	28149	23878	15418
1982	24889	21112	13632
1984	21983	18686	12040
1986	19824	16816	10858
1989	16795	14246	9199

1965etik 1989ra bitarteko belaunaldiak hartuko ditugu, jaiotze ugariko fasea eta berorren gutxitzearena ere barruhartzen dituztelako. Belaunaldi hauek 1971ean eta 1995ean, hurrenez hurren, betetzen dituzte 6 urte, OHoren hasiera; BBBri ekiteko 14 urteak, berriz, 1979an eta 2003an eta, azkenik, unibertsitateko ikasketak egiten hasteko 18 urteak 1983an eta 2007an, hain zuzen.

Aldaketa gutxiko hasiera baten ondoren (10. Taula), belaunaldien zenbatekoa gehitu egiten da eta, horrela, 1970etik 1976ra bitarteko belaunaldien artean, urteko 400 ume gehiago daude OHOari dagokion adinera heltzean; gure hipotesien arabera, 340 gehiago leudeke BBBari ekiterakoan eta 220ren bat gehiago 18 urtez gora.

#### 10. TAULA. Belaunaldien tamainuaren aldaketa 6 urte izatean

BELAUNALDIAK	▲ OROKORRA %	URTEKO ▲ %	URTEKO ▲ GUZTIRA
1965-70	-0,07	-0,01	-6
1970-76	+6,42	+1,04	+404
1976-80	-29,90	-8,50	-3002
1980-86	-29,57	-5,68	-1388
1986-89	-15,28	-5,38	-1010

Jaiotzeen beherakadarekin batera, 1976tik aurrera, belaunaldi-tamainua urteko 3.000 umez gutxitzen da 1976ko belaunalditik 1980kora, ondoren beste 1.400 umez azken horretatik 1986kora eta, finean, 1.000 ume gehiagoz azkenaldiko belaunaldietan, betiere 6 urte betetzean.

Bi muturretako belaunaldiak kontutan harturik, hots, 1976koa eta 1989koa, eskolara daitezkeenak %58an murriztu dira, hau da, 23.400 ume gutxiago OHoren hasieran, 20.000 gutxiago BBBren hasieran eta 12.800 gutxiago unibertsitateko hezkuntzari ekiterakoan.

Biztanleria aktiboari dagokionez, berriz, bilakaera demografikoaren ondorioak ez dira horren nabarmenak eta, gainera, beranduago azaltzen dira, izan ere, 20 urte bete ondoren suertatu ohi bait da laneratzea.

Biztanleria -eta batez ere emakumeak- gaur egun zernolako baldintzetan ari den lan merkatuan kontutan izanik, larogeitamargarren hamarkadaren erdialdera iritsi arte, behinik behin, ez da biztanle aktibo gutxiago izango eta, horrenbestez, langabezia gutxitzea ere zail samarra suerta daiteke.

#### 11. TAULA. Biztanleriaren proiektzioan erabilitako iharduera eta langabezi tasak adinaren eta sexuaren arabera

Adina	IHARDUERA		LANGABEZIA	
	Gizonezkoak	Emakumeak	Gizonezkoak	Emakumeak
16 - 24	10,50	0,50	0,50	0,50
25 - 44	1,00	0,50	0,10	0,30
45 - 64	0,75	0,25	0,10	0,10
+65	0,00	0,00	0,00	0,00

Aktiboa “litekeen” eta lanik gabeko biztanleriarenganako eragin demografiko zuzena antzeman asmoz, 1986an zeuden iharduera eta langabezi tasa borobilduetan oinarritutako proiektzioa egin dugu (11. Taula).

**12. TAULA.** 16 eta 64 urte bitarteko biztanle guztien, aktibo zein langabetuen, zenbatekoa 1970etik 2000ra bitartean (1.000kotan)

URTEA	GUZTIRA	AKTIBOAK	LANGABETUAK
1970	1154,3	711,3	149,2
1975	1286,6	787,9	166,3
1980	1358,8	823,4	175,2
1982	1392,4	842,6	179,1
1984	1422,1	863,2	183,0
1986	1445,7	878,9	185,9
1988	1468,4	894,4	188,4
1990	1488,0	907,8	189,7
1992	1506,3	920,3	191,4
1994	1515,7	927,3	191,3
1996	1514,2	930,3	189,0
1998	1504,5	929,3	184,6
2000	1491,3	926,6	178,6

Tasa hauek, proiektzioaren gainontzeko baldintzak bezalaxe, ez dira aldatu, aurriskupen bat baino nahiago izan dugulako orain arte lan merkatuan gertatu denaren eta datozen urteotan gerta daitekeenaren ebaluazioa egitea.

16 eta 64 urte bitarteko biztanle-kopuruari dagokionez, 1970eko 1.154,3 mila biztanleak 2000 urtean 1.491,3 mila bihurtuko ziren, 1994ean gehienezkoa erdietsi eta gero, 1.515,7 mila alegia. Hazkunde-tasarik handienak, berriz, iraganeko urteetan aurki daitezke eta, batez ere, 70. hamarkadako lehen bosturtekoan; gaur egungo baldintzak aldatu ezik, hazkunde hori gutxitze bihurtuko delarik 1995etik aurrera.

Aipatutako iharduera-tasak aintzat harturik, “aktiboak” 711,3 mila badira 926,6 izatera iritsiko lirateke hogeitamar urteren buruan, gehienezkoa 1996an erdietsiz 930,3 milarekin, hots, %61,4eko batazbesteko iharduera-tasarekin; ondorengo gutxitzea oso eskasa izango litzateke eta, horrenbestez, mendearen amaieran Euskal Herriko biztanleria aktiboa maila oso handietan legoke.

Eta honek langabeziaren arazoa eragotzi egiten al du? Hein batez. Hogeitamar urteak batera hartuz gero, langabezia urtero %0,6an baino ez litzateke gehituko (13. Taula) egitura demografikoaren bilakaeraren ondorioz, beti ere, onartutako tasen hipotesiari jarraituz.

Gehikuntzarik handienak hirurogeitamargarren hamarkadari legezkieke, larogeigarren hamarkadaren hasieran, aldiz, gehikuntza-tasak motelagoak lirateke, eta 1993tik aurrera gutxitzeak le-  
tozke.

**13. TAULA.** 16 eta 64 urte bitarteko biztanle guztien, aktibo nahiz langabetuen, urteroko batazbesteko gehikuntza-tasak 1970etik 2000ra bitartean (portzentaiak)

BITARTEA	GUZTIRA	AKTIBOAK	LANGABETUAK
1971-1975	2,18	2,07	2,19
1976-1980	1,10	0,88	1,05
1981-1982	1,23	1,16	1,12
1983-1984	1,06	1,21	1,07
1985-1986	0,83	0,90	0,78
1987-1988	0,78	0,88	0,67
1989-1990	0,66	0,74	0,35
1991-1992	0,61	0,69	0,46
1993-1994	0,31	0,38	-0,02
1995-1996	-0,05	0,16	-0,62
1997-1998	-0,32	-0,05	-1,18
1999-2000	-0,44	-0,15	-1,62

Orain arte bestelako egoera nagusitu bada ere, langabeziaren gehikuntza aktiboa litekeen biztanleriaren gehikuntzari egotzi izana, zeharka ere, bidegabekeria dela deritzogu, zeren, ondorio txar horien ondoan, biztanleriaren gehikuntza hori onuragarria izan bait da edo izan bait zitekeen ekonomiaren aldetik, nahiz eta onura hauek ez agertu zahartzearen leloa aireratuz plazaratzen diren zenbait azterketa beldurgarritan edo langabeziaren bilakaera negatiboa arrazoitzeko atxakietan.

Etorkizunean landunek jubilatuen zama jasan beharko dutela eta, egun hain arruntak bilakatu diren aieneak arazoaren funtsezko alderdi batez ahazten dira, hots: hurrengo urteetan ere jubilatua gero eta gehiago izango badira ere, biztanleria landunak are gehitzeko posibilitatetak dituela hurrengo arrazoiongatik:

- Egungo langabetuak gutxitu edo desagertu egingo direlako - eta hauen “zama” pentsiodun-kopuru berberak sortaraz lezakeenaren antzerakoa da-.
- Gero eta emakume gehiago sartzen delako lan merkatuan, eta honen ondorioz, biztanleria aktiboa, etorkizunean, aktiboa litekeenaren parekide izateraino iritsiko delarik.
- Gaur egun aktibo-osteko adinekotzat jotzen direnen iharduera, 65 eta 70 urte bitartekoena batez ere.

Badirudi, beraz, bidezkoena lan merkatua indartzen saiatzea litzatekeela, enplegu gehiago eskainiz; eta alperrikako burrukak alde batera uztea, zeren etorkizuneko jubilatua gaurko langileak bait dira eta, dudarik gabe, ongi irabazia bait dute pentsio bat jasotzeko eskubidea.